* Lanbide Heziketa Espezifikoari zegozkion heziketa zikloetara sartzeko probak egiteko deialdia egin zuen martxoaren 1eko 180/2001 Ebazpena. Okerrak zuzentzea, 2001eko

ekainaren 13ko :bon.ean.

* Goi mailako lanbide heziketako zikloetara sartzeko probak prestatzeko ikastaro esperimentala 2001-2002 ikasturterako ezarri zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 11ko 398/2001 Ebazpena. Ikastaro hori lanbide heziketako irakaskuntzetako teknikari titulua lortu duten ikasleentzakoa da.

Eta, azkenik, Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseilua abiatu da:

* Lanbide Heziketako Kontseiluko kideak izendatzeko balio izan zuen urriaren 30eko 351/2000 Foru Dekretua.

* Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseilua antolatzeko erregelamendua eta ibiltzeko araubidea onetsi zituen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abenduaren 15eko 511/2000 Foru Agindua.

## 2.6. Hezkuntza berezia.

Atal honetan, arauzko ekimenek Foru Komunitatean sendotutako beren zerbitzuen jarraipena eman baizik ez dute egin.

- 2000/2001 ikasturterako Nafarroako Hezkuntza Zentroetan Derrigorrezkoaren osteko Bigarren Hezkuntzako mailetan araubide orokorrean irakaskuntzetan ikasten zebiltzan eta sentimen- edo- motrizitate-ezintasuna zuten ikasleentzako irakaskuntzako banakako laguntzetarako deialdia egin zuen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 4ko 358/2000 Foru Agindua.

- 2000/2002 ikasturterako Hezkuntza Bereziko Laguntzetarako eta Beketarako deialdia behin-behinean ebatzi zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren azaroaren 27ko 1082/2000 Ebazpena.

- 2000/2001 ikasturterako Nafarroako Hezkuntza Zentroetan Derrigorrezkoaren osteko Bigarren Hezkuntzako mailetan araubide orokorrean irakaskuntzetan ikasten zebiltzan eta sentimen- edo- motrizitate-ezintasuna zuten ikasleentzako irakaskuntzako banakako laguntzetarako deialdirako gehieneko kopurua 500.000 pezetatan zabaldu zuen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abenduaren 4ko 474/2000 Foru Agindua.

- Minusbaliotasun psikikori, motorikoari eta sentsorialari lotutako hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleen eskolatzeko prozedurari buruzko otsailaren 20ko 39/2001 Foru Agindua.

- Hezkuntza Beharrizan Bereziak izeneko fitxategi informatizatua sortzeko apirilaren 4ko 136/2001 Foru Agindua.

- Nafarroako Foru Komunitateko itunpeko ikastetxeetan hezkuntza beharrizan bereziak dituzten edo gizarte edo kultur egoera txarretan zeuden ikasleei jaramon egiteko beharrezko baliabideak aldarazteko edo luzatzeko 19/2000 Foru Legearen 35.6 artikuluan garatuta zeuden herri deialdiko oinarri araupetzaileak 2001/2002 ikasturterako onetsi zituen apirilaren 11ko 147/2001 Foru Agindua.

- Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko adituen lanpostuak merezimenduen lehiaketaren bitartez zerbitzuak egiteko araubidean hornitzeko deialdia onetsi zuen maiatzaren 18ko 181/2001 Foru Agindua.

- Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren etapetako pedagogia terapeutikoko irakasleen jarduketarako jarraibideak onetsi zituen maiatzaren 11ko 402/2001 Ebazpena.

***Atal honetan Nafarroako Eskola Kontseiluak berriro adierazi gura du ezen hezkuntza beharrizan bereziak agertzen dituzten haurrei arreta goiz eta behar bezala emateko premiazkoa dela Haur Hezkuntzako 0-3 urtekoen tartea araupetu eta ezartzea.***

### *2.7. Hizkuntzen irakaskuntza.*

2000/2001 ikasturtean zehar arau-garapenik handiena izan duen eremua da, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren horri buruzko helburuekin bat etorririk.

a) Hizkuntzen irakasleekin lotutako ekimenak bereizi dira:

* Nafarroako Foru Komunitateko Ikastegietako Mintza-laguntzaileen gehieneko 42 beketarako deialdia 2000-2001 ikasturterako egin zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 9ko 1201/1999 Ebazpena.

* Udako egoitza-ikastaroak egiteko aukeratu diren atzerriko hizkuntzen irakasleen zerrenda eta horri zegokion gastua onetsi zituen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abuztuaren 14ko 701/2000 Ebazpena.

* 2000rako Udako Hizkuntz Ikastaroak egiteko laguntzetarako deialdia ebatzi zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abuztuaren 18ko 713/2000 Ebazpena.

* 2000rako ingelesean edo frantsesean hizkuntzari begira murgiltzeko ikastaroak egiteko diru-laguntzetarako deialdia ebatzi zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abuztuaren 28ko 720/2000 Ebazpena.

* Nafarroako Foru Komunitateko Ikastegietako Mintza-laguntzaileen gehieneko 42 beketarako deialdia 2001-2002 ikasturterako egin zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 5eko 1118/1999 Ebazpena.

* Nafarroako Foru Komunitateko itunpeko ikastetxe pribatuetako eta publikoetako atzerritar hizkuntzen irakasleak prestatzeko ikastaroak egiteko laguntzetarako deialdia egin zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren azaroaren 23ko 1063/2000 Ebazpena.

* 2001/2002 ikasturtean zehar eskola zentro publikoetarako mintza-laguntzaileentzako deialdia baimendu zuen otsailaren 21eko 116/2001 Ebazpena.

* Udako egoitza-ikastaroak egiteko laguntza eskatu zuten atzerriko hizkuntzen irakasleen zerrenda onetsi zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren irailaren 19ko 839/2000 Ebazpena.

b) Bigarrenik, ikasleentzako eta ikastetxeentzako ekimenak:

* Nafarroako hezkuntza zentroetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat ingelesean edo frantsesean hizkuntzari begira murgiltzeko ikastaroak egiteko deialdia onetsi zuen apirilaren 11ko 350/2001 Ebazpena.

* Nafarroan ingelesean edo frantsesean hizkuntzari begira murgiltzeko ikastaroetarako programa betearazteko gastua baimendu eta programa hori kontratatzeko espedientea eta onetsi zuen maiatzaren 2ko 393/2001 Ebazpena, eta haren Klausula Administratibo eta Teknikoen Plegua.

* Nafarroako irakaslekuetako eta Europar Erkidegoko Estatu kideetako ikasle taldeen arteko

eskola trukeak egiteko laguntzetarako deialdia onetsi zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren azaroaren 23ko 1064/2000 Ebazpena.

* 2001ean zehar Nafarroako Foru Komunitateko eskola zentroek Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren atzerriko hizkuntzako eskolaz kanpoko jardueren programan parte hartzeko deialdia onetsi zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren azaroaren 23ko 1065/2000 Ebazpena.

* ·"Udako hizkuntz ikastaroak atzerrian 2001eko udan" programa betearazteko gastua baimendu eta programa hori kontratatzeko espedientea onetsi zuen Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 1248/2000 Ebazpena.

* Nafarroako hezkuntza zentroetako Bigarren Hezkuntzako ikasleak atzerriko Udako Hizkuntz Ikastaroetara joateko laguntzetarako deialdia onetsi zuen otsailaren 21eko 126/2001 ebazpena.

* Iruñeko eta Tuterako Hizkuntz Eskoletan irakatsi beharreko hizkuntzen irakaskuntza espezializatuei zegokien 2001-2002 ikasturterako eskola-egutegia egiteko era araupetuko zuten arauak onetsi zituen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 24ko 375/2001 Ebazpena.

* 2001erako Nafarroako irakaslekuetako eta Europar Batasuneko Estatu kideetako ikasle taldeen arteko eskola trukeak egiteko laguntzetarako deialdia onetsi zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 24ko 716/2001 Ebazpena.

c) Eta, hirugarrenik, Europar Batasunaren hezkuntza programekin loturiko guztia:

* Europar Batasunaren Sokrates Programaren bigarren faseko Comenius: Eskola Hezkuntza izeneko ekintza deszentralizatuei zegozkien laguntzetarako deialdia egin zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 17ko 42/2001 Ebazpena.

* Europar Batasunaren Sokrates Programaren bigarren faseko Comenius: Eskola Hezkuntza izeneko ekintza deszentralizatuei zegozkien laguntzetarako deialdia egin zuen urtarrilaren 17ko 43/2001 Ebazpena.

* Europar Batasunaren Sokrates Programaren bigarren faseko Grundtvig: Irakasleak prestatzeko mugikortasuneko eta ikasketako elkarteak izeneko ekintza deszentralizatuei zegozkien laguntzetarako deialdia egin zuen otsailaren 8ko 95/2001 Ebazpena.

* Europar Batasunaren Sokrates Programaren bigarren faseko ekintza deszentralizatuei zegozkien laguntzetarako deialdia egin zuen apirilaren 4ko 315/2001 Ebazpena: 6.2 ekintza: Behaketa eta Eraberriketa: Hezkuntza arloko arduradun eta adituentzako azterketa bisitak.

* Hizkuntzen irakaskuntza espezializatuen Oinarrizko Zikloa antolatu eta haren curriculuma ezarri zuen uztailaren 16ko 196/2001 Foru Dekretua.

* 2001-2002 ikasturtean Nafarroako Urrutitiko Hizkuntz Eskola Ofizialaren antolaera eta ibilera araupetzen duten jarraibideak onetsi dituen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 5eko 258/2001 Foru Agindua.

**Atzerriko hizkuntzak ikasteko neurriak. 2001. urtea.**

**a) Trukeak:**

Helburuak:
- Nafarroako ikasleak Europako Batasuneko estatuetako ikasleekiko trukaketa programetan esku hartzera bultzatzea, atzerriko hizkuntzak hobeto jakiteko
- Europa eta bertako ohiturak ezagutzea bultzatzea, Europar Batasunaren baitan sartuago egon gaitezen..

Nafarroako irakasleku guztiek har dezakete parte (publiko nahiz pribatuek):
- Lehen Hezkuntzako ikastetxeak (5. eta 6. ikasmailak).
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak.
- Arte Eskolak eta Hizkuntza Eskola Ofizialak eta Kontserbatorioa.

Atzerriko herrialdean eginiko egonaldia gutxienez 7 eta gehienez 20 egunekoa izanen da, eta ikasle talde bakoitzeko ikasle kopurua gutxienez 10ekoa izanen da; irakasleek lagunduta egon beharko dute. Honelako banaketa hartuko da kontuan:
- 10-20 ikasle: 2 irakasle edo 1.
- 21-35 ikasle: 2 irakasle.
- 36 ikasle edo gehiago: 3 irakasle.

Jarduera ikasturtean edo oporraldietan egiten ahalko da, eta ikastetxearen programaketa orokorrean jasota egonen da.

Ikastetxeek deialdiko ereduaren araberako eskabidea aurkeztu beharko dute.

Trukaketak egiteko laguntzei buruzko 2001eko deialdia azaroaren 23ko 1064/2000 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen 2001eko urtarrilaren 12ko 6 zenbakiko :bon.ean.

Hezkuntza zuzendari nagusiaren uztailaren 24ko 716/2001 Ebazpenaren bitartez, deialdia ebatzi zen; orotara, 12.552.000 pezetako dirulaguntza eman zien honako ikastetxeei

3 zenbakiko koadroa

**Trukaketa programarako eskola zentroentzako diru-laguntzak**

| Eskola zentroa | Laguntza |
|---|---|
| Ibaialde BHI (Burlata) | 845.000 |
| José Mª Huarte IPE.I.P. (Iruña) | 395.000 |
| Navarro Villoslada BHI | 1.105.000 |
| Iturrama BHI | 430.000 |
| Azagra DBHI | 475.000 |
| Peralta BHI | 290.000 |
| Zizur BHI | 280.000 |
| Sierra de Leyre BHI (Zangoza) | 254.000 |
| Alhama BHI | 400.000 |
| Tudela E.T.I. | 860.000 |
| Padre Moret BHI | 467.000 |
| Hijas de Jesús ikastetxea | 758.000 |
| Ursulinas ikastetxea | 498.000 |
| Cardenal Larraona ikastetxea (Iruña) | 200.000 |
| Vedruna ikastetxea (Iruña) | 140.000 |
| Ntra. Sra. Huerto ikastetxea (Iruña) | 940.000 |
| San Cernin ikastetxea (Iruña) | 2.580.000 |
| Luis Amigó ikastetxea | 600.000 |
| Santa María la Real ikastetxea | 235.000 |
| Santa Teresa ikastetxea | 800.000 |

| | |
|---|---|
| **Gutxieneko laguntza** | 140.000 pezeta |
| **Gehieneko laguntza** | 845.000 pezeta |

| Ikastetxe onuradunen kopurua | 1999 | 2000 | 2001 |
|---|---|---|---|
| Publikoak | 14 | 9 | 11 |
| Itunpekoak | 5 | 11 | 9 |
| Orotara | 19 | 20 | 20 |

**b) Mintza-laguntzailea:**

Helburuak
- Nafarroako ikasleei beren ingelesa, frantsesa eta alemaniera eguneratzeko eta hobetzeko aukera ematea.
- Denetariko hizkuntzak ikasteko gogoa piztea haiengan.
- Europar ikusmoldea aurkeztu eta indartzea ikastetxean.
- Laguntzaileak irakasle, ikastetxe eta ikasleen mesederako dira.

Aurtengo deialdia 1118/1999 Ebazpenaren bitartez eman zen argitara (2001eko urtarrilaren 12ko :bon.ean), eta honako ezaugarriak ditu: 42 beka ikastetxe publiko, Bigarren Hezkuntzako institutu eta Hizkuntz Eskola Ofizialetako ingeles-, frantses- eta alemaniera-laguntzaileentzat. Beka gehienak 103.000 pezetakoak dira, eta 8 hilabeteko iraupena dute. Laguntzaileek 14 orduko arduraldia izanen dute.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak deitutako mintza-laguntzaileen programa urrian Larrabiden eginiko harrera bilera batekin hasi zen. Bertan agiriak, interes orokorreko eta hezkuntza intereseko informazioa, Departamentuan eginiko laguntzailearen gidaliburua eta abar eman zitzaizkien. Gainera, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren atzerriko hizkuntzako eskolaz kanpoko jardueretarako deialdian begirale gisa parte hartzeko aukera eman zitzaien.

Urtero kontratatzen da aseguru bat, mintza-laguntzaileentzat.

Europar Batasunaren Sokrates programako Comenius 22B ekintzaren bitartez, bertze2 laguntzaile izaten ahalko dira.

Honakoa da laguntzaileen erkaketaren gaineko taula:

| 4 zenbakiko koadroa<br>**Mintza-laguntzaileen programaren bilakaera** | | | |
|---|---|---|---|
| **HIZKUNTZA** | **1999-2000** | **2000-2001** | **2001-2002** |
| Ingelesa | 24 | 45 | 47 |
| Frantsesa | 12 | 11 | 11 |
| Alemaniera | 0 | 0 | 0 |
| **IKASTETXEA** | | | |
| Ikastetxe publikoak | 11 | 28 | 47 |
| BHI | 25 | 39 | 35 |
| HEO | 0 | 1 | 0 |
| OROTARA | 36 | 68 | 82 |

**c) Ikasleekiko ekintzak.**

**Udako ikastaroak atzerrian –Batxilergoko 1. eta 2. ikasmailak–**

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak otsailaren 21eko 126/2001 Ebazpenaren bitartez martxoaren 14ko 33 zenbakiko :bon.ean argitaratu zuen atzerrira udako ikastaroetara joateko laguntzetarako deialdia.
Kalifikaziorik onenak zituzten Nafarroako hezkuntza zentro publiko eta pribatuetako Batxilergoko 1. eta 2. ikasmailetako ikasleei zuzenduta zegoen.
Programa horrek 31.168.000 pezetako zuzkidura zuen.

Ikastaroak 2001eko uztaileko lau astetan zehar garatu ziren: frantsesarena Frantzian; ingelesarena Britainia Handian, Irlandan Estatu Batuetan edo Kanadan; eta alemanierarena Alemanian.
Deitutako laguntzak 197 izan ziren. Ekonomi zuzkidura ikasleko 160.000 pezetakoa da.

Hezkuntza Departamentuak ikastetxe bakoitzari beka kopuru jakin bat adjudikatzen dio espediente akademiko onena duten eta honako beharkizunok betetzen dituzten ikasleentzat:
- 20 urte baino gehiagorik ez izatea.
- 1998-1999 eta 1999/2000 ikasturteetako ekaineko deialdiko 7,5eko batezbesteko nota egiaztatzea.
- Laguntza eskatzen den atzerriko hizkuntzan oso ongi nota kreditatzea gutxienez, bi ikasturteotan.

**Emakida datuak:**

5 zenbakiko koadroa
**Atzerriko ikastaroen bilakaera –Batxilergoko 1. eta 2. ikasmailak–**

| 1999 | 2000 | 2001 |
|---|---|---|
| 100 laguntza<br>15 milioi | 203 laguntza<br>30 milioi | 197 laguntza<br>31 milioi |
| *Ikasle kopurua eta destinoa:*<br>25 Dublin<br>25 Southampton<br>26 Cork<br>20 USA. | *Ikasle kopurua eta destinoa:*<br>25 Swansea<br>25 Dublin<br>25 Southampton<br>26 Cork<br>39 USA<br>40 Kanada<br>3 Frantzia | *Ikasle kopurua eta destinoa:*<br>25 Swansea (UK)<br>21 Hastings (UK)<br>25 Dublin (Irlanda)<br>25 Tralee (Irlanda)<br>40 USA<br>56 Kanada<br>7 Royan (Frantzia) |

Nafarroako ikastetxe guztiei gutxieneko beka kopurua bermatu zaie. Ikastetxe bakoitzean matrikulaturiko ikasle kopuruaren arabera banatzen dira laguntzak. Batxilergoko 1. eta 2. mailan matrikulaturiko ikasleei lehentasuna eman zitzaien: 48 ikasleko laguntza bat.

### Hizkuntz murgilketako ikastaroak, Nafarroan –DBHko 1., 2., 3 eta 4. maila—

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak atzerriko hizkuntzak ikastea bultzatzeko esperientzia eraberritzaileak bultzatu zituen. Nafarroako Gobernuaren egoitzetan (Altsasuko "Santo Cristo de Otadía gazte aterpetxean eta Lekarozeko "Valle de Baztán" gazte aterpetxean) hizkuntzan murgiltzeko ikastaroak zirela bide, atzerriko hizkuntza (ingelesa) denbora luzeagoan erabili zen eta, hizkuntzen ahozko alderdiak lantzen ahal izan ziren funtsean.

3 ingeles talde antolatu ziren, bi Altsasun (120 ikasle), frantseseko talde bat Lekarozen (77 ikasle). Lekarozen aurreikusitako frantseseko taldea (30 ikasle) deuseztatu zen.

Ikasleak espediente akademikoaren arabera aukeratu ziren, atzerriko bekentzat bezala. Partehartzaile bakoitzak ordaindu behar izan zuen prezioa 40.000 pezetakoa izan zen. Hori kopuru sinbolikoa izan zen, zeren eta Departamentuak ikastaroaren kostuaren zati handi bat finantzatu baitzuen.

Ikastarootako funtsezko alderdi bat Teknologia Berrien eta Informazioaren Zerbitzuak bi egoitzetan instalatu zuen gelan Internet bidez eta teknologia berrien bitartez hizkuntzak ikastea izan zen. Ingelesarekiko edo frantsesarekiko 15 egunetako kontaktuak ikasleengan pizgarriak sortu zituen.

Ikastaroen edukia honelaxe labur daiteke:
- Atzerriko hizkuntzako eskola-jarduerak, komunikazio-izaerakoak.
- Hizkuntza ikasteko Teknologia Berrien Programak.
- Jolas jarduerak eta tailerrak, hala nola, aldizkariak, bideo erreportajeak, igeltsuzko mozorroak, txirikordak, antzerkia, karaokea eta abar.
- Kirol jarduerak.
- Txangoak.

Programa honen garapenak honakoak dakartza aldean:

- Ikasleentzako deialdia: apirilaren 11ko 350/2001 Ebazpena.
- Enpresentzako deialdia: maiatzaren 2ko 393/2001 Ebazpena.

Jarraipena eta ebaluaketa ikasle bakoitzarentzako balorazio-orri baten bitartez egin zen. Emaitzak oso onak izan ziren, bai hizkuntza ikastearen zatian bai esperientzia eta elkarbizitza baloratzearenean.

6 zenbakiko koadroa

**Hizkuntz murgilketako ikastaroei buruzko datuak, Nafarroan –DBHko 1., 2., 3 eta 4. maila–**

| 1999 | 2000 | 2001 |
|---|---|---|
| Ez dago programa | 150 ikasle parte-hartzaile | 197 ikasle parte-hartzaile |
| | Aurrekontua: 8 milioi | Aurrekontua: 7 milioi |
| | Hizkuntzak: frantsesa eta ingelesa | Hizkuntza: ingelesa |

**Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako atzerriko hizkuntzako eskolaz kanpoko jarduerak.**

***Antzerkia***:

Antzerkiak hartu gura den lengoaiarekin eta kulturarekin jatorrizko eta baliozko harremana izateko aukera ematen du. Antzezpen dramatikora joateak hizkuntza geletatik kanpo erabiltzeko aukera ematen du. Jarduera hori antzerki talde bakoitzak eskaintzen dituen material didaktikoekin osatzen da.

Ikasleek laguntza txikia ordaindu behar dute: banakako kostuaren %20koa. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ordaindu behar du gainerako zatia.

Ikasleak antzezpenetara eskola orduetan joaten dira ikastetxeko irakasle batzuek lagunduta.

Lingua Arts Company antzerki taldeak "The Dream Factory"rekin eta "All About Ángel"ekin, Moving On antzerki taldeak “News at Ten”ekin eta Interacting antzerki taldeak “The Shafter files”ekin 6.000 milatik gora ikaslerentzat antzeztu dute Nafarroa osoan zehar.

***Eskolaz kanpoko tailerrak:***

Jarduerak hezkuntza zentro bakoitzean hezkuntza zentro bakoitzean garatzen dira, eskoz kanpoko orduetan. Borondatezkoak dira eta 12na ikasleko taldeentzako ingelesezko edo frantsesezko partaidetzarako jardueren ingurukoak dira. Jarduera "azken aurkezpen" batekin osatzen ahal da. Horrek gurasoei edo bertzeikasle batzuei eginiko lana ezagutzera emanen dio.
Tailer bakoitzak asteroko hamar saio ditu eta gaiak honakook izan dira:

Lehen Hezkuntzako tailerrak:
"Storytelling" delakoa, Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik seigarrenerainoko ikasleentzat hautatutako istorio batzuk ezagutzekoa: ahozko kontakizuna, grabazioak entzutea, irakasleak adierazkortasunez irakurtzea...

"Arts and Crafts", aukeratutako eskuzko lan batzuk egitekoa.

Bigarren Hezkuntzako tailerrak:
"Drama", "Media", "Music". Tailerretan jokoan jartzen diren elementuez gain, asteroko topa-

ketek parte-hartzaileei ikasten ari diren hizkuntza entzun, irakurri, praktikatu eta gozatzea ahalbidetzen diete.

Lehen Hezkuntzan interesgarriak diren lekuetarako bisitak. Ikasturte honetan Iruñeko Gotorlekua bisitatzea abiarazi da, ekaineko astebetez. Irailean berriro bisitatzea espero da.

Jarduera hori Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleentzakoa da, eskola orduetakoa. Ingelesezko azalpena jolasekin, elkarrizketekin, solasaldiekin, lanekin eta abarrekin osatuko da.

Hezkuntza zentro bakoitzak ikasleak bisitalekuraino garraiatzeko erantzukizuna izanen du. Hizkuntzen irakasleek beren eskoletan prestaketa-lanak eginen dituzte, jarduera horren bitartez ingelesa ikastea indartzeko balio izanen dutenak.

Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako kultur intereseko solasaldiak: Batxilergoko eta DBHko 4. mailako 15na ikasle inguruko taldetan burutu dira "Larrabide" gazte-egoitzan. Ohioko unibertsitateko ikasleek Iruñeko ikastetxeetako ikasleak eman zizkieten. Ikastetxe horiek honakook dira: Zizur, Barañain, Basoko, Irabia, Maristas, Escolapios, Mª Ana Sanz eta Askatasuna.

## RGB: Astronomía ingelesez.

2001eko maiatzaren 22an RGB Iruñeko Planetariumean aurkeztu zen Ingelesezko astronomia izeneko programa, Iruñeko Planetariumarekin elkarlanean garatzen duguna. Datorren ikasturtetik aurrera Lehen Mailako ikasleentzako Planetariumaren urteko programaketan sartuko da.

Lehen Hezkuntzako azken ikasmailetako ikasleentzat zuzendutako ingelesezko Astronomia programa da. Ikasleek hizkuntza horretan egiten dute ikastetxearena ez den testuinguru batean. Haurrek 40 minututan RGBri, maskota den ordenagailuari eta Alex astronautari laguntzen diote eguzki sisteman eta izar eta galaxia batzuetan zeharkako bidaia hunkigarrian. Planetariumeko ikus-entzunezko bideei eta ahalbide teknikoei esker, ikusleak kontakizunean bete-betean sartzen dira eta aurkeztutako kontzeptuak eta ideiak ikusten, ulertzen eta berenganatzen ahal dituzte eta esperientziaz gozatzen. Izan ere, hori ingelesa eta Astronomia ikasten jarraitzeko motibazio elementua izan daiteke.

Ikasleek bisita prestatzen dute eta gero lanean jarraitzen dute jarduera didaktiko askotarikoekin prestatu dugun CD-Romari esker.

Proiekzioa Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eta Planetariumaren artean %50ean finantzatu zen eta musika Carlos Etxeberria musikagile nafarrak konposatu du.

### d) Irakasleentzako laguntzak.

Programa hau azaroaren 23ko 1063/2000 Ebazpenaren bitartez (2001eko urtarrilaren 12ko 6 zenbakiko :bon.a) kaleratutako urteroko deialdiaren bitartez burutu zen, 15 milioi pezetako aurrekontu batekin. Laguntzaren zenbatekoa ikastaroaren iraupenaren araberakoa da.

230.000 pezetatik behera: 2 aste
230.000-265.000 pezeta.: 3 aste

300.000 pezeta gehienez.: 4 aste edo gehiago.

Irailaren 19ko 839/2001 Ebazpenak (urriaren 17ko 126 zenbakiko :bon.ean argitaratuak) ebatzi zuen aurreko deialdia.

7 zenbakiko koadroa
**Atzerriko hizkuntzak ikasteko irakasleentzako laguntzak**

| **Irakasleak** | **1999** | **2000** | **2001** |
|---|---|---|---|
| Lehen Hezkuntzako sare publikoa | | 21 | 14 |
| Lehen Hezkuntzako sare pribatua | | | 5 |
| Bigarren Hezkuntzako sare publikoa | | 32 | 32 |
| Bigarren Hezkuntzako sare pribatua | | 11 | 8 |
| **OROTARA** | **22** | **64** | **59** |

2001eko udan atzerrian orotara 71 irakasle prestatu ziren:
- 59 irakasle Hezkuntza Departamentuaren laguntzen bitartez.
- 12 Comenius 22 C europar laguntzen bitartez.

**e) Hizkuntzak ikasteko bertze neurri batzuk.**

## E-learning proiektua

Ingeles gelen ordenagailuak sartzeko planarekin jarraitu genuen, hizkuntza hori ikastea bultzatu eta indartzeko. Aurreko ikasturtean esperientzia hasi zuten 6 ikastetxeei Lehen Hezkuntzako bertze 5 eta Bigarren Hezkuntzako bertze 6 erantsi zitzaizkien. Horiek ordenagailuz eta programaz zuzkitu dira. Ordenagailua eta programak ikasteko baliatu ziren. Lanetan edo lan arloetan aplikatu ziren, ikasleen ikasteko aukerak bultzatuz eta irakaskuntza baliabideak ugarituz. Proiektu honen bitartez, zeharka, ikasleak eskolako beren lehenengo urratsetatik teknologia berriak erabiltzen ohituko dira.

Proiektu honen ikastetxeak honakook dira:
- Atarrabiako Lorenzo Goicoa IP.
- Noaingo San Miguel IP.
- García Galdeano IP.
- Zangozako Luis Gil IP.
- Azagrako Francisco Arbeloa IP.
- Tuterako Virgen de la Cabeza IP.
- Tuterako Monte San Julián IP.
- Erriberriko Príncipe de Viana IP.
- Barañaingo Alaiz IP.
- Barañaingo Los Sauces IP.
- Sanducelai IP.
- Basoko BHI.
- Askatasuna BHI.
- Marcilla BHI.
- Benjamín de Tudela BHI.
- Lodosa BHI.
- Zizur BHI.

***Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi duenez, hobe da mintza-laguntzaileentzako beketarako herri deialdiak itunpeko ikastetxeetara hedatzea.***

### *2.8. Arte irakaskuntza.*

Arte irakaskuntzei buruz 2000/2001 ikasturtean zehar emaniko araudirik garrantzitsuena honakoa izan da:

* Batxilergoa ikasteko beharkizun akademikoak zituzten eta Maila Ertaineko musika ikasketa arautuak ikasten ziharduten ikasleei Batxilergoko amankomuneko gaietan matrikulatzea baimendu zien uztailaren 17ko 252/2000 Foru Agindua.

* Maila ertaineko musika ikasketa arautuen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zenbait arlo eta hautazko irakasgaien arteko baliozkoketak ezarrri zituen ekainaren 29ko 268/2000 Foru Araua. Beraren bitartez araupetu zen Musika Arloa baliozkotzeko prozedura, eta Musikaren araubide orokorreko ikasketetara eta araubide berezikoetara joateko bateragarritasuna eta Heziketa Fisikoaren Arloaren curriculum egokitzapena.

* Uztailaren 19ko 266/1999 Foru Arauko zazpigarren puntuaren idazketa moldatu zuen uztailaren 4ko 272/2000 Foru Araua. Beraren bitartez, "Pablo Sarasate" kontserbatorioarentzako musika ikasketen maila ertaineko hirugarren zikloko hautazko irakasgaiak araupetu ziren, eta aipatu irakasgaien curriculuma onetsi zen (2000ko abuztuaren 23ko :bon.a).

* Musikan Batxilergo titulua lortzeko ikasketak araupetuko zituzten arauak onetsi zituzten abuztuaren 28ko 334/2000 Foru Agindua.

* Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan 2000-2001 ikasturtetik aurrera Arte Plastikoen eta Diseinuaren maila ertaineko eta goi mailako heziketa zikloetako ikasketak orokorrean ezartzea araupetu zuen abuztuaren 28ko 344/2000 Foru Agindua.

* Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak ezarritako ikasketen maila ertaineko lehenengo ikasmailara sartzeko obren zerrenda onetsi zuen otsailaren 12ko 107/2001 Ebazpena.

* Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan irailaren 10eko 2618/1996 Dekretuaren arabera Irakaslearen eta Musika-irakaslearen tituluak lortzeko aparteko probak prestatzeko programak araupetu zituen martxoaren 6ko 61/2001 Foru Agindua.

* 2001erako Udal Musika Eskolentzako diru-laguntzetarako deialdirako oinarri araupetzaileak onetsi zituen martxoaren 22ko 101/2001 Foru Agindua.

* 2001erako antzinako funtsezko kontserbatorioak ziren Udal Musika Eskolentzako diru-laguntzetarako deialdirako oinarri araupetzaileak onetsi zituen martxoaren 22ko 102/2001 Foru Agindua.

* Garinoaingo "Escuela de Música de la Valdorba" izeneko Udal Musika Eskola irekitzea eta ibiltzea baimendu zuen martxoaren 26ko 112/2001 Foru Agindua.

* 2001-2002 ikasturterako nazioko edo atzerriko ikastetxeetako goi mailako musika ikasketetarako beketarako deialdia onetsi zuen martxoaren 26tik 113/2001 Foru Agindua.

* Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan apirilaren 25eko 168/1991 Foru Dekretuaren arabera Dantza Klasikoaren espezialitatean Titulu Profesionala lortzeko aparteko probak

prestatzeko programak araupetu zituen martxoaren 26ko 115/2001 Foru Agindua.

* Nafarroako Foru Komunitateko Musika ikasketa arautuetako eta Dantza ikasketa arautugabeetako eskola egutegia egitea araupetuko zituzten 2001-2002 ikasturterako onetsi zituen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren apirilaren 24ko 376/2001 Ebazpena.

* 2001/2002 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Arte Irakaslekuen antolaera eta ibilera araupetuko zuten jarraibideak onetsi zituen uztailaren 5eko 260/2001 Foru Agindua: "Pablo Sarasate" kontserbatorioa, Dantza Eskola Espezifikoa eta Arte Eskolak.

* Batxilergoko ikasketak eta musika ikasketa arautuak bateratu ahal izateko lehenespenezko ikastetxea zen Iruñeko "Plaza de la Cruz" BHI institutua ezarri zuen abuztuaren 14ko 752/2001 Ebazpena (2001eko abuztuaren 26a).

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Musika irakaskuntzak hobetzeko ezarririko planaren barruan ekainean "Musika Eskolen 1. Jardunaldiak antolatu ziren musika eskolen eginkizuna gizarte eta hezkuntza bertsioan zehazteko eta haientzat guztientzat baterako jardunlerroak eta amankomuneko eztabaidagune bat ezartzeko. Nafarroako berrogei musika eskolatako ehun eta hamar ordezkari bertaratu ziren, bai irakasleak bai udal patronatuen edo enpresen titularrak eta zuzendaritzakoak. Parte hartu zutenak oso pozik geratu ziren, bai edukiei eta proposamenei bai antolakuntzari zegokienean. Inkestek islatutakoaren arabera, 100eko 80k baino gehiagok "On"tzat edo "Oso On"tzat hartu zituzten jardunaldi horiek.

## 2.9. Hezkuntza eta lanbide orientabidea

Orientatzaileak, Bigarren Hezkuntzako Irakaslegoan sartuta, Psikologiako eta Pedagogiako espezialitatean, dagokien 4. kapituluko koadroan kontabilizatuta daude.

8 zenbakiko koadroa
**Ikastetxe publikoetako orientatzaileak**

| Ikasturtea | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 | 1999/00 | 2000/01 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Orientatzaileak** | **95** | **98** | **96** | **107** | **107** |

9 zenbakiko koadroa
**Ikastetxe publikoetako orientatzaileen banaketa. 2000/2001 ikasturtea**

| Aldea | Bigarren Hezkuntzako Institutua | Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua | Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa | Orotara |
|---|---|---|---|---|
| Iruña | 20 | 1 | 24 | 45 |
| Lizarra | 4 | 3 | 5 | 12 |
| Tafalla | 4 | 1 | 8 | 13 |
| Irurtzun | 2 | 1 | 5 | 8 |
| Tutera | 5 | 2 | 9 | 16 |
| Elizondo | 2 | 1 | 4 | 7 |
| Zangoza | 2 | 3 | 1 | 6 |
| **Orientatzaileak orotara** | | | | **107** |

**Itunpeko ikastetxeetako orientatzaileak**

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren otsailaren 29ko 54/2000 Foru Aginduaren bitartez araupetu zen itunpeko ikastetxeen orientazioa. Foru agindu horretan ezarrita dagoenez, 0,04 unitateko orientatzaile batek egon behar du, hau da, 25 unitateko orientatzaile batek.

- Irakaskuntza arauturako, astean 25 ordu: 1,00
- Laguntza, HSAOL Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoko c) letraren arabera, eta "gastu aldakor"etan sartuta ez dauden ordezpenak 0,13
- Zuzendaritzaren funtziorako laguntza, LOPEGCE Legearen zazpigarren xedapen gehigarriaren arabera 0,07
- **Hezkuntza, psikopedagogi eta lanbide orientazioko zerbitzu espezializatuak, HSAOL Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoko e) letraren arabera: 0,04**
- Orotarako ratioa: 1,24

2000 eta 2001eko ekitaldietarako Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Legeek ezarri dutenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloak, Batxilergoa, Maila Ertaineko edo Goi Mailako Heziketa Zikloak eta Gizarte Bermeko Programak ezarri dituzten ikastetxeei finantzatuko zaizkie Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarria.3.e delakoan aipaturiko hezkuntza, psikopedagogi eta lanbide orientazioko zerbitzu espezializatuak.

10 zenbakiko koadroa
**Nafarroako Itunpeko Ikastetxeetako orientazioa, 2001/2002 ikasturtea**

| Orientazio zerbitzudun itun-peko ikastetxeen kopurua | Hezkuntza maila | Orduak orotara |
|---|---|---|
| 45 | Lehen Hezkuntza | 503 |
| 37 | Bigarren Hezkuntza (DBH, Batxilergoa) | 439 |
| 5 | Lanbide Heziketa eta Lanbidean Hasteko Programak | 61 |
| **OROTARA** | | **1.003** |

## *2.10. Dibertsitatearekiko arreta. Kulturartekotasuna.*

### *a) Dibertsitatearekiko arreta.*

2000/2001 ikasturtean zehar emandako arauek dauden baliabideak eta programak araupetu dituzte eta beraiei jarraipena eman diete:

* 2000/2001 ikasturterako Nafarroako Hezkuntza Zentroetan Derrigorrezkoaren osteko Bigarren Hezkuntzako mailetan araubide orokorrean irakaskuntzetan ikasten zebiltzan eta sentimen- edo- motrizitate-ezintasuna zuten ikasleentzako irakaskuntzako banakako laguntzetarako deialdia egin zuen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 4ko 358/2000 Foru Agindua.

* Dibertsitatearekiko arreta berezia, etni gutxiengoak eskolatzeko programak eta gizarte ekimena zituzten ikastetxeak hornitzeko eta ikastetxeotan obra txikiak egiteko diru-laguntzetarako deialdia araupeturik zuten oinarriak onetsi zituen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 17ko 378/2000 Foru Agindua.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren azaroaren 6ko 406/2000 Foru Agindua. Beraren bitartez finkatu zen adinez txikiak Curriculum Egokitutako Kanpoko Unitateetan konpartitutako eskolatze modalitatean zaintzen zituzten ikastetxeentzako 2000rako diru-laguntzaren ekonomi modulua. Foru agindu beraren bitartez baimendu zen 2000ko irailetik abendura arteko epealdiari zegozkion diru-laguntza horiek ordaintzea.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 6ko 63/2000 Foru Agindua. Beraren bitartez finkatu zen adinez txikiak Curriculum Egokitutako Kanpoko Unitateetan konpartitutako eskolatze modalitatean zaintzen zituzten ikastetxeentzako 2001erako diru-laguntzaren ekonomi modulua. Foru agindu beraren bitartez baimendu zen ekonomi modulu horren %45i zegozkion diru-laguntza horiek ordaintzea.

* Kultur eta gizarte baldintza baztertuei loturiko Hezkuntza beharrizanak izeneko fitxategi informatizatua sortu zuen martxoaren 12ko 77/2001 Foru Agindua.

* Nafarroako Foru Komunitateko itunpeko ikastetxeetan hezkuntza beharrizan bereziak dituzten edo gizarte edo kultur egoera txarretan zeuden ikasleei jaramon egiteko beharrezko baliabideak aldarazteko edo luzatzeko 19/2000 Foru Legearen 35.6 artikuluan garatuta zeuden herri deialdiko oinarri araupetzaileak 2001/2002 ikasturterako onetsi zituen apirilaren 11ko 147/2001 Foru Agindua.

### *b) Kulturartekotasuna.*

Atal honetan honakoa bakarrik eman da arau espezifikotzat, "ikasleak onartu eta matrikulatzea" izenekoan sartuta: Nafarroako ikastetxe publikoak eta itunpekoak ORO etni gutxiengoetako edo talde kulralki baztertuetako familietako ikasle espainiar eta etorkin posibleak eskolatzeko gela guztietan BI plaza libre uztera behartzen dituena.

* 2001/2002 ikasturterako fondo publikoekin eutsitako unibertsitatez bertze aldeko irakaslekuetan ikasleak onartzeko prozedura araupetu zuen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urtarrilaren 25eko 19/2001 Foru Agindua.

*"**18. artikulua. 1**. Gizarte eta kultur egoera baztertuetan dauden ikasleak eskolatzea bermatzeko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehenengo mailarako ikasleak onartzeko prozesu arruntean zehar baimendutako ikasle talde bakoitzeko bi plaza gordeko dira, fondo publikoekin eutsita dauden eta irakaskuntza horiek ematen dituzten ikastetxe guztietan.*
***2**. Plaza horiek eskatzen ahalko dituzte, ikasleak onartzeko epe arruntean zehar, etni gutxiengoetako talde gizarte eta kulturari begira baztertuetako familia espainiarrek, Europar Erkidegokoek edo beste herri batzuetatik etorritakoek, 1998an zehar jaiotako ikasleentzat.*
***3.** Gordetako plazak eskuratu nahi dituzten eskatzaileek hori adierazi beharko dute izena eman aurretiko inprimakian, beren herriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren beharrezko txostenarekin batera.*
***4**. Plaza horiek eskuratzeko aurkeztutako eskabide kopurua hutsik dauden plazen kopurua baino handiagoa bada, foru agindu honen 7. artikulutik 13.erainoko artikuluetan irizpideen aplikazioan oinarrituriko lehentasun hurrenkera bat ezarriko da. Ondoreotarako, kasu guztietan egoitza kontzeptuarengatik 5 puntu esleituko dira, eskatzailearen egoitza-lekua edozein delarik ere.*
***5.** hutsik dauden erreserba plazak falta izateagatik onartzen ez diren eskabideak eskabideen zerrenda orokorrera sartuko dira aurreko puntuan aipaturiko irizpideen arabera lortutako puntuaketari dagokion postuan.*
***6**. Zerrenda orokorrera sartu ostean plazarik lortzen ez duten eskabideak Eskolatze Batzordeari bidaliko zaizkio aurkeztutako agiriekin bat etorririk.*
***7.** Hutsik dagoen erreserba plazarik badago, horrelakoak eskabideen zerrenda orokorrarekin bat etorririk esleituko dira."*

Aurreko ekintza osatzeko, Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuak "Ikasle etorkinak eskolatzeko orientazio" batzuk eman ditu eta orientaziootarik atal batzuk aipatuko ditugu hemen, oso garrantzitsuak direlako.

**1. Sarrera. Ikasle etorkinak eskolatzearen aurreko oinarrizko iritzi batzuk.**

Ikasle etorkinak gure geletara etorri eta etorriko direla eta, berriz pentsatu behar dugu zer esan nahi duen gizarterapen abiaburua, banakako ezberdintasunen hezkuntza arretaren gaineko perspektiba zabalagoa hartu behar dugu eta "berriz pentsatu" behar ditugu gure Curriculum Proiektuak. Kultura ezberdinen presentziaz jabetu behar da eta, halaber, antolakuntza eta curriculum neurriak hartu behar dira, gizarte kulturanitzean eta gizarte kulturanitzarentzat elkar eta elkarrekin joritzekotan guztientzat kalitatezko hezkuntza bideragarri egiteko.

Hezkuntza errealitate berri horretan behar dena honakoa da:

- "Kulturaniztasun"ari kasu egiten ddion planteamendutik hezteko erronkari aurre egitea, bizitza ulertzeko era ezberdinak errespetatuz eta aintzatetsitako kultur ezberdintasunak kontuan harturik ikasleek elkarrekin demokrazian eta era lasai eta eztiagoan bizitzeko amankomuneko baloreak garatzea posible eginez. Horretarako, hezkuntza esperientzia egokiak behar dira, pertsonen burujabetasun morala eta ezin menperatuzko duintasuna garatzeko oinarriaren gainean baketan eta elkartasunean elkarrekin bizitzeko jarrera eta gaitasunak garatu ahal izateko.

- Gure hezkuntza praktikak kritikoki berrikustea, ikasteko estilo eta hausnarketa maila ezberdinetarako haien egokitzapena baloratzeko, baita kontzeptuei, prozedurei eta jarrerei begira hezteko izan dezaketen gaitasuna ere. Jakintzei pisu egokia eman behar zaie. Guztiek jarrera eta gatasunak hartu behar dituzte gizarte kultur eta hizkuntzanitzean ondo eta behar bezala bizi izan ahal izateko.

- Talde gutxiengodunetako ikasleen integrazio sozio-afektiboa bereziki begiratzea, autokontzeptu pertsonala eta kulturala garatzearen gainean arreta jarriz. Izan ere, horrek segurtasuna ekarriko die eta guztiek parte hartzen ahal duten gizarte anitzetarikoaren barruan garatu eta ikastera bultzatuko ditu.

Eskolak ez du haien hezkuntza erantzuna berak lan egiten duen gizartearen pentsamenduak,

idealak eta proposamenak kontuan hartu gabe eraiki behar. Horregatik, curriculum osagaiak zehazterakoan, Kulturarteko hezkuntzarako oinarriak eta "muga"k dituzten Europa eta mundu alkantzuko testuen erreferentzia ez galtzea komeni da.

- Giza Baliabideen Aierazpen Unibertsala (1948).
- Erromako Itunbena (1957).
- Europako Gizarte Gutuna (1957).
- Ekonomi, gizarte eta kultur eskubideen gaineko Nazioarteko Ituna (1967).
- Kultur eskubideak giza eskubide bezala adieraztea (UNESCO 70).
- Helsinkiko akta (1975).
- Langile Migratzailearen Estatutuaren gaineko Europako Konbentzioa (1977).
- Langile migratzaileen eta familien babesari buruzko nazioarteko konbentzioa (NBE 1990).
- Inmigrazioari buruzko Legeak.

Era berean, Espainiako hezkuntza legeriaren markoan bereziki honakook hartu beharko ditugu kontuan:
- Espainiako Konstituzioa.
- Hezkuntzarako Eskubideari buruzko Lege Organikoa (HELO, 1985).
- Hezkuntza Sistemari Antolamendu Orokorrari buruzko Legea (HSAOL, 1990).
- Hezkuntza Zentroen Partaidetza, Ebaluazio eta Gobernuari buruzko Lege Organikoa (HZ-PEGLO, 1995).
- Hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzeko ekintzak antolatzeari buruzko otsailaren 28ko 299/1996 Errege Dekretua (1996ko martxoaren 12ko EAO).

**2. Ikasleok eskola sistemaratzeko neurriak.**

2.1. FAMILIAREKIN

Familia etorkinek eskolaz duten ikuspegia hainbat gauzaren araberakoak dira, oso. Gauza horiek honakook dira: haien kultur jatorria, nolakoa den eskola jatorri-herrian eta eskola baloratzeko famili tradizioa. Famili guneek gure Hezkuntza Sistemari buruzko informazioa eskatzen dute: dagoen eskaintza, etapak, ikastetxeen ibilera, ikasketa planak, metodologia, sustapena.

*Ikastetxearen bizitza osatzen duten alderdirik oinarrizkoenak biltzen dituzten idatzizko agiriak prestatuta eduki eta ematea:*
- Eskola egutegia eta orduak.
- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren funtsezko alderdiak.
- Elkarbizitzari begirako araudia.
- Ikastetxeak ezarririko "harrera" prozesuaren ezaugarriei buruzko informazioa. (Informazio hori berandu sartu diren ikasleen gurasoekiko jarduketa zehatzen markoan eman liteke):
  - ♦ Hasieran ebaluatzeko aldia (eremuak, denbora, hori burutzeaz arduratzen diren pertsonak...).
  - ♦ Gelarekiko atxikipena (irizpideak).
  - ♦ Tutorea; tutorearen eginkizuna.
  - ♦ Laguntza eta gela motak (harrera gela, gela arrunta, laguntzak eta indargarriak).
  - ♦ Lehen Hezkuntzako 1. Ziklotik Bigarren Hezkuntzako Lehen Ziklorainoko Zikloa eta DBHko 3. eta 4. mailak ebaluatzeko irizpideak.
  - ♦ Dauden diru-laguntza motak eta beraiek atzitzeko prozedurak.

*Dagokien protokoloaren bitartez noberaren datu egokiak eta matrikulatzen diren ikasleen*

*eskola historiari buruzko informazio zabal eta osoena bilduko dira.*

Pertsona bitartekoak izan behar dira, zonan jarduten duten Gobernuz kanpoko Erakundeak edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eskolaren eskuetan jartzen ahal direnak, zertarako-eta familiekiko komunikazioa erraztu eta, edozein kasutan, beharrezko agiriak lortzeko:
- Eskolatze liburua edo, berorren ezean, famili buruaren zinpeko aitorpena, aurretiko eskolatzea justifikatzekoa.
- Txerto-txartela.
- Eskolan eginiko aurreko lanak. (Erakusgarriren bat. Garrantzitsua da agiriok eskatzen joatea, ekarriz joan daitezen).
- Haiek eskolatuta egon diren ikastetxeen txostenak, posible izanez gero.

*Aipaturiko agiriez gain, familia dagoen eta ikaslea eskolatzea baldintzapetuko duten bizi baldintzaren alderdi garrantzitsuak ezagutu nahi dira.*

Kasu askotan, zaila izanen da familiarekin komunikatzea eta ikaslearen jarraipena burutzea, biztanle etorkinen hizkuntz zailtasunengatik eta baldintza oso sarritan gogorrengatik. Baldintza horiek gutxiagotasun egoeran jartzen dituzte eta bitarteko oztopatzaileak izaten dira haien eskolarekiko harremanetan. Horregatik, beharrezkoa da *kultur bitarteko*engan bermatzea, "itzultzaile lanak egin dezaten bakarrik ez, baita "beste"aren gaineko bi norabideko ezagupenerako gakoak izan daitezen ere.

Elkarrizketa pertsonalen bitartez, komenigarria izanen da honako informazioa lortzea:
- Gurasoen edo famili buruaren ikasketa maila.
- Ikaslea eskolatzeko eragin berezia duten famili baldintzak: famili unitatea, berori osatzen duten kideak, bizi-araubidea, familiak bere seme edo alaba eskolatzeari buruz dituen igurikapenak, ikasleari bere familiaren barruan eman zaizkion erantzukizunak, helduek famili markoan ematen ahal dioten arreta.
- Gurasoen jarrerak, haien seme-alabak kultura berrira sartzearen aurrekoak, eta igurikapenak, bai positiboari bai negatiboari begirakoak.
- Familiak bere seme-alaben heziketa intelektual eta moralerako oso garrantzitsutzat hartzen dituen baloreak eta bertze kultur datu batzuk, eskolan hezteko prozesuan kontuan hartu behar direnak.
- Familiaren migrazio "proiektua" (aldi baterako geratzea, familia berriro biltzeko aurreikuspena), ikaslearen orientazio prozesuan kontuan hartu behar den datu garrantzitsua dena.
- Ikastetxearekin harremanak izateko gurasoen edo tutoreen ordu baliakizunak; koordinatzeko era: telefonoak edo familiarekin harremanetan jartzeko beste formula batzuk.

*Berandu sartzen diren ikasleen familiekin lan plan zehatza ezartzea (eskolara Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan edo geroago sartzen badira).*

Ikasleen banako jarrapena egiteko elkarrizketa pertsonalez gain, jarduketa eremu bat zehaztu behar da, norabide biko informazio trukea egon dadin eta eskolak zonan jarduten duten beste erakunde batzuekin, Osasunarekin, Gizarte Zerbitzuekin eta gizarteak bazter ditzan arriskutan dauden pertsonen alde lan egiten duten erakundeekin lankidetzan jarduten ahal izan dezan.

Eskolak burutuko lituzkeen lan bileretan honakoa egin nahi izanen litzateke:
- Familiei ikastetxearen ibileraren berri jakinarazi.
- Hezkuntza Sistema behar bezala ezagutarazi.
- Toki Korporazioek edo Gurasoen Elkarteek burutzen dituzten astialdiko jarduerak edo bestelako jarduketak jakinarazi, baita erkidegoari zerbitzuak egiten dizkioten erakundeek sustaturiko jarduketak ere.

Komenigarria da eskolan amen gainean arreta berezia jartzea, harrerako hizkuntzan komunikatzeko zailtasunik handienak dituztenen gainean bereziki. Izan ere, haietariko batzuek ikasteko aukera gutxiago dute; beste batzuek, aurretiko alfabetatze maila txikiagoa. Informazio faltak beren familiako kideei begira gutxiagotasun egoeran jartzen dituzte, eta nahiko argi ikus daiteke ezen funtsezkoak direla famili taldea harrera gizarteratzeko.

Amengana hurbildurik eta haiekin burutzen ahal diren jarduketa zehatzen bitartez, elkarrekiko komunikazioa erraz daiteke, eta famili taldea hezkuntza erkidegoan eta gizarte marko zabalenean integratzea. Era berean, horrela, familiaren eta eskolaren arteko lotura sendotzen ahal da seme-alabak hezteko prozesuari dagokionean.

## 2.2. IKASLEEKIN

Oinarrizko irizpide bezala, ikasleak ikasmaila bati eratxikiko zaizkio, adin kronologikoa eta beraien eskola ezagupenak kontuan harturik, beste ikaskideekiko maitasunezko integrazio hobea gertatzen ahal izateko.

Kontuan hartu behar da ezen komenigarria dela Lehen Hezkuntzako bosgarrenera edo seigarrenera eskola atzerapen handiekin eransten diren ikasleak etapa horretan bertze urte batez egotea. Bigarren Hezkuntzan komenigarria da haiek beraien adinerako ezarritakoaren azpitiko maila batean jartzea.

Oinarrizko irizpide horretatik abiatuta:

*Ikastetxe bakoitzean erabaki behar da zeini dagokion erabakia hartzea* (Zikloko irakastaldeak; orientatzaileak + zikloko koordinatzailea + ikasketa burutza; orientatzailea + zikloko irakastaldea...).

*Gelari atxikitzeko oinarrizko irizpide batzuk finkatzea komeni da,* aniztasunarekiko arretarako Ikastetxearen planteamenduak kontuan harturik. Ikus ditzagun irizpide posible batzuk:

- Hala badagokio, *harrera hizkuntzaren tratamendu trinkoa* burutuko den *aldiak eta guneak* prestatzea. Puntu hori lehentasunezkoa eta funtsezkoa da atzerriko hizkuntzaren ikasleekin.

- Herri ezberdinetako ikasleak gela berera biltzea saihestea.

- Urtean zehar harrerarik oneneko ikasmailetara heltzen diren eta ikastetxeak aurretik finkatutako beste ezaugarri batzuei erantzuten dieten ikasleak sartzea: lanerako era batzuetan ohituago dauden ikasleak, hala nola, talde kooperatiboak, egokitzaileagoak izan daitezkeen gelaren kudeaketarako erei buruz gehiago dakiten irakasleak, bizkortzeko taldeak, "harrera gela/talde malgua"...

- Ikaslea errreferentziazko "figura" jakin batzuei lotzea, tutoreari edo tutorekideei, bere zikloko irakasleei eta abarri; eta hasierako ebaluaketari eta hari prestatzen zaion lan planari buruzko jarduketen jarraipen arduratsua bermatzea.

- Ikasleari ahalik eta baldintza hoberenetan aurrera egin ahal izateko lortu behar dituen oinarrizko ikasketak eta bere zikloaren hezkuntza helburuak jakinaraztea, ahal den neurrian, bere adinaren arabera. Bereziki garrantzitsua da, bere egokitzapen balio handiarengatik, lan azturak eta gizarte trebetasunak garatzea, eta elkarbizitzarakoak.

- Ikasleari ebaluaketa ikasteko laguntza garrantzitsutzat joaraztea. Bertan ahalik eta gehien parte harrarazi behar zaio eta "bere ikuspuntu"tik arreta bereziz jarraitu behar dion alderdi zehatzen bat iradokitzeko aukera eman: bere komunikazio gaitasuna, oinarrizko tresna trebetasunak, lan egiteko bere burujabetasuna, bere gizarterapena, bere motibazioa eta ikasteko gogoa, bera pozik egotea edo ez, bere zailtasunik handienak... Bere portaerak autorregulatzen ikasi behar du eta ebaluaketa eta tutorearen ekintza baliozko laguntzatzat hartu behar du.

- Garrantzitsua da neskatoei eta neska nerabeei arreta zehatzagoa ahalbidetzea. Izan ere, batzuetan harrera gizartean ugaritzen ahal dira sexu emeko pertsonak baztertzeko ereduak, haien jatorrizko kulturan ohikoak direnak. Ildo horretatik, haiek ikastetxeratzeko beharrezko arreta jarri behar izanen da, eskola goiz utz ez dezaten. Haiei lanbide orientazioa eman beharko zaie eta astialdiko jardueretan parte hartzera bultzatu beharko dira. Era berean, problematika hori familiarekin eta, beharbada bereziki, amekin aztertu beharko da. Izan ere, amekin lan zehatza gara daiteke, aurretik esan den bezala.

## 2.3. HEZKUNTZA ZENTROAN

Harrerak beroa izan behar du eta beharrezkoa da erakundekotutako arreta "plana" egotea, zentro bakoitzak Aniztasunarekiko Arretarako eginiko Planaren markoan. Ikasle berria bere gelara sartzen duen irakasleak ez du bakarrik parte hartu behar. Harrera ikastetxearen edo irakasle guztien erantzukizuna da. Harrera Plana Pedagogi Koordinazioko Batzordearen edo koordinazio organoen eskumenekoa da.

- "Harrera plan"ean kontuan hartu behar dira, lehenik, atzerriko hizkuntzako ikasleen komunikazio beharrizanak. Haiei beren ikaskideekiko elkarreraginik onena erraztu behar zaie. Lankidetza bultzatu behar da eta *hizkuntzaren tratamendu trinkoa bermatu.*

  Ikastetxeak aurreikusita eduki behar du nolako arreta jarriko duen hizkuntza ikastearen gainean. Gerta daiteke, esate baterako, oinarrizko komunikazio trebetasunak era trinkoan landuko diren "harrera gela"bat antolaturik edukitzea eta horrek asteko 15 orduak ez gainditzea komenigarria izatea. Nolanahi ere den, harrera hizkuntza ikasten diharduten ikasleek curriculumaren beste arlo batzuetan kontrolaturik parte hartuko dute, honako arloak lehenetsiko direlarik: Heziketa Fisikoa, Musika, Heziketa Plastikoa, Teknologia eta Atzerriko Hizkuntza.

- Ikasle heldu berriek beste arazorik agertuz gero (esate baterako, beren curriculum gaitasuneko atzerapen esanguratsua), era berean, tresna arloetan eta hezkuntza konpentsaziokoetan curriculuma egokitzeko neurriak hartuko dira. Beti ezarri nahi izanen da curriculum arrunta ahalik eta era normalizatuenean atzitzea ahalbidetzen duen gaitasun mota bat. Horretarako, ikastetxeak kudeatzen ahal dituen antolakuntza neurriak baliatuko dira.

- Kontuan hartu behar da ezen ikasleok jasotzen duten harrera motak oso baldintzatuko duela beraien ikastaldiko aurrerapena. Zenbat eta orientazio eta laguntza handiagoa ematen zaien, zenbat eta beraien ingurunerako egokitzapenaren eta beraien zailtasun pertsonalen jarraipen handiagoa egiten den, orduan eta hobeagoa izanen da egokitze prozesua. Hori ona izanen da guztientzat.

  Ikasle horiei orientazioa eman behar zaie. Izan ere, "gu eta guri ulertzeko" gakoak eta esanahiak eman behar zaie, eskola esperientziei esanahi eta zentzu zuzena ematen dietenak, "mundua ikusteko" beraien moduaren eta gurearen arteko eta haien eskola esperientziaren eta berriaren arteko loturak ezartzen dituztenak. Bistan denez, hori guztia adinaren arabe-

rakoa da. Ildo horretatik, ezinbestekoa da familiarekin arauzko harremanak izatea. Era berean, esan beharko dugu ezen komenigarria dela Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak izatea, harremanok errazteko eta komunikaziorik on eta osoena gertatzeko.

- Hezkuntza zentroek orok beren testuingurua arduraz aztertu behar dute. Bertan sartu behar da haiek ainguraturik dauden erkidegoa, eta, zehazki, hezkuntza erkidegoa bera. Irakasleen eta gurasoen jarrerak ezagutu behar dira, kultur ezberdintasun zehatzak aldean eraman behar izaten dituzten errealitate kulturanitzaren, bazterketaren eta pobreziaren aurrekoak. Ildo horretatik, bereziki garrantzitsua da aurreiritzi zehatz batzuei buruz hausnar egitea. Esate baterako, maiz pentsatzen da ezen pertsona "ezberdin"ak ikasteko, etekinetarako eta elkarrekin bizitzeko kalte posibleen arduradunak direla.

Ziur egon behar dugu pertsona guztiei irakatsi behar eta ahal zaiela eta ikasteko eskubidea dutela, behar duten laguntza mota kontuan hartu behar delarik. Eskolan, irakasleak prestatzeko moduan eta gure hezkuntza helburuak lortzeko antolakuntza formularik komenigarrienetan egin behar diren aldaketei buruz pentsatu beharko dugu. Horren ondorioz, hartzen ahal diren eta eskola kulturanitzean ondoen integratzea errazten duten konpromisoei buruzko erabakiak hartu beharko dira.

- Zikloko Taldeetan eta Departamentu Didaktikoetan mahaigaineratu beharko da curriculumaren "kulturarteko irakurketa" egin beharra. Egia esan, hori ez da ikasle etorkinak dauden tokietan bakarrik egin behar, baita gela guztietan ere. Alabaina, derrigorrezkoa da haiek dauden geletan egitea. Izan ere, ikasle guztientzat garrantzitsua da ikuspuntu kritikoa, haztatua eta jakintza eta jarduketa era ezberdinentzat irekia hartzea. Era horiek direla bide, kultura ezberdinak sartzen dira, gure gizarte plural eta kulturanitzen gizarte eta eskola ibilerak oinarri izan behar dituen oinarrizko baloreak eta, zentzu zabalean, giza garapenik eta akademi aurrerapenik sakonena ahalbidetzen duten jakintzak.

- Zikloko taldeek eta Departamentu Didaktikoek metodologiari buruz hausnar egin beharko dute, metodologia irakaskuntza egokitzaileagoa egiteko lagungarria izan dadin. Kontuan hartu behar da ezen ikasle etorkinek, batzuek gure hizkuntza ez dakiten arren, baliabide ezagutzezkoak eta estrategikoak dituztela, bertze hizkuntza eta kultura baten bitartez sortu direnak. Baliabide horiek ezagutu behar ditugu eta ibiltzen jarri behar ditugu.

Horretarako, gure tradizioan ohikoenak eta berezienak diren "eskola formatu"en alternatibak eskaintzen dituzten material didaktikoetara jo beharra dago, hala nola, testuliburua eta gelan lana antolatzeko formula konbentzionalak ez direnetara. Esate baterako, bideora jo beharko da, mapetara, irudi-liburuetara"multibase" blokeetara (zenbakietara), bi eta hiru dimentsioko irudi geometrikoetara..., eta ezagutzaren alderdirik formalenak hainbat bideren bitartez atzitzea ahalbidetzen duten hainbat laguntza materialetara. Hori guztia metodologi formula askorekin bateratzen ahal da, baina beti nagusitu behar du egokitasun didaktikoak, eta ikasleen ezaugarriekiko egokitzapenak.

Sakontasunez aztertzen ahal diren lanak proposatu beharko dira: ikuspegi globalagoak, testuingururatuak, kontzeptu pisu txikiagokoak, albisteei lotuak, arazo zehatzak, begiz eta eskuz behar bezala lagunduak eta, batez ere, irakaslearen "diskurtso" doituak gidatuak. Horrek, atzerriko hizkuntzako ikasleen kasuan, aurretik zehaztutako hiztegi batekin lan egitea eskatzen du. Horrekin batera, aurretik ikusten eta planifikatzen ahal dira norberak aztertu behar dituen lanak. Hala ere, lanotan beharrezkoa da iturri anitzetarikoagoak erabiltzea edo azterketa eremua zabaltzea, eta planteamendu formalagoak edo abstraktuagoak, edo kontzeptuz joriagoak, ikaslerik gaituenentzat, taldekako edo banakako lanaren bitartez, ikasle horien burujabetasunaren arabera.

- Ikastetxean hezkuntza praktika ebaluatu behar dela eta, berriro ikusi behar dira sustatzen diren hezkuntza esperientziaren era ezberdinak: proiektu-lana, talde lankideetako lana, banakako jarduera arautuak, irekiak, eta antolaera ezberdinak eta *norentzat eta zertarako balio duten baloratzea.*

Zorrotzak izan behar dugu eta proposatzen ditugun lan erak, irakasle bezala betetzen dugun funtzioa, eskaintzen dugun laguntza pedagogikoaren mota hezkuntza helburuak lortzeko eta eduki zehatz batzuk ikasi/irakasteko on eta eraginkorrak direnentz baloratu. Ez da gauza bera, esate baterako, problemen ebazpena aztertzea, egoera ulertzekotan eta ikasleek egoera horren aurrean agertzen dituzten zailtasunak azterturik eta arrazoibideari garrantzi berezia emanik, eta "zenbakizko kalkulua buru dezaten" problemak jartzea. Hori guztia ezagupen garrantzitsua da eta hori aztertzeko estrategia didaktiko ezberdinak behar dira, eta proposamen ezberdinak, ikasleak une oro funtsezkoa zer den eta beraren zailtasunak non dauden argitasunez jakin dezan.

- Beharrezkoa izanen da Ikastetxearen Erakundeko Plangintzako Tresna batzuk gogoratzea, honako gauzok ikusita nola dauden berrikusteko: aniztasunarekiko arreta, kulturaniztasuna, harrera hizkuntza integrazio hizkuntza eta eskola hizkuntza bezala tratatzea, denbora eta lana antolatzea, ikasleak taldeei atxikitzeko irizpideak, taldekapenak, metodologiak... Azken batez, *duguna nahi dugunarekin erkatu* beharko dugu, zer egiten ari garen jakin beharko dugularik.

- Ikastetxearen Aniztasunarekiko Arretarako Planaren barruan honako alderdiok agerrarazi behar ditugu, zehazki:
  - Harrera plana, harrera hizkuntzaren tratamendu trinkoari eta hezkuntza erantzunaren antolakuntzari buruzko zehaztapenekin: talde zehatzak, laguntzak, hezkuntza-indargarria.
  - Erabiltzen ahal diren material pedagogikoak.
  - Ebaluatzeko irizpideak.
  - Curriculum egokitzapenak, indargarrien lehenespena.
  - Tutorearen jarduketa eta lanbide orientazioa.
  - Familiekiko lan zehatza eta inguruko gizarte zerbitzuekiko koordinazioa.

Zuzendaritza Taldeari honakoa dagokio:

- Tutoreei ikastetxeak ikasleari buruz bildu duen informazioa behar besteko aurrerapenaz ematea.
- Zikloko edo ikasmailako ikasleei ikastetxearen harrerari buruzko orientazioen berri ematea, erarik zabalenean, eta ikastetxeak ikasle horiekin lan egiteko dituen materialen eta tresnen berri.
- Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren markoan ikasle etorkinek agertzen dituzten hezkuntza beharrizanei erantzuteko lan plana proposatzea, honakook aurreikusiz: lanak, denbora eta nork burutu eta koordinatu behar dituen.
- CCP delakoan lehen aipaturiko jarduketak dinamizatzea, eta berandu eransten diren ikasleen familiekin jarduteko plan zehatzak eta beste administrazio batzuekiko eta Toki Korporazioekiko erakunde harremanak.

Tutoreari eta tutorekideei, hala denean, honakoa dagokie:

- Ikasle "heldu berri"ak lanerako, elkarbizitzarako eta portatzeko arauak argi edukitzea, nahiz eta beroriek progresiboki sartuz joan.
- Ikasle hori sozioafektiboki ahalik eta azkarren kokatzea eta eskola erabiltzeko guneak ezagutzea. Horretarako, batzuetan izaten ahal izaten da ikasle berriari ikastetxearen barruko lehenengo "mugimendu"ak errazten dizkion ikaskide bat.

- Taldea edo klasea lehentasunezko integragunea izatea. Talde horrek hezkuntzari begira joritu behar du integrazio esperientziarekin eta bere kide berriaren ekarpenekin. Horrek, alderdi zehatz batzuetan, bizitza ulertzeko bertzelako modua, bertzelako bizipenak eta ekarri beharreko bertzelako baloreak ditu.
- Tamainu handiko ikastetxe zehatz batzuetan ezartzen ahal da "tutorekide"aren figura. Irakasle horrek ikaslea atxikitzen zaion taldearen tutoreari laguntzeko lana garatuko du, haren zailtasunei eta eskola azturei jarraituz eta, batez ere, heldu berri diren ikasle etorkinek sarritan behar izaten duten emozio laguntza emanez.

Zer egin dezakegun lehenengo egunetan:

- Ikasle berria familiako batekin badoa, zuzendaritzak eta tutoreak ongi etorria emanen diete eta beren burua aurkeztuko diete.
- Familiakoak gelara laguntzen ahal dio heltzean.
- Ikasle berria gaztelania ez den hizkuntzakoa bada eta hizkuntza hori dakien pertsonarik badago ikastetxean, komenigarria izanen da hizkuntza hori dakiten pertsonek "ongi etorri" horretan parte hartzea eta heldu berriari ikastetxeratzeko prozesuan laguntzea.

Gelako harrerarako arauak:

- Bertze hizkuntza bateko ikasleekin neurri zehatzak hartu beharko dira harrera hizkuntza era trinkoan ikas dezaten eskola ordu asko bermatzeko.
- Ikasleak parte hartzen ahal duela edo hari esanguratsua zaiola aurretik ikusten dugun hasierako jardueraren bat antolatzea komeni da: jolasak, eszenifikazioa, hormiduriak aurkeztea, begi euskarriko lanak eta abar.
- On izanen da lehenengo egunetan hasierako ebaluaketa errazten duten hainbat jarduera mahaigaineratzeko ahaleginak egitea, proposamenen bitartez. Proposamenon bitartez baloratu behar dira, bai atzerriko hizkuntzako bai gaztelaniako ikasleen kasuan, oinarrizko trebetasun akademikoak eta eskola azturak eta lan estrategiak. Proposamenak formatu ezberdinetan aurkeztean pentsatu behar da: eskemen bitartez adierazten ahal diren jakintzetan eragina duten aho zama urriko bisualetan, grafikoetan edo marrazkietan, bideoak, atlasak, irudi liburuak eta abar edo material manipulatibo edo grafikoak oinarri harturik, Matematikan gertatuko litzatekeen bezala. Nolanahi ere den, ikasleak bakarrik eta ikaskideen eta irakaslearen laguntzarekin zer egin dezakeen baloratzea komeni da.
- Haren maila akademikoari buruzko informazio nahikorik izaten bada, ikastetxeak aurreikusirik dituen *hasierako ebaluazioko proba*k proposatzen ahal zaizkio. Alabaina, jakin behar da ezen eskola formatuek eta erabilitako hiztegiak nahas ditzaketela gaztelaniazko ikasleak ere, edo balorazioetan joera garrantzitsuak sar ditzaketela.
- Lehenengo unetik, gaztelania ez den hizkuntzako ikasleekin komunikazioa bilatu behar da, eta, batez ere, haiengan mezu argi eta testuingurudunen bitartez zuzendu behar dugu:
  - ♦ Harrera prozesu horretan erantzukizun zehatzak dituen ikasle talde bat antolatzea.
  - ♦ Ikasleari eskolara laguntzea eta berori erakustea.
  - ♦ Bera jolasaldian parte hartzera bultzatzea. Eskola sarreretan eta irteeretan ez du bakarrik geratu behar...
  - ♦ Gela era ezberdinetara antolatzea, zer eta nola egiten ari den kontu, sarritan talde laguntzailetan oinarriturik, zeinetan laguntza izaten ahal baitu ikasle berriak.
  - ♦ Lehenengo egunetan behintzat, ikasmailan haren hizkuntza dakien herri bereko ikaslerik badago, hobe da berori talde horren zati izatea. Baina ez dugu ikasle horren itzultzaile funtzioa gehiegitan erabili behar.
- Garrantzitsua da ikasleak ikastetxearen hiri-ingurua lehenbailehen ezagutzea. Ikasle berriei Ikastetxetik irtetea, herriko edo hiriko kaleak eta plazak ezagutzea eta abartzea ahalbidetzen dien lan proposamenen bat mahaigaineratzea komeni da. Inguruarekiko kontaktu zuzendu eta ikastetxeak lagunduak segurtasuna eta lokabetasuna emanen die.

- Tutorearekin hasieran ebaluatzeko eta hezkuntzan laguntzeko sarritan elkarlanean aritzen den bertze irakasleren bati gelara sartzen uzteko une egokia da, berandu eskolaratzen diren ikasleen eskola lana planifikatzen bukatu arte bederen.

**3. Harrera prozesua. Laburpena.**

Garrantzitsua da ikasle heldu berrienganako berehalako arreta egokia erraztu eta irakasleen eta, are, ikasleen nahasmeneko erantzunak txikitzen dituen harrera "egitura" bat izatea.

Aurreko kontsiderazioetatik ondorioztatzen denez, Ikastetxeek *aniztasunarekiko arretarako beren plan*aren markoan, metaforikoki *harrera gela* deituko diegun curriculum eta antolakuntza neurri batzuk aurreikusirik eduki behar dituzte, material didaktikoak eta abar.

Batzuetan egoten ahalko da *harrera gela* bezala deitu ahal diogun gune fisiko bat, baina bertze batzuetan "antolakuntza egitura izanen da, ikastetxearen erabaki multzo bat, zeinetan honakook erabakiko baitira:
- Aldiak eta Hizkuntza era trinkoan irakasteko ardura hartuko duten irakasleak (gutxienez bi ordukoak izan beharko lukete egunean).
- Erabiltzen ahal ditugun material didaktikoak. Probatzen diren proposamenak biltzen dituen jarduera txosten bat sortuz joanen da. Ustiapen didaktikoko neurriekin eta azalpenekin osatuko dira haiek.
- Arloetako irakasleek ultura eta hizkuntza joritzeko prozesua osatzeko lagungarri dituzten arauak: landuz joanen diren hizkuntz egiturak, sartuz joanen den oinarrizko hiztegia, curriculum arlo ezberdinentzako bertze ohar metodologiko batzuk...
- Hasieran ebaluatzen eta banakako ezberdintasunei egokitutako programa bat prestatzen laguntzen duten protokoloak.
- Garatutako programak eta beraien ebaluaketa.
- Sartu berriak diren ikasleen jarraipena; horretarako, aurretik ikus daiteke tutorekide baten lankidetza, eta, horrelakoetan, aurretik ikusi behar da nork burutuko duen, nola eta noiz .
- Familiei eta ikasleei ikastetxeari, Hezkuntza Proiektuaren oinarrizko lerroei, elkarbizitzarako arautegiari eta, orokorrean, 2.1 puntuan aipatu ditugun alderdiei buruz emanen zaien informazio idatzia.
- Familiekin lankidetzan ikasleen jarraipen egokia burutzeko Gizarte Zerbitzuekin aurreikusiriko lankidetza.

Tutorearen eginkizuna

Ikaslea atxiki zaion erreferentziazko taldearen tutoreak harentzat haren erreferenterik argi eta onena. Horretarako, honakoa dagokio:
- Ikasmailaren barruan dinamizatzaile gisa jardun eta, orokorrean, haren eskolako laguntzailea izatea. Hala ere, kontuan hartu behar dugu ezen ikastetxe osoa dela ikasleei ematen zaien hezkuntza erantzunaren motaren arduraduna, eta ikasle etorkinak berandu sartzeak dakarren problematika ez dela "tutorearen arazoa", baizik eta erakundea osatzen duen giza taldearena, eta erakundearena, erakundea den aldetik.
- Ikasleari egiten dituen jarduera guztietan behar bezala kasu egiten zaiola eta irakasle bakoitzak beharrezko informazio guztia duela ziurtatzea.
- Ikaslea eskola egoera ezberdinetara egokitzeko prozesuaren berri jakinik egoten saiatzea. Eta hark arlo ezberdinetan egiten duen lana ezagutzeko interesa agertu behar du.
- Familiarekin harremanak izatea eta eskolan hezteko prozesua baldintzatzen duten famili inguruabarrak ezagutzea.
- Berezitasun batzuk kontuan hartu behar dira:
    - Atzerriko hizkuntzako ikasleekin haien "isilaldia" atzerriko hizkuntza ikasteko prozesuko berezko fase bezala ulertu beharko dugu.

- ♦ Ikasle heldu berriengan aldarte aldakorrak ikus ditzakegu, aldatzen diren lan erritmoak. Kariak jakiten saiatu behar dugu, baina, batez ere, itxurazko karirik aurkitzen ez dugunean, ikasleak herrimina senti dezakeela eta eskola egoera berriak ahalegin betitsu handi-handia egitea ekartzen diola onartzeko gai izan behar dugu.
- ♦ Ikasleak ulerturik eta lagundurik sentitu behar du. Egiteko eskatzen zaiona ulertu behar eta ulertu nahi du, taldearen zati sentitu nahi du eta, beraz, nonbait ahalik eta era normalizatuenean egin nahi duke lan. Era berean, bere ekarpenak eginez eskolan esku hartzeko aukera izan gura du eta bere ikaskideek bezalako erantzukizunak.

Harreraren antolakuntza eta ibilerari begira:

- Aplikatzen den edozein antolaera edo estrategiak ikaslea ikastetxearen eta eskolaren dinamikara egokitu eta sartzea erraztu behar du. Arau eta iradokizun batzuk eskainiko ditugu jarraian.
- Lehenik, horri begirako helburuak honakook izanen dira:
  - ♦ Harrera hizkuntza irakasteko aldi eta lan zehatzak bermatzea, hala denean, kontuan harturik ezen hizkuntza lehenik era trinkoan ikasi edo irakatsi behar dela "harrera gela edo egitura" batean, eta progresiboki, baina hasieratik, erreferentziazko talde edo eskolan.
  - ♦ Ikasle berriaren lan erritmoa erraztea, taldea oztopatu gabe baina.
  - ♦ Ikasle guztien arteko lankidetza erraztea.
- Berandu sartzen diren ikasleek klasean emaniko erantzukizunak ahalik eta arinen izan behar dituzte. On da epealdi batean bertze ikaskide batekin lan batzuk konpartitzea, ahal dela sexu bereko bertze ikaskide batekin.
- Klasearen antolakuntzan berriro pentsatu behar da, beharrezko izanez gero hura abegikorragoa izann dadin eta ikasketa errazteko. Ziurtatu behar da ezen inguruko ikaskideak abegikorrak direla eta haiei laguntzeko gertu daudela. Hasieran, batez ere, 8/9 bat urtetik gorako ikasleen kasuan, kontuan hartu beharko da sexu bereko eta sexu ezberdineko pertsonekin aritzeko ikasle heldu berrien harremanetako erraztasun handia edo txikia.
- Lehen Hezkuntzako ikasmailetan ikaskideen artean antolatzen ahal da ikasle berriari laguntzeko txandaketa.
- Gela kudeatzeko hainbat gune eta estrategia sartu behar dira, ikasle berriei eta orori parte hartzen laguntzen dieten eta ikasteko erantzukidetasun dinamika sortzen dutenak: txokoak, tailerrak, proiektuak, lankidetza.
- Oso garrantzitsua da ikasle berriei beroriek trebeak diren alderdietan aktibokiago parte harraraztea, beraiei segurtasuna emateko. Izan ere, esate baterako, ikasleari alderdietako bere gaitasuna erakusteko aukera eman behar zaio. Alderdi horiek honakook dira: hizkuntza bera menperatu eta jakitea, espresio plastikoa, musika, heziketa fisikoa edo harrera hizkuntza bitarteko garrantzitsua ez den beste edozein jakintza menperatzea.
- Oso egokia da ikasketak errazten dituen giro mota eranstea: errotuluak, gauzen izenen adierazleak, hormiduriak, laburpen-hormiduriak, eskemak, iduriak eta abar, aztertutako gaienak edo objektu eta egoera baliagarrienak.
- Ikasleari kasu egin behar zaio besteek ez bezalako lana egiten duenean. Ez da nahikoa berari lan bat proposatzea, jarduera hori gidatu eta hezteko ebaluatu ere egin behar baita.
- Ikaslea prestatu behar da, aurrekoak kontatu behar zaizkiolarik, arrotz suertatzen ahal zaizkion eskola egoeren eta jardueren aurretik: eskolaren festak, medikuaren azterketak, kultur irteerak eta abar.
- Berehala ekin behar zaio eskolan klaseko taldearekin edo bertze ikasle batzuekin gertatzen diren gaitzespen edo gutxiespen egoerak ezabatzeari. Egoera horiek pertsona inplikatuekin aztertu behar dira.
- Edozein kasutan, hainbat alderdiri buruz biltzen ahal den informazio guztia jakinarazi behar zaio eskolaren zuzendaritzari. Alderdi horiek honakook dira: txangoak edo materiala ordaintzeko familiaren zailtasunak, Ikastetxeko gaitzespen egoerak, famili egoera gatazkatsuak edo ikasleak eskolatzea larriki aldatzen ahal duten bertze inguruabar batzuk.

***Nafarroako Eskola Kontseiluak ontzat hartu ditu ikasle etorkinak hartzeko sistemako aurrerapenak eta, zehazki, haiek eskolatzeko arau eta orientazio zehatzak egitea.***

***Hala ere, gure ustez, ikasleak behar bezala eskola eremuratzeko, gelako etni gutxiengoetako edo kulturari begira baztertuta dauden gizarte taldeetako familietako ikasle ehunekoa (gehienekoa) ezarri behar da.***

***Bertze alde batetik, bertze erakunde batzuei hezkuntza administrazioarekin koordinatutako ekintzan parte harrarazi behar zaie integrazioa eskolatik harago joan dadin.***

***Hezkuntza eta Kultura Departamentuari Nafarroako Parlamentuak Gizarte Bazterketaren aurka onetsiriko Plana ezartzeko eskatu nahi zaio, baita kulturarteko eskolari buruz Autonomietako eta Estatuko Eskola Kontseiluen XI. Topaketetan proposaturiko ekimenak aztertzeko eta praktikan jartzeko ere (Nafarroa, 2000).***

## 2.11. Hezkuntza sistemaren ebaluazio eta kalitatea. Ikasleen promozioa.

### *a) DBHko 4.a zehazki ebaluatzea.*

Ebaluazioa kalitatea hobetzeko prozesuen funtsezko zatia eta baldintza da. "Ebaluazioaren kultura" deitu izan diogun horretan sakontzea da Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bere buruari legealdi honen hasieran finkatu zion helburuetariko bat. Perspektiba horretatik, Departamentuak Kalitate eta Ebaluazioko Nazio Erakundearekin (INCErekin) lan egin izan du: haren proiektuetan parte hartu du eta nazio azterketen lagina Foru Komunitatean zabaldu du gure hezkuntza sistemari buruzko informazio handi eta hobeagoa lortzeko.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 4. MAILAREN EBALUAZIOaren laburpen bat bildu dugu (INCE/NAFARROAKO GOBERNUA, 2000).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) 4. mailako ikasleak oinarri harturik ebaluatu da. Horrela, Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiei ematen ahal izanen zaizkie etekin datuak.

Orain aurkezten dugun ebaluazioaren emaitzek INCEren aurreko txostenen bideari jarraitzen diote, Nafarroa nazioko batezbestekoarekin erkatuta. Kontuan hartu behar da ezen Nafarroako hezkuntza sistemak gainerako Erkidegoen aldean berezitasun batzuk agertzen dituela. Beraien artean nabarmendu behar dugu DBHko 4. mailako hezkuntza ibilbideen antolakuntza, datuak erkatzeko eragin handia baitu. 3.a amaitu eta gero, ikasleek, ikastetxe bakoitzaren eskaintzaren arabera, hiru aukera dituzte hautatzeko: 1. aukera izaera zientifiko-teknologikokoa da eta 2. aukerak izaera humanistagoa du, tradizioko zentzuan. 3. aukera ikasleek bigarren hezkuntzan graduatuaren titulua lortzen ahal izan dezaten etaparen oinarrizko helburuak zehazki lantzen diren irakaskuntza modalitatea da.

11 zenbakiko koadroa
**Nafarroako DBHko 4. mailaren**

| Nafarroa. DBHko 4. mailako aukeretako ikasle ehunekoa | |
|---|---|
| 1. aukera | 53,6 |
| 2. aukera | 29,8 |
| 3. aukera | 16,5 |

| Nafarroako promozioaren emaitzak eta nazioko batezbestekoa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **Lehen Hezkuntza** | **DBHko 1. zikloa** | **DBHko 3. ikasmaila** | **DBHko 4. ikasmaila** |
| **NAFARROA** | 90,7 | 90 | 84,5 | 85 |
| **NAZIOKOA** | 85,5 | 82 | 69,5 | 69,5 |

Mailatik igotzen diren ikasleen ehunekoen diferentziok bertze adierazkari batzuekin islaturik daude gero. Izan ere, "3. aukera" deitzen diogun hezkuntza ibilbidea dela eta, Foru Komunitatean Espainian osoan baino 100eko 15,5 ikasle gehiagok lortzen dute bigarren hezkuntzan graduatuaren titulua. Horrek eragina du bere derrigorrezko eskolatze-aldia amaituta titulua lortu ez duen eta Gizarte Bermerako edo Lanbidean Hasteko Programaren bat egiten duen ikasle kopuruan. Programak izen hori du Nafarroan. Hain zuzen ere, horrelako programetan gainerakoerkidegoetan (batez beste) baino 100eko 15 ikasle gutxiago dugu. Azken finean, hezkuntza ibilbideen antolakuntzari esker, Nafarroan Bigarren Hezkuntzan graduatuaren titu-

lua duten 100eko 15 edo 16 ikasle gehiago daude, maila ertaineko heziketa zikloetara sartzen ahal diren eta Lanbide Heziketaren espezialitateetakoren batean teknikari gisa lan egiten edo goi ikasketak burutzen ahal dituztenak.

DATUEN BALORAZIOA.

| Asmatze ehunekotan adierazitako arloen emaitzak (Nafarroako datuak, hezkuntza ibilbideen eta batezbestekoaren arabera). | | | |
|---|---|---|---|
| | **IKASLE GUZTIAK** | **1-2 AUKERETAKO IKASLEAK** | **NAZIOKO BATEZ BESTEKOA** |
| Ahozko eta idatzizko ulermena | 69 | 71 | 69 |
| Hizkuntza ezagugai bezala | 58 | 61 | 59 |
| Literatura | 57 | 59 | 60 |
| Idatzizko adierazpena | 59 | 61 | 58 |
| Matematikak | 45 | 46 | 40 |
| Gizarte Zientziak | 60 | 61 | 60 |
| Izadiko Zientziak | 52 | 56 | 54 |

Oro har, esan dezakegu ezen Nafarroako emaitzak nazioko laginarenen oso antzekoak direla. Nafarroako azterketaren eta nazioko laginaren arteko ezberdintasunik nabarmenena Matematikan gertatzen da, Nafarroako ikastetxeen aldeko sei punturekin.

**Emaitzak ikastetxeen titulartasunaren arabera.**

Orokorrean, esan daiteke ezen titulartasun bateko eta bertzeko ikastetxeen emaitzak antzekoak direla. Arlorik arloko emaitzen bitartez ezberdintasun batzuk ikusten ahal ditugu. Gaztelania eta Literatura arloan Nafarroako ikastetxe publikoen eta pribatuen arteko erkaketan berdinketa ikus dezakegu Idatzizko adierazpenean, eta bost eta sei ehuneko-puntuko aldea Literaturan eta Hizkuntza ezagugai bezala delakoan eta hiru puntukoa Ahozko eta idatzizko ulermenean, itunpeko ikastetxeen alde.

Nafarroako ikastetxe publikoak nazioko laginekoekin erkatzen baditugu, Nafarroakoen aldeko aldeak ikusten ahal ditugu, puntu batekoa Hizkuntza ezagugai bezala delakoan eta bostekoa Idatzizko adierazpenean. Literaturan, ordea, Nafarroako ikastetxe publikoak naziokoak baino hiru puntu beherago daude. Ikastetxe pribatuen arteko erkaketari dagokionez, Nafarroakoak naziokoak baino puntu bat edo bi gorago daude.

Matematikan Nafarroan ikastetxe batzuen eta bertze batzuen arteko aldea puntu batekoa da, soilik, pribatuen alde; eta nazioko laginean alde hori sei puntukoa da. Nafarroako ikastetxe publikoen eta naziokoen arteko aldea zazpi puntukoa da Nafarroakoen alde, eta, erkaketa titulartasun pribatuko ikastetxeen artean egiten badugu, aldea hiru puntukoa da Nafarroakoen alde. Nabarmentzekoa denez, Nafarroako ikastetxe publikoen emaitzak nazioko lagineko pribatuenekin erkatuz gero, aldea puntu batekoa da Nafarroako ikastetxe publikoen alde.

Gizarte Zientzien arloan aldea hiru puntukoa da pribatuen alde, Nafarroa barruan. Nafarroako ikastetxe publikoen eta nazioko laginekoen artean puntu bateko alde txikia dago Nafarroakoen alde. Nafarroako ikastetxe pribatuen eta naziokoen artean ez dago alderik.

Izadiko Zientzietan emaitzak Gizarte Zientzietakoen ia berdinak dira. Horrela, hiru ehuneko-puntuko aldea dago Nafarroako ikastetxe pribatuen alde. Berdintasuna erabatekoa da Nafarroako ikastetxe publikoen eta naziokoen artean. Naziokoen aldeko puntu bateko aldea egiazta daiteke titulartasun pribatuko ikastetxeen arteko erkaketan.

**Emaitzak hizkuntz ereduen arabera.**

Hizkuntz eredukako datuen arabera, ezberdintasun batzuk daude Gaztelania eta Literatura arloan. Ahozko eta idatzizko ulermenean ez dago alde handirik, G ereduaren (gaztelaniazko irakaskuntza) alde bi puntuko aldea baitago D ereduaren (euskarazko irakaskuntza) gainean. Alde bertsukoak dira Idatzizko Adierazpena eta Literatura. Hizkuntza ezagugai bezala delakoan aldea handitxoagoa da, lau puntukoa, G ereduaren alde. Alde hori nabarmenagoa da ikastetxeen titulartasuna bereizten badugu: itunpeko ikastetxeen artean alde bi puntukoa da; eta eredu bateko eta bertzeko publikoen artean, zazpi puntukoa. D ereduaren barruan ikastetxe publikoen eta itunpekoen arteko aldea hamabi puntukoa da pribatuen alde, eta G ereduan aldea zazpi puntukoa da pribatuen alde.

Euskal Hizkuntza eta Literatura arloan emaitzak Gaztelania eta Literatura arloan lorturikoen berdinak dira, kontuan hartu diren lau ebaluazio eremuen batezbesteko bat egiten badugu. Bi kasuetan batezbesteko hori %60koa da, asmatutakoei begira.

Ahozko eta idatzizko ulermenean sei puntuko aldea dago euskararen alde, eta Literaturan bost puntukoa. Hala ere, Hizkuntza ezagugai bezala delakoan emaitzak gaztelaniaren aldekoak dira bi puntutan. Alderik handiena Idatzizko adierazpenean dago, gaztelaniaren aldeko bederatzi puntuko aldea dagoelarik. DBHko 4.a derrigorrezko oinarrizko irakaskuntzaren amaiera dela kontuan harturik, hobe litzateke oreka handiagoa egotea.

| **Euskal Hizkuntza eta Literatura. Asmatze ehunekotan adieraziriko emaitzak** | |
|---|---|
| Ahozko eta idatzizko ulermena | 75 |
| Hizkuntza ezagugai bezala | 56 |
| Literatura | 62 |
| Idatzizko adierazpena | 50 |

Matematikan, aldiz, ez da alderik ikusten, bai ereduei bai ikastetxeen titulartasunari dagokienean.

Gizarte Zientzien arloan eredu bateko eta bertzeko ikastetxeen arteko aldea bost puntukoa da G ereduaren alde; baina, kasu horretan, D ereduaren barruan titulartasunaren araberako alderik ez da ikusten. G ereduko itunpeko ikastetxeen eta D eredukoen arteko aldea zazpi puntukoa da, eta publikoen arteko aldea hiru puntukoa dugu.

Izadiko Zientzietan eredu bateko eta bertzeko ikastetxeen arteko aldea bost puntukoa da G ereduaren alde. Ikastetxeen titulartasuna kontuan hartzen badugu, D ereduaren barruan itunpekoen aldeko lau puntuko aldea dago, itunpekoen artean G ereduaren aldeko lau puntuko aldea dago eta sare publikoan aldea sei puntukoa da.

**Azterketak dakartzan bertze datu batzuk.**

Etekin emaitzez gain, INCEren azterketak hezkuntza sistema eta ikastetxeak ebaluatzeko beste datu interesgarri batzuk ekarri ditu. Ikasleei eta ikasteari dagokienez, klaseko jarduerak,

arloak alde batera utzirik, funtsean, banakako lanean (%60) dautza, eta taldekako lanak edo elkarlanak eragin txikiagoa du. Baliabide didaktikoei dagokienez, nagusi dira testuliburuak eta irakasleak berak eginiko materialak, eta teknologia berriak eta laborategiak urriki erabiltzen dira.

Hausnar egiteko beste datu bat honakoa da: 100eko 43 familiak beren seme-alabentzat eskolaz kanpoko hizkuntz jarduerak kontratatzen dituzte; eta 100eko 37k, laguntzeko eskolak. 100eko 75 ikaslek ordenagailua dute; orokorrean, gutxi irakurtzen dute eta herenek diote ezeb klasera joatea urriki gustatzen zaiela edo ez zaiela batere gustatzen. 100eko 41k unibertsitate ikasketak egiteko itxaropena dute; eta 100eko 34k Lanbide Heziketa egin nahi dute.

Irakasleei dagokienez, beroriek beren irakasgaien edukietan prestatutzat dute beren burua, baina ez ikasleen aniztasunari arreta emateko edo gelan ikertzeko prestatutzat. Hain zuzen ere, aniztasunarekiko arretari dagokionez, 100eko 71 irakaslek uste dute ezen beharrezkoa dela ikasleei beren berezitasunen arabera kasu egin behar zaiela. 100eko 50 irakaslek baino gehiagok uste dute ezen ikasleentzat kaltegarria dela taldeak heterogeneoak izatea. 100eko 20k esan dute ezen familiekin arazoak dituztela. 100eko 31k adierazi dute ezen haiekiko beren harremanez pozik sentitzen direla.

Datuok ulertu eta interpretatzeko, kontuan hartu behar da gizarte eta hezkuntza testuingurua: familia-eskola.

Informazio hau **INCE**ren agiria hartu dugu: ***"Hezkuntza sistemaren diagnostiko orokorra: 5. Batzordea - Eskola eta familia"***.

"Batzordeak familiaren eta hezkuntza sistemaren arteko loturak eta harremanak ebaluatzen jardun du bereziki, eta bigarren faserako utzi du hezkuntza sistemarekiko bertze lotura eremu batzuen azterketa: komunikabideena eta lan munduarena. Ebaluazioa ezaugarri ezberdinak dituzten herrietako ikastetxe publiko eta pribatuetako gurasoentzako inkesta baten bitartez egin da. Guztira 18.000 bat inkesta eman dira. Beraietarik 11.481 jaso dira behar bezala erantzunik. Horrek horrelako aplikazioetako partaidetza indize handia dakar.

**Baliabideak**

- **Liburua:** 100eko 97 familiak laguntza edo kontsulta liburuak dituzte, eta 100eko 95,6k, irakurtzekoak. 100eko 33 etxetan famili liburutegiak 200na izenburu baino gehiago ditu.
- **Ordenagailua:** 100eko 49,1 etxetan dago tresna hori, eta gurasoek adierazi dute ezen bera eskola laguntzarako tresna bezala erabiltzen dutela eta ezinbestekotzat jotzen dutela.
- **Prentsa:** 100eko 80,1gurasok egunkariren bat irakurtzen dute eta 100eko 48,7k aldizkari espezializatuak erabiltzen dituzte.

Gurasoen ikasketen, ogibideen eta ekonomi mailaren eta seme-alabak hezteko tresna zuzkiduraren arteko zuzeneko lotura nabarmendu behar da.

Ikaste publiko/pribatuaren titulartasunak ezberdintasun esanguratsuak sartzen ditu baliabide modernoei begira, esate baterako, ordemagailuei begira; eta ez tradiziokoei begira, hala nola, liburuei begira.

100eko 68,6 ikaslek banakako logela dute. 100eko 27,4k bakarrik konpartitzen dute neba-arreba batekin. Orotarakoa %96 da. Datu horrek ikasteko halako erosotasun bat adierazten du.

**Eskolaz kanpokoak/osagarriak diren jarduerak**

Eskolaz kanpo gehienbat egiten den jarduera kirola da; gero, hizkuntzal eta informatika.

Gurasoen iritzitan, honakook dira ikastetxetik kanpoko beste jarduera batzuk: lagunekin irtetea eta hitz egitea, musika entzutea eta telebista ikustea. Kontzertuetara, museoetara, erakusketetara edo antzokira

joatea erakargarritasun urriko jarduera da.

Gurasoen iritziz, sexuen artean alde handia dago, eta nesken alde: neskek mutilek baino askoz denbora gehiago ematen dute irakurtzen (nesken kasuan %53 eta mutilenean %31; %22ko aldea dago).

Gazteek astean ia 7 ordu ematen dute aisian, eta 10 ikasten, eskola zentrotik kanpo. Hori egiten dute 100eko 75 neskak eta 100eko 60 mutilek.

**Familia seme-alaben hezkuntzaren aurrean**

Oro har, esan daiteke ezen iritzi baikorra eta ikusmolde zoriontsua dagoela; datu horiek irakurrita, halako zuhurtasun bat izan beharrean gaude.

- 100eko 70 gurasok uste dute eze beraien seme-alabak ongi doazela.
- 100eko 57 familiak uste dute ezen beraien seme-alabak ikasteko oso motibaturik daudela
- 100eko 76 aita eta eta 100eko 86 ama pozik daude beren seme-alabekin dituzten hezkuntza harremanekin.

15-20 urteko gazteei eginiko bertze azterketa batzuekin bat ez datorren balorazio baikor hori gorabehera, gazte horiek uste dute ezen gurasoekiko 100eko 50 gatazka baino gehiago ikasketek sortzen dituztela.

**Familia eta baloreak eratzea**

11.500 bat galdera-sorta bete dira; beraien bitartez, Espainiako familiek orokorrean hezkuntza lanean huts ez akatsik gabe jarduten dutelako iduria ematen dute beren buruaz. Gurasoen ustez, etxe barruan gehien sustatzen dituzten baloreak prestutasuna eta erantzukizuna dira; eta ikasketetako arrakasta eta erlijio zentzua dira urrikienik estimatuak.

Halaber, gurasoen aburutan, azken bi balore horiek dira eskolan urrikienik sustatzen direnak. Familiarentzat, erlijio zentzua eta egiazaletasuna dira komunikabideetan gutxien eragiten zaienak, eta naturarekiko errespetua eta askatasuna dira komunikabide horiek gehien garatzen dituztenak.

Bertze alde batetik, familiak ez daude batere pozik komunikabideekin.

Gurasoen ustetan, famili elkarbizitza ona da; eta berori eraikitzea eta familiako kideen artean elkarrizketa sustatzea, biziki ona.

Zeharkako hezkuntza neurrietatik, eskolari gehienbat eskatzen zaizkionak drogen arazoari buruzko informazioa eta prebentzioa dira; bigarrenik, osasunerako, bakerako eta abarretarako hezkuntza. Eskalaren erdian, ikasteko edo/eta lan egiteko azturak garatzea eta sustatzea ageri da; eta azkenik, erlijio hezkuntza. Horrela bada, datu horien arabera, halako sekularizazio bat ikus daiteke, erlijio heziketak sortzen duen interesa urria denez gero.

Familien iritziz, seme-alabak ez dira erasokorrak (%84) eta ez dira kontsumistak (%68). Era berean, 100eko 94k esan dute ezen norberaren zainketa eta higiene maila oso altua dela.

**Familia eta hezkuntza zentroa**

- Gurasoen ikastetxeko jardueretako partaidetza %12 ingurukoa da. 100eko 5ek esan dute ezen ez dakitela GIEak daudela, eta 100eko 35ek adierazi dute ezen ez dutela haietan parterik hartzen. 100eko 52k kuotak ordaindu bakarrik egiten dituzte eta 100eko 14 esan dute ezen aktiboki parte hartzen dutela. Horrela bada, esan behar da ezen GIEek erakunde presentzia dutela baina gurasoen elkarteotako partaidetza eta konpromisoa urria dela.
  Eskola Kontseiluari buruz, 100eko 58k esan dute ez dakitela nola dabilen hori, eta 100eko 40k ez dakite existitzen dela.
- 100eko 82k adierazi dute ezen ikastetxearekiko beraien harreman zuzeneko eta partaidetzazkoenak zuzeneko harreman pertsonalen bitartezkoak direla, tutorearekiko elkarrizketaren bitartezkoak alegia. Harreman horiek oso eraginkortzat harturik dituzte. 100eko 16 kasutan ba-

karrik dira harreman horiek telefono bidezkoak.

- Bertze alde batetik, 100eko 74k oso ontzat edo nahikotzat harturik dute hezkuntza zentroek emaniko informazioa; eta 100eko 26k, urritzat.
- 100eko 90ek uste dute ezen ez dutela gatazkarik izan irakasleekin edo eskolako bertze profesional batzuekin.
- 100eko 7k bakarrik nahi dituzte beren seme-alabak ikastetxez aldatu.

Labur bilduta, atal honetara bildutako datuak ikusita, baieztatzen ahal da ezen Espainiako familiek eskolan eta bertako profesionalengan sinesten dutela. Ez dute beraien seme-alabek instituzio horretan gaztazkarik izaterik nahi, baina haren kudeaketa bertzerena zaie, irakasleengan sinesten baitute eta eskumen hori haiei eskuordetzen diete."

***Nafarroako Eskola Kontseiluak dioenez, hobe da hezkuntza kalitatea hobetzeko bertze faktore batzuk ebaluatzea, etekinaz gain.***

| | Nafarroa (1. eta 2. aukerak) | Naziokoa | Nafarroa ( 1-3 aukerak) | Nafarroa (Hizkuntza eta Euskal Hizkuntza) |
|---|---|---|---|---|
| Matematikak | 46 | 40 | 45 | |
| Izadiko Zientziak | 56 | 54 | 52 | |
| Gizarte Zientziak | 61 | 60 | 60 | |
| Ahozko eta idatzizko ulermena | 71 | 69 | 69 | 75 |
| Hizkuntza ezagugai. | 61 | 59 | 58 | 56 |
| Literatura | 59 | 60 | 57 | 62 |
| Idatzizko adierazpena | 61 | 58 | 59 | 50 |



***b) Hezkuntza sistemako kalitatea.***

2000/2001 ikasturtean, Nafarroako hezkuntza zentroetan "kalitatearekin loturiko honako jarduketok burutu ziren:

* Mintegia: *"Hezkuntza zentroetan kalitatea kudeatzea: ezarpen plana".*
  Helburua: Aurreko ikasturteetan zuzendaritzako taldeek jasotako prestakuntzaren aplikazio praktikoan sakontzea.
  Iraupena: 60 ordu.
  Datak: 2000ko iraila - 2001eko maiatza.
  Lekua: Iruñeko CAP, gainerako CAPentzat irekia.

* Ikastaroa: *"Hezkuntza zentroen zuzendaritza".*
  Helburua: Hezkuntza zentroak zuzentzeko kreditatze prozesuan eskatutako prestakuntza zehatza ematea.
  Iraupena: 80 ordu.
  Datak: 2000ko urria - 2001eko apirila.
  Lekua: Iruñeko CAP, gainerako CAPentzat irekia.

* Ikastaroa: *"Zuzendaritzako taldeak eta kalitatea hezkuntza zentroetan".*
  Helburua: Kalitate-gaiak hezkuntza zentroetan sartu eta aplikatzea.
  Iraupena: 32 ordu.
  Datak: 2001eko otsaila - martxoa.
  Lekua: Iruñeko CAP, gainerako CAPentzat irekia.

2000//2001 ikasturtean zehar bi kalitatezko sare ibili dira herri arloan: 1. Sarea eta 2. Sarea. Ikastetxeak sare horietan banatzeko kontuan harturiko aldagaia aurreko gaiak ikastetxeetan aplikatzeko maila izan da. Horrela, 1. Sarea 2. Sarea baino prozesu aurreratuxeagoan dago.

Gogoan izan behar denez, ikastetxe guztiak ez ziren batera hasi; beraietarikoren bat hilabete batzuk geroago hasi zen eta horrek atzerapen txikia ekarri zuen.

<u>1. Sarea</u> osatzen duten ikastetxeak honakook dira:
- Toki-Ona BHI.
- Plaza de la Cruz BHI.
- Navarro Villoslada BHI.
- Iturrama BHI.
- Donapea BHI.
- Biurdana BHI.
- Basoko BHI.

<u>2. Sarea</u> osatzen duten ikastetxeak honakook dira:
- Zizur BHI.
- Sierra Leyre BHI.
- Ibaialde BHI.
- E.T.I. BHI.
- Benjamín de Tudela BHI.
- Barañain BHI.
- Askatasuna BHI.

Ikastetxeok, programa honetan sartuta dauden irakasleen kopuruaren arabera, gai ezberdinetan lan egiten duten hobekuntza-taldeak dituzte, ikas-irakasteko prozesuan zerikusia dutenak.

Ikastetxeon zuzendariak, hobekuntza-taldeon arduradunekin batera, hilero joan dira 4 ordu iraun duen lan bilera batera. Bilerak Enrique Inchausti jaunak (1. Sarearen kasuan) eta José Mª Elola jaunak (2. Sarearen kasuan) zuzenduta egon dira.

Programa honen aurrekontua 2.500.000 pezetakoa da, gutxi gorabehera.

***Nafarroako Eskola Kontseiluak ontzat hartu ditu ekimen horiek, eta Hezkuntza Administrazioa animatu nahi du irakaskuntzaren kalitatea hobetzen duten eta HSAOL Legearen IV. Titulura bildurik dauden faktoreak bultzatzeko bide honetan jarraitzera.***

### c) Nafarroako ikasleen igoera 1999-2000 ikasturtean.

12 zenbakiko koadroa
**Nafarroako ikasleen igoerari buruzko datuak 1999-2000 ikasturtean**

#### c.1. Lehen Hezkuntza.

| Lehen Hezkuntzako emaitza globalak, 1999-2000 ikasturtean | | | |
|---|---|---|---|
| **Lehen Hezkuntzako Zikloa** | **Ikasleak orotara** | **Igo dira** | **Igoera %** |
| **1. Zikloa** | 4186 | 4101 | %98 |
| **2. Zikloa** | 4080 | 3942 | %97 |
| **3. Zikloa** | 4466 | 4293 | %96 |

| Lehen Hezkuntzako emaitza bereiziak, 1999-2000 ikasturtean | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1. Zikloa** | | | **2. Zikloa** | | | **3. Zikloa** | | |
| | **Ikasl.** | **Igo** | **%** | **Ikasl.** | **Igo** | **%** | **Ikasl.** | **Igo** | **%** |
| **Publikoa- Gaztelania** | 2132 | 2075 | 97 | 2116 | 2050 | 97 | 2245 | 2150 | 96 |
| **Publikoa- Euskara** | 717 | 710 | 99 | 629 | 616 | 98 | 590 | 579 | 98 |
| **Pribatua- Gaztelania** | 1023 | 1006 | 98 | 987 | 932 | 94 | 1296 | 1235 | 95 |
| **Pribatua- Euskara** | 314 | 310 | 99 | 348 | 344 | 99 | 335 | 329 | 98 |

#### c.2.) Bigarren Hezkuntza.

| DBHKO IKASLEEN IGOERA, 1999-2000 ikasturtean IKASTETXE PUBLIKOAK - BIGARREN IKASMAILA -GAZTELANIA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO AR-LOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| BHI | 1069 | 234 | 179 | 361 | 1843 | %86 | 294 | %14 |
| DBHI | 194 | 38 | 26 | 62 | 320 | %90 | 37 | %10 |
| IPI.P. | 33 | 6 | 2 | 2 | 43 | %74 | 15 | %26 |
| OROTARA | 1296 | 278 | 207 | 425 | 2206 | %86 | 346 | %14 |
| OROTARAKOAREN % | %51 | %11 | %8 | %16 | %86 | | | |

| IKASTETXE PUBLIKOAK - BIGARREN IKASMAILA - EUSKARA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO AR-LOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| BHI | 299 | 47 | 39 | 55 | 440 | %86 | 70 | %14 |
| DBHI | 63 | 11 | 12 | 5 | 91 | %95 | 5 | %5 |
| IPI.P. | 18 | 5 | 10 | 2 | 35 | %88 | 5 | %13 |
| OROTARA | 380 | 63 | 61 | 62 | 566 | %88 | 80 | %12 |
| OROTARAKOAREN % | %58 | %10 | %10 | %10 | %88 | | | |

| IKASTETXE PRIBATUAK - BIGARREN IKASMAILA - GAZTELANIA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| IKASLEAK OROTARA | 921 | 162 | 129 | 202 | 1414 | %90 | 151 | %10 |
| OROTARAKOEN % | %59 | %10 | %8 | %13 | %90 | | | |

| IKASTETXE PRIBATUAK - BIGARREN IKASMAILA - EUSKARA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| IKASLEAK OROTARA | 134 | 25 | 29 | 32 | 220 | 85% | 39 | 15% |
| OROTARAKOEN % | %52 | %10 | %11 | %12 | %85 | | | |

| DBH-KO BIGARREN IKASMAILA - IKASTETXE PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK | | | |
|---|---|---|---|
| | **IKASLEAK OROTARA** | **IGO DIRA** | **EHUNEKOA** |
| PUBLIKOA-GAZTELANIA | 2552 | 2206 | %86 |
| PUBLIKOA-EUSKARA | 646 | 566 | %88 |
| PRIBATUA-GAZTELANIA | 1565 | 1414 | %90 |
| PRIBATUA-EUSKARA | 259 | 220 | %85 |
| **OROTARA** | **5022** | **4406** | **%88** |

| | | **GAINDITU GABEKO ARLOAK** | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | **0** | **1** | **2** | **>2** |
| | **IKASLEAK OROTARA** | % | % | % | % |
| PUBLIKOA-GAZTELANIA | 2552 | %51 | %11 | %8 | %17 |
| PUBLIKOA-EUSKARA | 646 | %59 | %10 | %9 | %10 |
| PRIBATUA-GAZTELANIA | 1565 | %59 | %10 | %8 | %13 |
| PRIBATUA-EUSKARA | 259 | %52 | %10 | %11 | %12 |
| **OROTARA** | **5022** | **%54** | **%11** | **%8** | **%14** |

| IKASTETXE PUBLIKOAK - HIRUGARREN IKASMAILA - GAZTELANIA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| BHI | 954 | 280 | 262 | 284 | 1780 | %79 | 487 | %21 |
| DBHI | 128 | 46 | 35 | 61 | 270 | %87 | 40 | %13 |
| OROTARA | 1082 | 326 | 297 | 345 | 2050 | %80 | 527 | %20 |
| OROTARAKOAREN % | %42 | %13 | %12 | %13 | %80 | | | |

| IKASTETXE PUBLIKOAK - HIRUGARREN IKASMAILA - EUSKARA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| BHI | 270 | 73 | 63 | 37 | 443 | %83 | 89 | %17 |
| DBHI | 42 | 20 | 12 | 3 | 77 | %78 | 22 | %22 |
| OROTARA | 312 | 93 | 75 | 40 | 520 | %82 | 111 | %18 |
| OROTARAKOAREN % | %49 | %15 | %12 | %6 | %82 | | | |

| IKASTETXE PRIBATUAK - HIRUGARREN IKASMAILA - GAZTELANIA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| IKASLEAK OROTARA | 855 | 174 | 153 | 224 | 1406 | %87 | 203 | %13 |
| OROTARAKOEN % | %53 | %11 | %9 | %14 | %87 | | | |

| IKASTETXE PRIBATUAK - HIRUGARREN IKASMAILA - EUSKARA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| IKASLEAK OROTARA | 150 | 33 | 27 | 19 | 229 | %91 | 22 | %9 |
| OROTARAKOEN % | %60 | %13 | %11 | %7 | %91 | | | |

| DBH-KO HIRUGARREN IKASMAILAKO IKASLEEN IGOERA - PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK | | | |
|---|---|---|---|
| | **IKASLEAK OROTARA** | **IGO DIRA** | **EHUNEKOA %** |
| PUBLIKOA-GAZTELANIA | 2577 | 2050 | %80 |
| PUBLIKOA-EUSKARA | 631 | 520 | 82% |
| PRIBATUA-GAZTELANIA | 1609 | 1406 | %87 |
| PRIBATUA-EUSKARA | 251 | 229 | %91 |
| **OROTARA** | **5068** | **4205** | **%83** |

| | | **GAINDITU GABEKO ARLOAK** | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | **0** | **1** | **2** | **>2** |
| | **IKASLEAK OROTARA** | % | % | % | % |
| PUBLIKOA-GAZTELANIA | 2577 | %42 | %13 | %12 | %13 |
| PUBLIKOA-EUSKARA | 631 | %49 | %15 | %12 | %6 |
| PRIBATUA-GAZTELANIA | 1609 | %53 | %11 | %10 | %14 |
| PRIBATUA-EUSKARA | 251 | %60 | %13 | %11 | %8 |
| **OROTARA** | 5068 | **%47** | **%12** | **%11** | **%12** |

| IKASTETXE PUBLIKOAK - LAUGARREN IKASMAILA - GAZTELANIA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| BHI | 917 | 340 | 271 | 48 | 1576 | %83 | 331 | %17 |
| DBHI | 122 | 50 | 35 | 17 | 224 | %84 | 43 | %16 |
| OROTARA | 1039 | 390 | 306 | 65 | 1800 | %83 | 374 | %17 |
| OROTARAKOAREN % | %48 | %18 | %14 | %3 | %83 | | | |

| IKASTETXE PUBLIKOAK - LAUGARREN IKASMAILA - EUSKARA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| BHI | 272 | 89 | 78 | 14 | 453 | %89 | 56 | %11 |
| DBHI | 43 | 13 | 10 | 1 | 67 | %89 | 8 | %11 |
| OROTARA | 315 | 102 | 88 | 15 | 520 | %89 | 64 | %11 |
| OROTARAKOAREN % | %54 | %17 | %15 | %3 | %89 | | | |

| IKASTETXE PRIBATUAK - LAUGARREN IKASMAILA - GAZTELANIA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| IKASLEAK OROTARA | 856 | 214 | 230 | 108 | 1408 | %85 | 247 | %15 |
| OROTARAKOEN % | %52 | %13 | %14 | %6 | %85 | | | |

| IKASTETXE PRIBATUAK - LAUGARREN IKASMAILA - EUSKARA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IGO DIRA | | | | | | EZ DIRA IGO | |
| | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | | OROTARA | % | OROTARA | % |
| | 0 | 1 | 2 | >2 | | | | |
| OROTARA DEL IKASLEAK | 180 | 51 | 60 | 15 | 306 | %88 | 42 | %12 |
| OROTARAKOEN % | %52 | %15 | %17 | %4 | %88 | | | |

| DBH-KO LAUGARREN IKASMAILAKO IKASLEEN IGOERA - PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK- | | | |
|---|---|---|---|
| | **IKASLEAK OROTARA** | **IGO DIRA** | **EHUNEKOA** |
| PUBLIKOA-GAZTELANIA | 2174 | 1800 | %83 |
| PUBLIKOA-EUSKARA | 584 | 520 | %89 |
| PRIBATUA-GAZTELANIA | 1655 | 1408 | %85 |
| PRIBATUA-EUSKARA | 348 | 306 | %88 |
| **OROTARA** | 4761 | 4034 | %85 |

| | | GAINDITU GABEKO ARLOAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 0 | 1 | 2 | >2 |
| | MATRIKULA | % | % | % | % |
| PUBLIKOA-GAZTELANIA | 2174 | %48 | %18 | %14 | %3 |
| PUBLIKOA-EUSKARA | 584 | %54 | %17 | %15 | %3 |
| PRIBATUA-GAZTELANIA | 1655 | %52 | %13 | %14 | %7 |
| PRIBATUA-EUSKARA | 348 | %52 | %15 | %17 | %4 |
| **OROTARA** | 4761 | %50 | %16 | %14 | %4 |

## *c.3.) Batxilergoa*

| HSAOL BATXILERGOKO 1. MAILAREN EMAITZA AKADEMIKOAK, 1999-2000 ikasturtean | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | EKAINA | | IRAILA | | ORO-TARA |
| *Lagina: 3.483 ikasle* | | | | | |
| • Irakasgai guztiak gainditu dituzten ikasleak | 1.464 | %42 | 437 | %13 | %55 |
| • Irakasgai 1 gainditu ez duten ikasleak …….. | 519 | 15 | 483 | %14 | %14 |
| • 2 irakasgai gainditu ez dituzten ikasleak ……. | 455 | %13 | 393 | %11 | %11 |
| • 2 irakasgai baino gehiago suspenditu dituzten ikasleak | 1.045 | %30 | 681 | %20 | %20 |

| PUBLIKOKO BEREIZKETA - ITUNPEKOKOA, GAZTELANIA-EUSKARA. (EKAIN + IRAILEKO AZKEN EMAITZAK) | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | PUBLIKOA | | ITUNPEKOA | |
| | GAZTELANIA | EUSKARA | GAZTELANIA | EUSKARA |
| *Lagina: 3.483 ikasle* | *1828* | *431* | *1135* | *89* |
| • 0 suspentso | %50 | %58 | %61 | %55 |
| • Suspentso 1na | %15 | %11 | %13 | %14 |
| • 2na suspentso | %12 | %11 | %9 | %18 |
| • 2na suspentso baino gehiago | %22 | %17 | %17 | %13 |

| HSAOL BATXILERGOKO 2. MAILAREN EMAITZA AKADEMIKOAK, 1999-2000 ikasturtean | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | EKAINA | | IRAILA | | OROTARA |
| *Lagina: 3.331 ikasle.* | | | | | |
| | Orotara | 11 | 52 | 111 | 174 | 4 | 59 | 89 | 152 | 6 | 79 | 68 | 153 | 10 | 76 | 57 | 143 | | 89 | 58 | 147 |
| | Orotara | 19 | 87 | 139 | **245** | 5 | 111 | 107 | **223** | 8 | 137 | 85 | **230** | 12 | 153 | **70** | **235** | - | 169 | 65 | **234** |

* Gizarte Ongizate Departamentuarekin itunduriko ikastetxeak.
**Hezkuntza eta Kultura Departamentuarekin itunduriko ikastetxeak.
*NHBBZk emaniko datuak*

| Ikastetxeen titulartasunaren arabera. | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996/97 ikasturtea | | | 1997/98 ikasturtea | | | 1998/99 ikasturtea | | | 1999/00 ikasturtea | | | 2000/01 ikasturtea | | |
| **Ikastetxeen titulartasunaren arabera** | **Pub.** | **Itun.** | **Orotara** | **Pub.** | **Itun.** | **Orotara** | **Pub.** | **Itun.** | **Orotara** | **Pub.** | **Itun.** | **Orotara** | **Pub.** | **Itun.** | **Orotara** |
| Ikastetxe berariazkoak | 66 | 142 | 208 | 85 | 138 | 223 | 88 | 142 | 230 | 92 | 143 | 235 | 87 | 147 | 234 |
| Ikastetxe arruntak | 688 | 274 | 962 | 739 | 287 | 1.026 | 775 | 376 | 1.151 | 665 | 440 | 1.105 | 738 | 475 | 1.213 |
| **Batuketa** | **754** | **416** | **1.170** | **824** | **425** | **1.249** | **863** | **518** | **1.381** | **757** | **583** | **1.340** | **825** | **622** | **1.447** |

| Hizkuntz ereduaren arabera, 2000/2001 ikasturtea | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A EREDUA | | | B EREDUA | | | D EREDUA | | | G EREDUA | | |
| Publikoa | Itun.-prib. | Orotara | Publikoa | Itun.-prib. | Orotara | Publikoa | Itun.-prib. | Orotara | Publikoa | Itun.-prib. | Orotara |
| 99 | 47 | 146 | 1 | 5 | 6 | 122 | 50 | 172 | 601 | 522 | 1.123 |

| Zonaren arabera, ikastetxe arruntean eskolaraturiko ikasleak, 2000/2001 | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZONA | SUPERGAITASUNA | | | | GAIGABEZIA | | | | OROTARA | | | | |
| TITULAR. | Publikoa | | Itun.-prib. | | Publikoa | | Itun.-prib. | | Publikoa | | Itun.-prib. | | OROTARA |
| EREDUA* | Gazt. | Eusk | Gazt. | Eusk. | Gazt. | Eusk. | Gazt. | Eusk | Gazt. | Eusk | Gazt. | Eusk | |
| Elizondo | - | - | - | - | 6 | 31 | 5 | 12 | 6 | 31 | 5 | 12 | 54 |
| Altsasu | - | - | - | 3 | 14 | 22 | - | 15 | 14 | 22 | - | 18 | 54 |
| Agoitz-Irunberri | 3 | - | - | - | 20 | - | - | 2 | 23 | - | - | 2 | 25 |
| Tafalla | 1 | - | 2 | - | 74 | - | 5 | 4 | 75 | - | 7 | 4 | 86 |
| Lizarra | 2 | - | - | - | 58 | - | 20 | 6 | 60 | - | 20 | 6 | 86 |
| Tutera | - | - | - | - | 124 | - | 13 | - | 124 | - | 13 | 0 | 137 |
| Iruña | 4 | 2 | 17 | - | 310 | 68 | 359 | 11 | 314 | 70 | 376 | 11 | 771 |
| OROTARA | 10 | 2 | 19 | 3 | 606 | 121 | 402 | 50 | 616 | 123 | 421 | 53 | 1.213 |

| Zonaren eta diagnosi ardatzaren arabera, 2000/2001 ikasturtea | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ZONA** | **Psikikoa** | | | **Komunikazioa** | | | **Entzumena** | | | **Ikusmena** | | | **Motrizitatea** | | | **Supergaitasuna** | | | **Orotara** |
| | **P** | **I** | **O** | **P** | **I** | **O** | **P** | **I** | **O** | **P** | **I** | **O** | **P** | **I** | **O** | **P** | **I** | **O** | |
| Elizondo | 26 | 10 | 36 | - | 5 | 5 | 4 | 1 | 5 | 2 | - | 2 | 5 | 1 | 6 | - | - | - | **54** |
| Altsasu | 28 | 14 | 42 | - | - | - | 4 | - | 4 | - | - | - | 4 | 1 | 5 | - | 3 | 3 | **54** |
| Agoitz-Irunberri | 16 | 2 | 18 | - | - | - | 2 | - | 2 | 1 | - | 1 | 1 | - | 1 | 3 | - | 3 | **25** |
| Tafalla | 63 | 9 | 72 | - | - | - | 6 | - | 6 | 1 | - | 1 | 4 | - | 4 | 2 | 1 | 3 | **86** |
| Lizarra | 49 | 21 | 70 | 2 | 1 | 3 | 3 | 1 | 4 | 2 | - | 2 | 4 | 1 | 5 | 2 | - | 2 | **86** |
| Tutera | 120 | 8 | 128 | 17 | - | 17 | 4 | - | 6 | 3 | 1 | 4 | 14 | 2 | 16 | - | - | - | **171** |
| Iruña | 338 | 414 | 752 | 15 | 24 | 39 | 31 | 21 | 52 | 12 | 9 | 21 | 35 | 49 | 84 | 6 | 17 | 23 | **971** |
| OROTARA | 640 | 478 | 1.118 | 34 | 30 | 64 | 54 | 33 | 79 | 21 | 10 | 31 | 67 | 54 | 121 | 13 | 21 | 34 | **1.447** |

O= OROTARA P= Publikoa I= Itunpekoa

| Sarturiko ikasleen ehunekoa, 2000/2001 | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | ikasleak orotara | Ikastetxe berariazkoan | Ikastetxe arruntean | Sarturiko ikasleen % |
| OROTARA | 1.447 | 234 | 1.213 | 83,8 |

*NHBBZk emaniko datuak, 2000koak*

Egun itunpeko ikastetxe arruntek HPBdun ikasleen %39 eskolaraturik dute. Horrek ikasle guztien aldean duten ehunekoaren (%38,70) ia berdina dakar. Hori dela eta, horrelako ikasleei arreta emateko diru-laguntzetarako deialdiekin jarraitu eta beroriek zabaldu beharra dago.

### 3.3. Araubide bereziko irakaskuntzetako ikasleak: hizkuntzak eta artea.

*a) Hizkuntzak irakastea.*

Nafarroako gizartearen oinarrizko eskarietariko bat da eta honelaxe laburtzen ahal diren jarduketen programa handiaren bitartez erantzun nahi zaio:

- Zuzeneko Hizkuntz Eskolak, BI, Iruñean eta Tuteran, 4.635 ikasle ofizialekin eta 3.067 librerekin.
- Urrutiko Hizkuntz Eskola, BAT, 4.946 ikaslerekin.
- Urrutiko Hizkuntz Eskolaren Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe publikoekiko eta pribatuekiko lankidetzarako programa: 28 Ikastetxe publiko eta 25 itunpeko ikastetxe eta 4.059 ikasle.

Pasa den ikasturtean eskaintza zabaldu zen, beste hizkuntza batzuk ezarririk, hala nola, errusiera.

20 zenbakiko koadroa
**Hizkuntzen ikasleen eskolatzea, 1996-2001**

| | 1996/97 ikasturtea | 1997/98 ikasturtea | 1998/99 ikasturtea | 1999/2000 ikasturtea | 2000/2001 ikasturtea |
|---|---|---|---|---|---|
| **Hizkuntz Eskola Ofizialak** | | | | | |
| Zentro kopurua | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| IKASLEAK (mat. Ofiziala) | 4550 | 4614 | 4645 | 4674 | 4.635 |
| Alemaniera | 641 | 510 | 621 | 606 | 684 |
| Euskara | 846 | 896 | 907 | 866 | 853 |
| Frantsesa | 850 | 895 | 821 | 881 | 849 |
| Ingelesa | 1954 | 2049 | 2053 | 2072 | 1.983 |
| Italiera | 259 | 264 | 243 | 249 | 266 |
| IRAKASLEAK | 59 | 61 | 62 | 63 | 78 |

Irakaskuntza ofizialean matrikulaturiko ikasleoz gain, 3.067 ikasle matrikulaturik daude irakaskuntza librean Iruñeko eta Tuterako Hizkuntz Eskoletan.

| Urrutiko Hizkuntz Eskolak | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 | 1999/2000 | 2000/2001 |
|---|---|---|---|---|---|
| IKASLEAK | 3493 | 3520 | 3456 | 4.127 | 4.946 |
| Ingelesa | 3139 | 3092 | 2909 | | |
| - That´s English | | | | 1.067 | 887 |
| - Bigarren Maila | | | | 2.236 | 2.741 |
| Frantsesa | 354 | 428 | 547 | | |
| - Bigarren Maila | | | | 824 | 882 |
| Euskara | | | | | |
| - Bigarren Maila | | | | | 436 |
| IRAKASLEAK | 5 | 0 | 5 | 9 | 11 |

21 zenbakiko koadroa
**Hizkuntz Eskola Ofizialarekin lankidetzan jarduten duten ikastetxeak. Bigarren Hezkuntza. 2000/2001 ikasturtea**

| | Ingelesa | Frantsesa | Euskara |
|---|---|---|---|
| Publikoak | 28 | 12 | 16 |
| Itunpekoak | 25 | 21 | 4 |

| 22 zenbakiko koadroa<br>**2001/2002 ikasturterako Hizkuntz Eskola Ofizialarekin lankidetzan jarduten duten ikastetxe berriak.** | | | |
|---|---|---|---|
| | **Ingelesa** | **Frantsesa** | **Euskara** |
| Publikoak | 6 | 3 | 3 |
| Itunpekoak | 1 | - | 1 |

| 23 zenbakiko koadroa<br>**Hizkuntz Eskola Ofizialak luzaturiko Oinarrizko Zikloaren ziurtagiriak** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **1996/97** | **1997/98** | **1998/99** | **1999/00** | **ORO-TARA** |
| That's English | | | | | |
| Ingeles EZ | 70 | 95 | 79 | 90 | **334** |
| Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeen lankidetza | | | | | |
| Ingeles EZ | 127 | 307 | 188 | 248 | 870 |
| Frantses EZ | 37 | 44 | 29 | 103 | 213 |
| Orotara | 164 | 351 | 217 | 351 | **1.083** |
| **Emaniko Oinarrizko Zikloaren ziurtagiriak orotara** | | | | | **1.417** |

***Nafarroako Eskola Kontseiluak oso positibotzat jotzen du Urrutiko Hizkuntz Eskolan hizkuntza irakasteko programari heltzen dioten hezkuntza zentroak apurka-apurka gehiagotzea, eta eskola zentroetan atzerriko hizkuntzak irakasteko baliabide eta ordu zuzkidura handiagoz laguntzeko eskatu du, Bigarren Hezkuntzan batez ere.***

Ingelesa ikas-irakasteko proiektu berria bildu dugu, txit garrantzitsua delako:

***Haur eta Lehen Hezkuntzan ingelesa irakastea indartzeko proiektua.***

Parlamentuak atzerriko hizkuntzak irakasteko orduak gehiagotzeko eskatu duelako egin da proiektu hau. Irakasleen ordezkaritza sindikalaren gehiengoak eta Administrazioak hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko sinaturiko Ituneko akordioetako bat da. Nafarroako gizartearen gehiengoak sentitzen duena islatzen du. Haren ustez, ezinbestekoa da ikasleak Europako Erkidegorako prestatzea, eta bertan hizkuntzak eta, bereziki, ingelesez jakitea.

Proiektua bertan parte hartzea onartu duten ikastetxeetan ezartzen hasiko da *probatzeko*. Horiek Nafarroako eskola errealitatea erakutsi eta ordezkatzen dute banaketa geografikoari, tamainu barietateari, plantilari eta abarri begira. Beharrezkotzat jo da probatze hori, aurki gainerako ikastetxe publikoak sartuko diren horrelako esperientzia batean bermerik handienekin sartzeko. Hura abian jartzeak lan ordu anitz dakartza eta ikastetxeen lankidetza behar da proiektua gelen esperientziarekin erkatzeko.

2002-2003 ikasturtean, ikastetxe guztiek bina ingeles ordu gehiago emanen dituzte Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (logikoa denez, A, B eta D ereduak dituzten ikastetxeek ordutegi ezberdina izanen dute, eta beren ikastetxeari buruzko hizkuntz proiektuak egiteko behar duten laguntza, beren berezitasunen arabera). Ikasturte horretatik aurrera, ingelesezko irakaskuntzak ikasturteko 2 ordutan zabalduz joanen dira, urteko ikasturte bat, Lehen Hezkuntzako 6ak osatu arte. Horrekin batera, programazioak etorriko dira, eta material hornikuntza, eta irakasleak prestatzeko beharrezko neurriak. Ereduzko ikastetxeen esperientzia baliatuko da, eta prestatu eta probaturiko materialak eta programazioak.

Egungo jarraibideen barruan honako lau atalok daude:
- Sarrera: proiektuaren filosofia.
- Materialak, programazioak eta agiriak egin, banatu eta ebaluatzea.
- Ingelesa indartzeko programarako prestakuntza.
- Proiektua garatzen duten ikastetxeei begirako antolakuntza alderdiak.

*1. Sarrera: proiektuaren filosofia.*

Proiektu honen **helburu nagusia** ikasleak hizkuntzak ikastera bultzatzeko lagungarria izatea da. Horretarako, curriculum gaien edukiak ikasi eta irakasteko hizkuntza bezala ingelesa erabiliko da. Horrela, egoera gehiagotan lengoaia erabiltzeko aukera gehiago egonen da.

Gaiaren bibliografiak (ematen diren hizkuntzak eta edukiak ikasteko beste hizkuntza batzuetan edukiak irakastea) berresten duenez, hizkuntza lan akademikoetarako erabiltzea oso ona da ikasteko.

- Zeren eta hizkuntza erabiltzeari xede errealistagoak ematen baitizkio, ikasleei interesatzen ahal zaizkien gaiei buruzkoak (hizkuntza hori modu praktikoagoan erabiltzen da eta horrek entzun, irakurri eta abartzeko lanak egitea dakar).
- Zeren eta azalpen testuak lantzen baitira eta ingeles eskoletan egiten dena osatzen duten lanak, proiektuak eta abar egiten baitira.
- Zeren eta ingeles orduak gehiagotzen baitira. Edukiak ikastea oso ongi dator ahozko ulermenerako gaitasuna garatu eta hiztegi zehatza handiagotzeko.

Kontuan hartu beharreko erreferentzi puntu bat ikasleak Lehen Hezkuntza bukatzean, Hizkuntz Eskolen lehenengo mailaren elementuak menperatzeko beharrezko hizkuntz gaitasuna eskuratzera heltzea izan daiteke (EOIDNAren programa), zertarako-eta Bigarren Hezkuntzan irakaskuntzon Goi Zikloa gero eta ikasle gehiagok gainditzen ahal izateko.

Irakastorduok curriculumean ageri diren ingeles eskolak indartzekoak dira eta maisu adituek emanen dituzte. Ingeles arloaren zati bat osatzen dute eta, beraz, haren barruko bezala kalifikatuko dira.

**Haur Hezkuntza**n ingelesez orokorrean ikasmaila bakoitzean astean lau ordu emanen dira. Ordutegia zabaltze horrek egun ematen ari diren edukiak bikoiztea dakar eta horretarako ezinbestekoa da beharrezko materialak izatea.

Etapa honetan egun ingelesez ematen ari diren edukiek eta irakaskuntza ereduak edukien bitartez edo murgilduz hizkuntzak irakastea deiturikoaren baldintza guztiak betetzen dituzte. Izan ere, ingelesa irakatsi baino gehiago, ingelesez gauzak egin behar dira; horrela ikasten da eta, prozesuan sarturiko komunikazio lanen ondorioz.

Etapa horretako haurren ezaugarriak direla eta, mota anitzetako jarduera anitz egin behar dira, hurbileko egoeretan sartuak (hemen eta orain). Lengoaia erabili behar da adieraztekoa adierazteko, besteekin harremanak izateko eta, batez ere, gozatuz eta ikasiz jolasteko.

**Lehen Hezkuntza**ko lehen zikloan bi ordu gehiago daude ingelesez irakasteko. Ziklo horren izaera globalizatua kontuan harturik, ordu horietan, arlo batzuen edukiak biltzen dituzten gai batzuk emanen dira: ikasteko hizkuntzan aurretik landu eta indarrean dagoen curriculumetik ateratako gaiak sartuko dituzten 6 unitate didaktiko (unitate bakoitzak arlo guztien edukiak

sartzen ahal ditu).

Lan teknikak progresiboki sartuz joanen dira: behatzea, aztertzea, deskribatzea, irakurtzea..., eta hurrengo zikloetan: laburtzea, agiri mota ezberdinak egitea, komunikabideak erabiltzea, teknologia berriak...

Halaber, hemendik aurrera, plana garatzeko, zeharkako edo kultur intereseko gaiak sartzen ahalko dira: Europa, nazioarteko harremanak, ingelesez hitz egiten den herriak... Ez dira baztertuko zientzi motako gai espezializatuago batzuk Lehen Hezkuntzako azken ikasmailetan.

Zenbat eta lan gaiak landu eta espezializatuagoak izan, hainbat eta zehatzagoak dira hiztegia (urriki ohikoa curriculum ingelesezko eskola arruntetan), kontzeptuak eta beroriek tratatzeko modua. Horiek hizkuntzen irakaslearen prestakuntzatik eta hizkuntzen eskolen ohiko dinamikatik urruntzen dira... Ingelesa irakasleek hizkuntz espezializazio honen jakitun izan behar dute. Espezializazio horri behar bezala kasu egiteko alderdi hori aztertuko da prestakuntza bileretan.

Ebaluazioaren ikuspuntutik, hizkuntz gaitasuna garatzeko aurrerakuntza baloratuko da, hizkuntza ikastea bultzatu behar baita.

*2. Materialak, programazioak eta agiriak egin, banatu eta ebaluatzea.*

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak fase esperimentalerako beharrezko eskolako **baliabideak, programazioak, laguntza agiriak eta materialak** eginen ditu. Era berean, esperientzia koordinatuko du eta programarekin iristen diren emaitzak baloratuko ditu.

Programazio, agiri eta material esperimentalek honakook izanen dituzte:
- Ikasmaila bakoitzerako orientazio didaktikoak, honakook sartuko dituztenak: helburuak, edukiak (kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak). Ebaluaketa.
- Jarduera proposamena.
- Lan orriak eta curriculum material laguntzaileak.

2001eko irailaren hasieran ikastetxeei eta prestakuntza ikastaroen arduradunei emanen zaie gelako lanerako materiala lehenengo hilabeterako gutxienez. Horretarako aholkularitza eta lankidetza lanetan jardunen dute ikastarootako irakasleek.

Ondorengo urteetan, testuak argitaratzeaz argitaletxeak beraiek arduratzea ahalbidetzen duten formulak bilatuko dira.

Teknologia Berrien eta Araubide Bereziko Irakaskuntzen Zerbitzuak esperientzia hori garatzen denean antolatzen diren irakasle taldeak **koordinatzeko** lanaren ardura hartu du. Gainera, irakasleak prestatzeko proposamenaren eta proiektuaren jarraipena eginen du. Eginiko materialekin lan egiteko erari buruzko orientazioa emanen du. Horretarako bilduko ditu gelako taldeen esperientziak eta jarduketak.

*3. Ingelesa indartzeko programarako prestakuntza.*

Irakasleen hizkuntz, metodologi eta zientzi prestakuntza koordinazio prozesuarekin batera emanen da. Prozesu horretan sarturik dago gelako materialak eta agiriak erabiltzen ikastea. Beharrezko prestakuntza sartu behar da: edukiok emateko beharrezko hitz eta esamoldeak

eskuratu behar dira. Haien adierazteko gaitasuna garatu behar da: ikasleekin ongienik moldatu behar dute eta ikasleen jarduerak zuzentzeko gai izan behar dute; eta azalpenak, gorespenak, zuzenketak, jarraibideak, iruzkinak eta abar ingelesez egiteko gai izan behar dute.

Irailaren lehenengo hamabost egunetan informazio bilkura orokorrak egonen dira proiektuan sarturiko ingeles-irakasle guztientzat. Baina bai prestakuntza bai jarraipena **lantalde txiki**tan eginen da. Horrek parte-hartzaileen prestakuntza eraginkortasun eta gogobetetasun handiagoa bermatuko du. Horrela, erabilitako materialen eta metodologiaren erabilera eta aplikazioa erkatzen ahalko da, baita esperientziaren emaitzak zabaldu eta etorkizunean erantsiko diren gainerako irakasleei eskualdatzea prestatzen ere.

Programa honetan eta, beraz, prestakuntza ekintzetan parte hartzen duten maisuak ikastetxeen zuzendaritzek izendatuko dituzte Ikuskaritzarekin elkarlanean, ikastetxeko egonkortasun eta egokitasun irizpideei jarraituz.

Koordinazio eta prestakuntza bilkurak bi motatakoak izanen dira: presentziazkoak eta urrutikoak. Lehenengoak hilean asteazken arratsalde batez izanen dira talde bakoitzarentzat.

Urrutiko prestakuntzan, ikastetxeko esperientzia ebaluatu eta unitate didaktikoentzako ekarpena eginen da, metodologi gidaliburuak eta programazioak. Hori taldean egitea nahi dugu (ikastetxe bereko irakasleekin, esate baterako, edo erraztasunez biltzen ahal direnekin). Haiek tutorearen laguntza izanen dute.

Hirugarren hiruhilekoan Jardunaldi edo Topaketa batzuk antolatuko dira, esperientzia planera hurrengo faseetan sartzen diren irakasleei jakinarazteko balio izanen dutenak. Jardunaldi edo topaketotan, hala nahi dutenek beren jakinarazpenak azaltzen ahalko dituzte.

Ziurtagiri egokien bitartez egiaztatuko da aipaturiko ekintzetako partaidetza.

Proiektura ondorengo urteetan sartzen diren ikastetxeek aurrekoen esperientziak egiaztaturiko materialak, agiriak eta programazioak izanen dituzte, baita bertze prestakuntza aukera batzuk ere. Aukera horietariko bat titulu ofizialak (Hizkuntz Eskola Ofiziala, Unibertsitate Masterrak eta abar) lortzea piztekoa izan daiteke.

*4. Proiektua garatzen duten ikastetxeei begirako antolakuntza alderdiak.*

Proiektuaren zati diren ikastetxeek Eskola Kontseiluaren oniritzia dute, irakasle klaustroaren onespena eta saiakuntza eta prestakuntza koordinatzeko proposaturiko lanetan parte hartzeko irakasle adituen konpromisoa.

Ororen gainetik, adituen artean koordinaturiko lantaldea sortu eta lankidetzan jardun beharra dagoela berriro esan behar da. Baina, are gehiago, kontuan hartu behar da ezen berau, adituen lana barik, hezkuntza zentro osoaren proiektua dela. Ingelesa ikasteak ikasleen hizkuntz ikasketa indartzen du, eskola lanaren funtsezko oinarri bat dena.

Proiektuari eransten zaizkion ikastetxeak **Haur Hezkuntza**rako hizkuntz gela edo Haur Hezkuntzako gelako txoko bat ematen saiatuko dira (ikastetxe bakoitzeko adituek eta tutoreek hori erabakitzen badute). Gune horrek etapa horretan hizkuntzak irakasteko beharrezko material didaktiko ugariak erabiltzea erraztuko du: flash card-ak, posterrak, magnetofoia, eskuzta daitezkeen materialak eta abar. Era berean, hobe da multimedia ordenagailua izatea.

Itunean adosturikoaren arabera, Haur Hezkuntzako tutoreek adituak klaseari kasu egiten dion orduak koordinatzen, materialak egiten, teknologia berriak koordinatzen eta abartzen emanen dituzte. Ikasleei zuzeneko arreta emanen zaie CCPk egokiesten badu etorkinen, baztertuta dauden ikasleen eta abarren kasuan. Behar bezala frogaturiko salbuespenezko kasurik ez badago, Haur Hezkuntzako irakasleek ezin bertze etapa bateko ikaslerik zainduko dute.

Lehen Hezkuntza tutoreak honakoa eginen du asteko bi orduetan, ondorengo lehentasun hurrenkeraren arabera:

- Atzerriko ikasleen gaztelania hobetu.
- bi ikasmaila edo gehiagoko curriculum desfasea duten gizarte edo kultur egoera txarragoko ikasleentzako arreta indartu.
- Dibertsitatearekiko arreta era arruntean indartu.
- Teknologia berriak koordinatu.

Hiru urteetako **pedagogi berezitasun**ak direla eta, ikasturte honetako ingeles eskolak ez dira lehenengo eskola-hila pasatu arte hasiko. Bitartean ingeles-irakasleak ikasmailako tutorea lagunduko du, haurrekin ohitzeko, tutoreak jarraitzen dion gelako dinamikari begiratzeko eta hura harekin koordinatzeko. Hilabete hori pasatuta, hobe da egokiesten duten epean zehar tutoreak aditua lagundu eta berorri bere taldearekiko lana hasten laguntzea, zertarako-eta helburuak eta metodologia koordinatzea bermatzeko.

Lehen Hezkuntzan, indartzeko bi orduak ingeles arloaren zati bezala kalifikatuko dira. Kalifikazioak dagozkien agirietan sartuko dira, aipaturiko arloan sarturik.

Ingelesa irakasteko orduak gehiagoturik, Teknologia Berrien eta Araubide Bereziko Irakaskuntzen Zerbitzuak 2000ko apirilean eginiko curriculum proposamenean ezarririko gaitasun mailak iristen ahal izanen dira. Hobe da Haur eta Lehen Hezkuntzarentzat baloratzeko proba eta hizkuntzen curriculum diseinuetara bilduriko orientazioei jarraitzea.

***Nafarroako Eskola Kontseiluak uste duenez, ingelesa indartzeko programa hori abiarazi behar dela aurretiko esperientziak osorik aprobetxatzeko, erabiltzeko hizkuntzatasuna edo horren eza eta horren ordutegitako, irakasle plantilatako ondorioak zehazteko...***

***Ikastetxeei beren gizarte testuinguruari, beren hizkuntz testuinguruari eta abarri egokitzen ahal izan dakizkien curriculumeko eta antolakuntzako autonomi marjina eman behar zaie.***

***Bertze alde batetik, horrelako programa baterako, irakasleak prestatzeko ahalegin handiak egin behar dira. Horretarako, prestakuntza mota eta baliabide anitzetarikoak baliatu behar dira, Programan ageri direnak eta bertzelakoak, hala nola, atzerriko prestakuntzarakoak.***

***Horregatik, hobe bide da Proiektua orokorrean arazorik gabe abiatzea bermatzen duen egutegi batekin ezartzea.***

***b) Musika eta Arte Irakaskuntzak.***

Nafarroan ematen diren musika irakaskuntzen irakaslekuak honakook dira:

- Iruñeko "Pablo Sarasate" Kontserbatorioa, oinarrizkoa, ertaina eta nagusia.
- Udal Musika Eskolak: 44.

24 zenbakiko koadroa

**Musika Ikasketen ikasleen eskolatzea, 1996-2001**

| | 1996/97 ikasturtea | | 1997/98 ikasturtea | | 1998/99 ikasturtea | | 1999/00 ikasturtea | | 2000/01 ikasturtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua |
| **Kontserbatorioak** | 1.254 | - | 967 | - | 1.063 | - | 997 | - | 934 | |
| **Musika Eskolak** | 6.928 | 450 | 7.184 | 499 | 6.582 | 515 | 7.817 | 618 | 8.356 | 718 |

*Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren estatistikako datu ezberdinak*

25 zenbakiko koadroa

**Dantza Ikasketen ikasleen eskolatzea, 1996-2001**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Dantza Eskola** | 90 | 77 | 81 | 96 | 95 |

26 zenbakiko koadroa

**Arte Plastikoen Ikasketen ikasleen eskolatzea, 1996-2001**

| Arte Eskolak | 1996/97 ikasturtea | 1997/98 ikasturtea | 1998/99 ikasturtea | 1999/00 ikasturtea | 2000/01 ikasturtea |
|---|---|---|---|---|---|
| Plan Zaharra | 258 | 173 | 125 | 45 | |
| Maila ertaineko EZ | 15 | 31 | 21 | 44 | 45 |
| Goi mailako EZ | 58 | 101 | 131 | 162 | 173 |
| Arte Batxilergoa | | | 130 | 295 | 385 |

27 zenbakiko koadroa

**Udal Musika Eskolen eta Musika Eskola Pribatuen zerrenda.**

| **Udal Musika Eskolak** | **Herria** |
|---|---|
| | Ablitas |
| | Altsasu |
| "Mariano García" | Agoitz |
| | Artaxona |
| | Azagra |
| "Luis Morondo" | Barañain |
| "Isidoro Fagoaga" | Bera |
| | Berriozar |
| "Hilarión Eslava" | Burlata |
| | Buñuel |
| | Zarrakaztelu |
| | Cintruénigo |
| | Doneztebe |
| "Valle de Baztan" | Elizondo |
| "Julián Romano" | Lizarra |
| | Etxarri Aranatz |
| "Valle de Salazar" | Ezkaroze |
| "Orreaga" | Garralda |
| | Uharte |
| | Irurtzun |
| | Lakuntza |
| "Aralar" | Lekunberri |
| | Lesaka |

| | |
|---|---|
| "Ángel Arrastia" | Lodosa |
| | Irunberri |
| | Martzilla |
| "Julián Gayarre" | Noain (Elortzibar) |
| | Olazti |
| | Erriberri |
| "Joaquín Maya" | Iruña |
| | Azkoien |
| | Gares |
| "Teodoro Gastón" | Ribaforada |
| "Julián Gayarre" | Erronkari |
| | San Adrian |
| "Juan Francés de Iribarren" | Zangoza |
| | Tafalla |
| "Fernando Remacha" | Tutera |
| "Fernando Calahorra" | Alesbes |
| | Zizur Nagusia |

| **Musika Eskola Pribatuak** | **Herria** |
|---|---|
| "Artsaia" | Aizoain (Berriobeiti) |
| "San Cernin" | Iruña |
| "Sebastián Albero" | Iruña |

- DANTZA Iruñeko Eskola BATean irakasten da.

- Artea BI zentrotan irakasten da, Iruñean eta Corellan, Irakaslekuotan honako ziklootako irakaskuntzak ematen dira, Arte Batxilergoaz gain:

| Iruñeko Arte Eskola | Corellako Arte Eskola |
|---|---|
| **Maila ertaineko zikloak** | |
| Arte Ebanisteria | Eraikuntzako akaberak |
| Autoedizioa | |
| **Goi mailako zikloak** | |
| Arte Argazkilaritza | Publizitate Grafika |
| Eskulturari Aplikaturiko Arteak | Altzariak |
| Estanpazio teknikak eta grabatua | Apaintzeko Obren Proiek. eta Zuz.: Interiorismoa |
| AO Proiektuak eta zuz.: Eskaparatismoa eta Eszeno-grafia | |

***Nafarroako Eskola Kontseiluak Nafarroako Foru Komunitatean Musika Ziklo Nagusia ezartzea gomendatu du.***

### 3.4. Helduen hezkuntza.

Oinarrizko irakaskuntzak bi moldetan egin ditzakete adindunek edo, salbuespen gisa, 16 urtetik gorakoek: ikastegira bertaratuz ala urrutitik..

Helduen oinarrizko prestakuntzak hiru maila ditu:

1. Hasierako heziketa, bere beharren arabera pertsona bakoitzak nahi duen denboran jaso ahal izanen da, astean 10 orduz; zortzi modulu izanen ditu hiru zailtasun gradutan sailkaturik: alfabetizazioa, irakurle berriak eta finkapena.
2. Oinarrizko heziketa, hiru esperientzia alorretan banaturik: komunikazioa, matematika eta natur eta gizarte ingurumena. Lau hileko sei modulutan antolatuta dago hori guztia, bi alor bakoitzeko. Bi lauhilekotan irakatsiko da.
3. Bigarren Hezkuntza: bidea emanen du Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzeko; bi ziklotan antolatuko da (bi lauhileko izanen ditu bakoitzak), eta lau esperientzia alor bilduko ditu: komunikazioa, matematika, natur ingurumena eta gizarte ingurumena. Ikasketa hauek lau hileko hogei modulutan banatuko dira, eta lau lauhilekotan (bi ikasturte) irakatsiko dira.

Ikasketa hauek LOGSEk aurreikusitako irakasleek emanen dituzte, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxeetan (I eta II. mailak) eta Bigarren Hezkuntzako Institutuetan (III. maila), eta hala behar izanez gero, urrutiko hezkuntzaren bitartez eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikasgelen bitartez (I eta II. mailak). Ikastetxe hauek eta Ikasgela izenekoak eremu geografikoen arabera antolatuko dira.

Ikastetxe hauek guztiek malgutasuna izanen dute beren eragin esparruko eskakizunei erantzuna ematen ahal izateko.

Helduen hezkuntzako sarea honela egituratuko da:

- Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publiko bat, "José Mª Iribarren", Iruñean. Horretan egotezko modalitateko I eta II. mailak emanen dira. Nafarroa osorako II. mailako urrutiko modalitatea ere emanen du.
- Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publiko bat Tuteran. Horretan egotezko modalitateko I eta II. mailak emanen dira.
- Helduentzako Bigarren Hezkuntzako Institutu bat Iruñean, egotezko eta urrutiko modalitateetako III. mailako irakaskuntzak emateko, Nafarroa osorako. Institutu horretan HSAOL batxilergoko urrutiko irakaskuntzak ere emanen dira Nafarroa osorako
- Tuterako "Benjamín de Tudela" Bigarren Hezkuntzako Institutua: egotezko modalitateko III. mailako irakaskuntzak emanen dira bertan.
- Zenbait eskualdetan, Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzako Ikasgelak egonen dira, haietako bakoitzari atxikitako udalek egituratuak. Honakoak izanen dira: Altsasu, Elizondo/Lekaroze, Lizarra, Zangoza eta Tafalla.
- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak baimena ematen ahal izanen du III. mailako irakaskuntzak emateko zenbait institututan, sor daitezkeen eskakizunei erantzun egokia eman ahal izateko.

28 zenbakiko koadroa
**Helduen Oinarrizko Ikasketak (HOI) eta gaueko nahiz urrutiko Batxilergoa, 1995-2001**

| IKASTURTEA | 95/96 | 96/97 | 97/98 | 98/99 | 99/00 | 00/01 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasleak (orotara)<br>- Alfab. eta irakurle berriak<br>- HSAOL, I. maila | 202 | 219 | 272 | | 376 | 407 |
| - Z. ertaina<br>- HSAOL, II. maila | 164 | 145 | 176 | | 294 | 219 |
| - Goi Z../ G.I/II<br>- HSAOL, III. maila | 1.403 | 1.197 | 1.072 | | 18 | 252(2) |
| - Eskola-graduatua | | | | | 294 | 296 |
| **Oinarrizko prestakuntza, orotara** | **1.769** | **1.561** | **1.520** | | **982** | **1.174** |
| - Atzerritarrentzako gaztelania | | | | | 179 | 398 |
| - Errehabilitazio-taldeak | | | | | 96 | |
| Graduondoko ikasleak (ez-arautua) | 809 | 933 | 966 | | 1.100 | 1.157 |
| IKASLEAK OROTARA | **2.578** | **2.494** | **2.486** | **2.548** | **2.357** | **2.729** |
| HOI-KO IRAKASLEAK<br><br>Helduen irakaskuntza daukaten UDALERRIAK | **57** | **56** | **56** | | **51**<br><br>**24** | **51,5**<br><br>**24** |
| | | | | | | |
| **CENAVEBAD-eko [5] ikasleak** | 66 | 41 | 54 | 46<br>64 libr. | 45 | 124 |
| **INABAD** | 655 | 534 | 520 | 393 | 453 | 235(3) |
| **Gaueko Batxilergoa** | 697 | 650 | 546 | 441 | 443 | 530 |

*Txostengileek eginiko taula..Hezkuntza eta Kultura departamenduak emaniko datuak.*
(1) *Nafarroako Urrutiko Oinarrizko Hezkuntza Zentroa. Aurrekoetan sarturiko datuak.*
(2) *"Félix Urabayen" IESNAPA delakoan urrutiko ikasketa hau jasotzen duten 124 ikasle daude sarturik*
(3) *"Félix Urabayen" IESNAPA delakoan proba librea egiten duten 12 ikasle daude sarturik.*

Gainera, HOI programak bertze hezkuntza programa batzuk harturik ditu barnean, hala nola:
- Atzerritarrentzako gaztelania.
- Graduondoko ikasketa arautugabeak.
- Gizaki proiekturako laguntza, Oasirakoa, Antox-erakoa eta Udal Tailer Eskolentzakoa.
- Iruñeko presondegirako arreta.

29 zenbakiko koadroa
**HOI-ko ikasleak Oinarrizko Heziketan eta Osagarrian**

| | IRUÑA | TUTERA | BARRANKA | LIZARRA | ZANGOZA | TAFALLA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oinarrizko Heziketa OROTARA | 661(1) | 269 | 59 | 127 | 17 | 41 |
| - Atzerritarrentzako gaztelania | 131 | 166 | | 41 | | 60 |
| Graduondoko ikasketa arautugabeetako ikasleak | 827 | 231 | 12 | | | 87 |
| **IKASLEAK OROTARA** | **1.619** | **666** | **71** | **168** | **17** | **188** |
| | **2.729** | | | | | |

[5] Urrutiko Irakaskuntzako Nafarroako Ikastegia. Aurrekoetan jasotako datuak.

**Irakasleak**

Helduentzako Oinarrizko Helduentzako Ikastetxe Publikoetako (HOHIP) eta zonetako irakasleen datuak

30 zenbakiko koadroa
**HOI-ko irakasleak**

| IKASTETXE/ZONAK | IRAKASLE KOPURUA |
|---|---|
| "José Mª Iribarren" HOHIP | 26 |
| Tuterako HOHIP | 10 |
| Altsasu aldea | 2 |
| Lizarraldea | 5 |
| Zangoza aldea | 1 |
| Tafalla aldea | 3 |
| Espetxea | 4,5 |
| **OROTARA** | **51,5** |

31 zenbakiko koadroa
**Eskola graduatuko proba libreak, 2001. urtea. Estatistika-laburpena.**

| Deialdia | 16-19 urte | | 20-24 urte | | 25-34 urte | | 35-44 urte | | 45-54 urte | | 55 urte edo gehiago | | OROTARA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | G | E | G | E | G | E | G | E | G | E | G | E | G | ORO-TARA |
| **Maiatza** | | | | | | | | | | | | | | | |
| Izena eman | 140 | 393 | 32 | 41 | 44 | 52 | 43 | 44 | 22 | 7 | 2 | 2 | 283 | 539 | 822 |
| Aurkeztu | 111 | 323 | 22 | 33 | 34 | 43 | 35 | 34 | 17 | 4 | 1 | 2 | 220 | 439 | 659 |
| Agiria lortu | 65 | 192 | 10 | 18 | 23 | 34 | 24 | 24 | 14 | 3 | 1 | 2 | 137 | 273 | 410 |

***Nafarroako Eskola Kontseiluak helduentzako oinarrizko hezkuntza arautugabea araupetzea gomendatu du.***

### *3.5. Osabidezko Hezkuntza.*

Atal honen barruan sarturik ditugu kulturan eta gizartean bazterturik dauden inguruetatik, etni gutxiengoetatik, nekazaritza-sasoikakoengandik eta abarretatik datozen edo ospitalean luzaroan egon diren ikasleen hezkuntza beharrizanei kasu egiteko Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren programak

**Ikasle etorkinak**

2000-2001 ikasturtean 1.667 ikasle etorkin eskolaratu dira; eta aurreko ikasturtean, 1.062. Beraz, kopuruak %57ko igoera izan du. Zentsu honetan ez daude Espainian jaio diren ikasleak, beraien gurasoak atzerritar jatorrikoak direla ere.

32 zenbakiko koadroa

**Kultur gutxiengoetako ikasleak. 1999/2000 eta 2000/2001 ikasturteak.**

| | Herrialdeak | Ikasleak 1999/2000 ikasturtea | Ikasleak 2000/2001 ikasturtea |
|---|---|---|---|
| MENDEBALDEKO EUROPA | Suitza | 6 | 6 |
| | Italia | 9 | 2 |
| | Ingalaterra | 10 | 4 |
| | Frantzia | 32 | 13 |
| | Andorra | | 1 |
| | Alemania | 15 | 14 |
| | Austria | 1 | |
| | Belgika | 4 | |
| | Holanda | 7 | |
| | Irlanda | 1 | |
| | Suedia | 2 | 1 |
| EKIALDEKO EUROPA | Ukraina | 3 | 9 |
| | Errusia | 19 | 16 |
| | Errumania | 42 | 49 |
| | Polonia | 14 | 12 |
| | Moldavia | 1 | 5 |
| | Hungaria | 3 | 3 |
| | Bulgaria | 6 | 35 |
| | Bosnia | 8 | 13 |
| | Bielorrusia | | 1 |
| | Albania | | 1 |
| | Azerbaijan | | 1 |
| | Yugoslavia | 1 | 1 |
| IPARRAMERIKA | Estatu Batuak | 20 | 19 |
| | Kanada | 1 | 1 |
| IBEROAMERIKA | Venezuela | 13 | 21 |
| | Uruguai | 6 | 1 |
| | El Salvador | 1 | 2 |
| | Peru | 43 | 44 |
| | Mexiko | 13 | 4 |
| | Honduras | 1 | 1 |
| | Guatemala | 7 | 1 |
| | Ekuador | 94 | 435 |
| | Dominikar Errep. | 102 | 121 |
| | Kuba | 26 | 28 |
| | Kolonbia | 124 | 278 |
| | Txile | 36 | 30 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Brasil | 44 | 35 |
| | Bolivia | 5 | 5 |
| | Argentina | 30 | 34 |
| | Costa Rica | 5 | |
| | Nikaragua | 1 | |
| | Panama | 3 | |
| | Paraguai | 4 | |
| | Puerto Rico | 1 | |
| AFRIKA | Ginea | 6 | 7 |
| | Kongo | 1 | 3 |
| | Senegal | 10 | 8 |
| | Sahara | 3 | 6 |
| | Nigeria | 1 | 1 |
| | Mauritania | | 1 |
| | Maroko | 158 | 280 |
| | Ghana | 2 | 2 |
| | Aljeria | 50 | 57 |
| | Angola | 4 | 2 |
| | Cabo Verde | 6 | 4 |
| | Chad | 1 | |
| | Kamerun | | 1 |
| | Liberia | 1 | |
| | Mali | 2 | |
| | Hegoafrika | 2 | 1 |
| | Tunisia | 2 | |
| ASIA | Pakistan | 5 | 15 |
| | Jordania | | 4 |
| | Indonesia | | 1 |
| | India | | 2 |
| | Txina | 22 | 22 |
| | Korea | 1 | |
| | Filipinak | 2 | |
| | Japonia | 10 | |
| | Libano | 2 | |
| | Palestina | 2 | |
| | Vietnam | 1 | |
| OZEANIA | Australia | 2 | 3 |
| | Zeelanda Berria | 2 | |
| **OROTARA** | | **1.062** | **1.667** |

Ikasleon banaketa, ikastetxe mota eta etapakakoa, honakoa izan da:

33 zenbakiko koadroa

**Atzerritar jatorriko ikasleak: Datu globalak 1999-2000 ikasturtea**

| **JATORRIA** | **Ikastetxe publikoak** | | | **Itunpeko Ikastetxeak** | | | **OROTARA** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **HH** | **LH** | **DBH** | **HH** | **LH** | **DBH** | |
| Mendebaldeko Europa | 15 | 29 | 7 | 6 | 20 | 11 | 88 |
| Ekialdeko Europa | 18 | 43 | 7 | 1 | 19 | 8 | 96 |
| Iparramerika | 3 | 3 | - | 3 | 8 | 3 | 20 |
| Afrika | 55 | 117 | 55 | 5 | 8 | 10 | 250 |
| Asia | 3 | 11 | 3 | 4 | 13 | 9 | 43 |
| Iberoamerika | 79 | 207 | 89 | 46 | 93 | 47 | 561 |
| Ozeania | 1 | 2 | - | - | 1 | - | 4 |
| BATURA | 174 | 412 | 161 | 65 | 162 | 88 | 1.062 |
| OROTARA | **747** | | | **315** | | | |
| | **1.062** | | | | | | |

| 34 zenbakiko koadroa<br>**Atzerritar jatorriko ikasleak: Datu globalak, 2000-2001 ikasturtea** | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **JATORRIA** | **Ikastetxe publikoak** | | | **Itunpeko Ikastetxeak** | | | **OROTARA** |
| | **HH** | **LH** | **DBH** | **HH** | **LH** | **DBH** | |
| Mendebaldeko Europa | 7 | 13 | 4 | 3 | 9 | 5 | 41 |
| Ekialdeko Europa | 48 | 20 | 3 | 3 | 51 | 21 | 146 |
| Iparramerika | 2 | 3 | 3 | 2 | 7 | 3 | 20 |
| Afrika | 102 | 219 | 9 | 9 | 14 | 19 | 372 |
| Asia | 3 | 11 | 4 | 4 | 13 | 9 | 44 |
| Iberoamerika | 158 | 416 | 93 | 93 | 186 | 95 | 1.041 |
| Ozeania | 1 | 2 | | | | | 3 |
| BATURA | 321 | 684 | 116 | 114 | 280 | 152 | 1.667 |
| OROTARA | **1.121** | | | **546** | | | |
| | **1.667** | | | | | | |

## Hezkuntza osabidearen beharra duten ikasleak.

Atal honetan sarturik daude eskola atzerapenak agertzen dituzten nazioko edo atzerriko ikasleak, agertzen dituzten hezkuntza beharrizanei aurre egiteko hezkuntza neurriak ezarri ahal edo behar zaizkienak.

2000/2001 ikasturtean 1.774 ikasle sartu dira zentsuan. Beraietarik 914 espainiarrak dira; eta 860, etorkinak.

| | **Haur Hezkuntza** | **Lehen Hezkuntza** | **DBH** | **Derrigorrezkoaren ostekoa** | **OROTARA** |
|---|---|---|---|---|---|
| Publikoa | 238 | 719 | 316 | 9 | 1.282 |
| Itunpekoa | 49 | 292 | 148 | 3 | 492 |
| **OROTARA** | **287** | **1.011** | **464** | **12** | **1.774** |

## Hezkuntza neurriak.

Hezkuntza neurriren bat behar duten 1.774 ikasleetarik 82k, 100eko 46k, pedagogia-indargarria behar dute soilik; eta 952k, 100eko 54k, curriculum egokitzapen esanguratsua edo txit esanguratsua behar dute.

## Gaztelaniaz ez jakitea.

Detektaturiko beharrizanetariko bat hizkuntz baliabideen faltatik datorkie ikasle etorkinei. Jarraian zehazturik dago gaztelaniaz ez dakiten ikasle etorkinen kopurua.

| **Haur Hezkuntza** | **Lehen Hezkuntza** | **DBH** | **Derrigorrezkoaren ostekoa** |
|---|---|---|---|
| 50 | 43 | 23 | 2 |

**Gutxiengoei arreta ematen dieten ikastetxe publikoenganako eta itunpeko ikastetxe pribatuenganako laguntza ekonomikoak.**

Kultur gutxiengoetako ikasleek beren eskola ekipamendua eta materiala erosteko zuten ekonomi gabetasuna arintzeko eta ikasle horiei ikasturte amaierako txango eta kultur irteera eta bisitetan parte hartzen laguntzeko, ikastetxe publikoei ekonomi zuzkidurak bidali zitzaizkien. Ikastetxeak beraiek arduratu ziren jasotako kopuruen bitartez horrelako beharrizanei kasu egiteaz.

Ikastetxeek beren eskaerak finkatu ziren bi moduluren arabera egin zituzten. Bi modulu horiek honakook izan ziren:
- 12.000 pta/ikasle HH/LHn.
- 15.000 pta/ikasle DBHn.

35 zenbakiko koadroa
**Kultur gutxiengoei arreta emateko diru-laguntzak.**

| Aldia/xedapena | Ikastetxe onuradunak | | Ikasle onuradunak | | Zenbatekoa orotara (pta) |
|---|---|---|---|---|---|
| | HH/LH | DBH | HH/LH | DBH | |
| Urriaren 23ko 912/2000 Xedapena | 96 | 25 | 1.158 | 281 | 10.866.600 |
| Martxoaren 9ko 194/2001 Xedapena | 96 | 25 | 1.169 | 281 | 7.376.400 |

**Portuges hizkuntzako programa.**

Portugesari eta Portugalgo Kulturari buruzko Programako jarduerak Iruñeko "Ave María" eta Berriozarko "Mendialdea" ikastetxe publikoetan eta Iruñeko "Ntra. Sra. de la Compasión" itunpeko ikastetxean egin dira, aurreko ikasturtean bezala.

Irakasle portugesak: 3
Ikasle portugesak/portugesdunak: 116
-

Irakasle batek bere lansaioa "Ave María" eta "La Compasión" ikastetxeetan banatu zuen, aurreko ikasturtean bezala.

Portugalgo Administrazioak itunpeko ikastetxeetan Portugesari eta Portugalgo Kulturari buruzko Programaren barruan egiten diren jarduerak (3 edo 4 kasu dira estatu mailan) Hezkuntza Administrazioen kontura egin daitezen nahi du. Auzi hori 19999/2000 ikasturtean sortu zen eta oraindik ez da konpondu. Izan ere, gaian sarturik dauden Autonomietako Hezkuntza Administrazioek uste dute ezen Portugalgo Administrazioari dagokiola gastu hori ordaintzea. Portugalgo Administrazioak, bere aldetik, ez du Atzerriko Hezkuntza Ekintzan itunpeko ikastetxeak irakaslez zuzkitzeko administrazio biderik ikusten.

Ikasturtean zehar Nafarroako eta Euskal Herriko Administrazioen eta ikastetxeen arduradunen eta irakasle portugesen koordinaziorako bi bilera egin ziren Madrilgo Portuges Enbaxadako Hezkuntzarako Erantsia zen Mª Fernanda Antunes doktorearekin.

Bileren lekuak eta datak:
- Iruñeko "Fuerte del Príncipe" Egoitza, 2000ko azaroaren 20a.
- Donostiako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza, 2001eko ekainaren 21a.

**Aldi baterako ikasleak.**

Eskematikoki honela laburtu dugu jarduketa hau

| Mendabia (kanpamentua) | Gelak | Ikasleak | Oharrak |
|---|---|---|---|
| 2000ko mahats-bilketa | 2 | 72<br>(3-14 urtekoak) | *A gela: 3-7 urte.*<br>Erregulartasunez joan ziren.<br>14 ikasle joan ziren, batez beste.<br><br>*B gela: 8-14 urte.*<br>Irregulartasunez joan ziren.<br>25 ikasle joan ziren, batez beste. |

Zainzuriaren tradizioko kanpainak, udaberrian, aurreko urtekoan baino %13 ikasle gutxiago ekarri zituen.

Ikasturte honetan ez zenVergalijoko gela abian jarri behar izan, aurreko ikasturteotan abian jarri behar izan bazen ere.

Sasoikako haurren jatorriak, funtsean, azken urteetako eskemei jarraitu zion. Gehienak Jaéngo probintziatik eta, zehazki Jódarretik zehazki zetozen. 100eko 72,7tik Jódarretik etorri ziren. 100eko 77,5 Jaéngo probintziatik etorri ziren.

Kanpainari buruzko daturik garrantzitsuenak honako koadro honetan ageri dira:

| Datuak bidali zituzten ikastetxeak | Laguntzarako irakasleak | Ikasle kopurua | Ibilera gastuetarako dirulaguntza globala |
|---|---|---|---|
| 29 | 4,5 | 209 | Ekainaren 12ko 547/2001 Ebazpena: 527.500 pta. |

**Ospitaleraturiko ikasleak.**

Ospitaleraturiko haurrekiko eskola laguntzak aurreko ikasturteetakoaren antzeko planteamenduari jarraitu zion. Gizarte Segurantzaren ospitale orokorrean ("Bideko Ama Birjina Ospitalea") aritu zen goizez, eta etxez etxeko irakasle lanetan Iruñean eta Iruñerrian arratsaldez.

Ospitaleko arretarako irakasleak ahalegin handiak egin zituen ospitalean sarturiko zeuden haurren tutorekin harremanetan jartzeko, eta askotan joan zen aholku bila NHBBZko adituengana.

| Aldia | HH | LH | DBH | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| 1. hiruhilekoa | 37 | 44 | 3 | 81 |
| 2. hiruhilekoa | 29 | 36 | 2 | 67 |
| 3. hiruhilekoa | 13 | 27 | 1 | 41 |

*Egonaldi luzeak (hiru aste edo gehiago) "Bideko Ama Birjina" ospitalean.*

| Aldia | HH | LH | DBH | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| 1. hiruhilekoa | 12 | 13 | 1 | 26 |
| 2. hiruhilekoa | 13 | 19 | 1 | 33 |
| 3. hiruhilekoa | 5 | 13 | | 18 |

*Etxez etxeko arreta (Iruña eta Iruñerria)*

| HH | LH | DBH | OROTARA |
|---|---|---|---|
| | 3 | | 3 |

***Inmigraziotik etorririko ikasleek kalitaterik oneneko oinarrizko eta derrigorrezko hezkuntzarako eskubidea dute, gainerako ikasleek bezalakoa, aukera berdintasunaren abiaburua aplikatzeko. Atzerritar jatorriko ikasleak gehiagotzeak Nafarroako hezkuntza panoramari aldaketa nabarmenak ekar diezazkioke. Aldaketoi behar bezala heltzekotan, beharrezko material didaktikoak bilatu beharko dira, eta, bertze alde batetik, giza baliabideak egokitu eta hobetu.***

***Komunitatez kanpoko jatorridun ikasleen ehunekoa handiagoa da ikastetxe publikoetan itunpekoetan baino. Orekarik ez hori aztertzeko kontuan hartu behar da landa-eremuko, hirietako auzoetako eta inguruetako eskolatzearen pisua eta familien eskaria. Izan ere, neurri egokiak hartu behar dira. Edozein kasutan, horrelako ikasleen ehunekoa, handi samarra bada ere, ez beste herri eta erregio batzuetakoa bezain handia. Ikasleon eragina kokaturik dago Erribera inguruan, alde batetik, eta, bertze alde batetik, Iruñean eta Iruñerrian. Hori guztia dela eta, ikasleontzako hezkuntza arreta da Nafarroako hezkuntza sistemak kasu egin behar dion lehentasunetariko bat.***

***Hezkuntza sisteman gutxiengook daudela eta, curriculumetan eta eskola praktikan zeharkako gaiak areagotu behar dira, kulturaniztasunaren aberastasunarekin, gutxiengoen eskubideekiko errespetuarekin eta abarrekin loturiko aztergaiak jorratzen dituztenak.***

***Bertze Departamentu batzuekiko eta bertze toki erakunde batzuekiko baterako programak bultzatu behar dira, bertze eremu batzuetan, gizartean eta familian, aldi bereko arreta eman behar delarik, Osabidezko Hezkuntzako programek espero diren emaitzak izan ditzaten.***

***Irakasleak prestatzeko ahalegin handiak egin behar dira, Ikastetxeetan prestatzea eta eskolaratzeko eta gizarteratzeko esperientziak ezagutzea bultzatuz, ehuneko ikasle anitz eskolaratzen dituzten Ikastetxeetako irakasleen bertze Ikastetxe batzuetako egonaldia barnean sarturik.***

### 3.6. Ikasleak/talde ratioak.

Haur Hezkuntzako 2. zikloko (3,4 eta 5 urte) unitate bakoitzeko “ratioa” poxi bat igo da, bai sektore publikoan bai itunpeko sektorean, demografi igoeraren ondorioz.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 2. zikloan baimendurik dagoen gehieneko “ratioa” 25 ikasle/unitatekoa da; hala ere, sei unitate baino gehiagoko ikastetxe publikoek 20 ikasleren “ratioa” gainditzen dutenean, Haur Hezkuntzako bertze maisu-maistra bat ematen zaie.

Nafarroak 3 eta 6 urte bitarteko ikasle guztiak (%100) ditu eskolaturik, Katalunia, Euskadi eta Errioxak bezala.

6 eta 12 urte bitarteko derrigorrezko etapan, Lehen Hezkuntzan “ratioak” poxi bat behera egin du sektore publikoan eta ikastetxe pribatuetan (batezbestekoa 16,54 ikaslekoa da ikastetxe publikoetan; eta 23,16koa, itunpekoetan.).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Nafarroako “ratioek” estatu mailakoez beheiti jarraitzen dute.

36 zenbakiko koadroa

**Autonomia Erkidegoen eta HKMren lurraldeko ratioak, 1998/99 eta 1999/2000 ikasturteetan[1].**

**Haur Hezkuntza.**

| Lurralde eremua | 1998/99 ikasturtea | | | 1999/2000 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikastetxe publikoak | Ikastetxe pribatuak | Ikastetxe guztiak | Ikastetxe publikoak | Ikastetxe pribatuak | Ikastetxe guztiak |
| Andaluzia | 22,1 | 26,0 | 22,8 | 21,7 | 25,3 | 22,4 |
| Aragoi | 19,7 | 22,6 | 20,6 | 19,1 | 22,2 | 20,1 |
| Asturias | 18,6 | 22,0 | 19,5 | 18,3 | 20,7 | 19,0 |
| Balearrak | 20,0 | 23,2 | 21,2 | 19,4 | 22,9 | 20,7 |
| Kanariak | 20,1 | 22,5 | 20,5 | 19,8 | 23,4 | 20,5 |
| Kantabria | 18,8 | 22,5 | 19,9 | 17,8 | 21,5 | 19,0 |
| Gaztela eta Leon | 18,7 | 21,6 | 19,5 | 18,4 | 20,5 | 19,0 |
| Gaztela-Mantxa | 20,0 | 23,4 | 20,5 | 19,6 | 22,5 | 20,1 |
| Katalunia | 18,6 | 18,1 | 18,4 | 18,7 | 18,2 | 18,5 |
| Extremadura | 19,6 | 25,9 | 20,5 | 19,2 | 23,8 | 19,9 |
| Galizia | 16,8 | 21,3 | 17,9 | 15,7 | 21,1 | 17,0 |
| Madril | 19,6 | 22,3 | 20,6 | 18,8 | 22,1 | 20,0 |
| Murtzia | 20,4 | 23,4 | 21,1 | 20,0 | 22,5 | 20,6 |
| ***Nafarroa*** | ***17,1*** | ***21,8*** | ***18,7*** | ***16,8*** | ***22,1*** | ***18,5*** |
| Euskadi | 15,9 | 19,3 | 17,3 | 15,9 | 19,3 | 17.4 |
| Errioxa | 20,3 | 21,3 | 20,6 | 20,3 | 21,2 | 20,6 |
| Valentzia | 19,0 | 21,8 | 19,8 | 21,6 | 22,1 | 21,8 |
| Ceuta | 28,0 | 25,7 | 27,4 | 26,6 | 26,0 | 26,5 |
| Melilla | 24,8 | 26,1 | 25,0 | 24,5 | 27,5 | 25,0 |
| **Orotara** | **19,5** | **21,2** | **20,0** | **19,4** | **21,0** | **19,9** |

[1]*Estatuko Eskola Kontseiluaren Hezkuntza Sistemari buruzko 1998/1999 eta 1999/2000 ikasturteetako Txostenetik bilduriko datuak.*

**Lehen Hezkuntza.**

| Lurralde eremua | 1998/99 ikasturtea | | | 1999/2000 ikasturtea[1] | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikastetxe publikoak | Ikastetxe pribatuak[2] | Ikastetxe guztiak | Ikastetxe publikoak | Ikastetxe pribatuak | Ikastetxe guztiak |
| Andaluzia | 21,1 | 27,9 | 22,5 | 21,3 | 27,0 | 22,5 |
| Aragoi | 17,0 | 24,0 | 19,2 | 16,7 | 23,6 | 18,8 |
| Asturias | 16,8 | 23,1 | 18,4 | 16,5 | 22,4 | 18,1 |
| Balearrak | 22,7 | 27,7 | 24,5 | 22,4 | 27,5 | 24,2 |
| Kanariak | 20.7 | 25,7 | 21,7 | 20,5 | 25,4 | 21,5 |
| Kantabria | 17,4 | 22,3 | 19,1 | 16,8 | 22,1 | 18,6 |
| Gaztela eta Leon | 16,5 | 23,4 | 18,3 | 16,1 | 22,8 | 17,8 |
| Gaztela-Mantxa | 20,4 | 26,0 | 21,3 | 20,0 | 25,9 | 20,9 |
| Katalunia | 20,0 | 24,0 | 21,5 | 20,0 | 23,9 | 21,5 |
| Extremadura | 19,7 | 27,2 | 20,9 | 19,2 | 26,6 | 20,3 |
| Galizia | 16,8 | 23,6 | 18,3 | 16,6 | 23,0 | 18,0 |
| Madril | 22,0 | 25,4 | 23,4 | 21,8 | 25,3 | 23,3 |
| Murtzia | 21,4 | 26,1 | 22,4 | 21,1 | 25,8 | 22,2 |
| ***Nafarroa*** | ***16,8*** | ***23,9*** | ***19,1*** | ***16,7*** | ***23,4*** | ***18,9*** |
| Euskadi | 16,0 | 22,2 | 18,9 | 16,1 | 21,7 | 18,7 |
| Errioxa | 18,7 | 24,8 | 20,6 | 18,7 | 24,4 | 20,4 |
| Valentzia | 21,1 | 25,0 | 22,2 | 20,7 | 24,8 | 21,9 |
| Ceuta | 27,4 | 29,9 | 28.1 | 27,3 | 29,8 | 28,0 |
| Melilla | 24,4 | 25,0 | 24,5 | 25,1 | 26,4 | 25,3 |
| **Orotara** | **19,9** | **25,0** | **21,3** | **19,8** | **24,6** | **21,2** |

(1) Atal honetan sarturik daude Haur Hezkuntzako eta DBHko lehen zikloko ikasleak dauden Lehen Hezkuntzako unitate mistoak ere.

(2) Bertan sarturik daude itunpeko ikastetxeak eta itunpekoak ez direnak.

**Bigarren Hezkuntza.**

| Autonomia Erkidegoa | 1998/1999 ikasturtea | | | | 1999/2000 ikasturtea | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Lehen Zikloa | | Bigarren Zikloa | | Lehen Zikloa | | Bigarren Zikloa | |
| | Publikoak | Pribatuak | Publikoak | Pribatuak | Publikoak | Pribatuak | Publikoak | Pribatuak |
| Andaluzia | 25,1 | 31,6 | 27,8 | 29,3 | 25,5 | 31,7 | 27,5 | 30,7 |
| Aragoi | 25,5 | 27,5 | 26,2 | 27,2 | 24,3 | 26,8 | 25,2 | 26,5 |
| Asturias | 23,9 | 28,1 | 26,4 | 27,6 | 23,4 | 27,7 | 25,4 | 27,0 |
| Baleareak | 26,0 | 30,6 | 26,3 | 28,1 | 24,8 | 30,3 | 25,2 | 27,7 |
| Kanariak | 23,3 | 27,0 | 25,8 | 25,3 | 23,4 | 27,5 | 25,2 | 24,8 |
| Kantabria | 22,6 | 27,8 | 28,0 | 28,9 | 22,3 | 26,4 | 25,2 | 27,8 |
| Gaztela eta Leon | 23,6 | 27,6 | 26,6 | 26,7 | 22,6 | 27,1 | 25,7 | 26,4 |
| Gaztela-Mantxa | 24,5 | 29,1 | 27,3 | 27,6 | 24,0 | 28,5 | 26,7 | 26,6 |
| **BH GUZTIRA** | **565** | **573** | **700** | **733** | **566** |
| Maisu-maistrak | 282 | 292 | 283 | 385 | 547 |
| DBHko maisu-maistrak | 61 | 72 | 60 | 64 | 42 |
| **IRAKASLEAK GUZTIRA** | **343** | **364** | **343** | **449** | **589** |
| **GUZTIZKOAK** | **908** | **937** | **1.043** | **1.182** | **1155** |

* Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Psikologia eta Pedagogiako espezialitatean eskola-orientatzaileak sartuta daudela eta, espezialitate honetako langile kontratazioa "Bigarren Hezkuntzako Irakasleak" izeneko atalean konputaturik dago.

**Erlijio-irakasleak kontratatzea**:

Nafarroako Foru Komunitateak abuztuaren 4ko 1477/2000 Errege Dekretuaren bitartez erlijio eta moral irakaskuntza katolikoetako lanpostuen transferentziak bereganatu zituenetik, eta abenduaren 30eko 50/1998 Legeak gehituriko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriko hirugarren ahapaldian ezarririkoarekin bat etorririk, Nafarroako Gobernuari dagokio irakas-funtzionarioen Kidegoetakoak ez diren eta HSAOL Legean bertan araupeturiko irakaskuntzak garatzen diren ikastetxe publikoetan erlijioa irakasten duten irakasleak denbora osoan edo partzialean iraupen zehatzeko eta ikasturtearekin baterako lan araubidean kontratatzea.

2000/2001 ikasturtekoari dagokion kontratazioa honakoa da, kontuan harturik ezen kontratazioetako lansaio osoak aipatu direla lansaio osoak baino laburragoak diren lansaioetako kontraturik sinatuz gero hori betetzeko beharrezkoak siren irakasleak kontuan hartu barik:

47 zenbakiko koadroa
**Erlijio-irakasleak kontratatzea, 2000-01 ikasturtea**

| | 2000/2001 ikasturtea |
|---|---|
| Bigarren Hezkuntza | 55'5 |
| Lehen Hezkuntza | 94 |

**Lanpostuak betetzea**

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen gehigarriaren laugarren idatz-zatiak ezarririkoarekin bat etorririk, hezkuntza administrazio publiko eskudunek nazio mailan leku-aldatzeko lehiaketak deitu eta funtzionario irakasle guztiek hartzen ahal izanen dute parte haietan, edozein dela ere zerbitzuan ari diren edo lanera sartu ziren hezkuntza administrazioa. Aipatu xedapena garatzeko, urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuak 1. artikuluan ondokoa xedatu zuenez, "hezkuntza administrazio eskudunek nazio mailako lekualdatze lehiaketak deituko dituzte bi urtez behin irakasleen kidegoko lanpostuak betetzeko”.

Nafarroako Foru Komunitatean lekualdaketetarako lehiaketa egin zen 1999/2000 ikasturtean. Hori dela eta, ikasturte honetan nazio mailako lehiaketa egin behar da aipatu arauek aginduta. Ondoriootarako eta 2112/1998 Errege Dekretuaren 5. artikulua aplikatzeko, 2000ko urriaren 2ko Aginduaren bitartez onetsi ziren 2000/2001 ikasturtean zehar deitzekoak ziren nazio mailako lekualdaketa lehiaketei aplikatzen ahal zitzaizkien prozedura arauak.

Araudi hori betetzeko, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak honako deialdiok onetsi ditu:

**Maisu-maistren Kidegoa**

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 6ko 367/2000 Foru Agindua zela bide, maisu-maistren lanpostuak betetzeko honako deialdi hauek onetsi ziren Nafarroako Foru Komunitatean (urriaren 23ko 128 zenbakiko :bon.a):

- Ikastetxeko atxikipen deialdia.
- Lehentasunezko eskubidearen deialdia.
- Lekualdaketa lehiaketen deialdia.

Deialdi horietan, honako irakasle kopuru hauek parte hartu zuten:

| | |
|---|---|
| - Ikastetxeko atxikipen deialdia: | 7 |
| - Lehentasunezko eskubidearen deialdia | 1 |
| - Lekualdaketa lehiaketen deialdia: | 338 |
| - Bazter gelditutakoak | -1 |
| - OROTARA | 346 |

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 1eko 197/2001 Foru Agindua zela bide (ekainaren 20ko 75 zenbakiko :bon.a), behin betiko izaeraz ebatzi ziren deialdi horiek, eta honako emaitza atera zen:

| | |
|---|---|
| - Ikastetxeko atxikipen deialdia: | 6 |
| - Lehentasunezko eskubidearen deialdia: | 1 |
| - Lekualdaketa lehiaketen deialdia: | 89 |
| - Behin-betiko destinoa lortu duten maisu-maistrak GUZTIRA: | 96 |

Bertze 48 maisu-maistrak behin-behineko destinoa dute.

| | |
|---|---|
| - Nafarroan geratu diren maisu-maistrak | 55 |
| - Nafarroatik irten diren maisu-maistrak | 12 |
| - Nafarroara etorri diren maisu-maistrak | 29 |
| - Behin-betiko destinoa lortu duten maisu-maistrak | 14 |

**Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Araubide Bereziko Irakaskuntzetako irakasleen kidegoak.**

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 6ko 368/2000 Foru Agindua zela bide (urriaren 30eko 131 zenbakiko :bon.a eta urriaren 31ko 261 zenbakiko EAO), Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Arte eta Hizkuntzen Irakaskuntzetako irakasleen kidegoetan sarturik dauden irakaskuntzako funtzionarioak birbanatzeko eta lanpostuak betetzeko deialdia onetsi zen.

Deialdi horretan parte hartzeari buruzko datuak ondokoak dira:

| | |
|---|---|
| - Derrigorrezkoak | 233 |
| - Borondatezkoak | 257 |
| - Bazter gelditutakoak | - 4 |
| - GUZTIRA | 490 |

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 1eko 198/2001 Foru Aginduak (ekainaren 27ko 78 zenbakiko :bon.a) ebatzi zuen deialdia behin betiko izaeraz, eta ondoko emaitza atera zen:

| | |
|---|---|
| - Bigarren Hezkuntzako irakasleak | 41 |
| - Lanbide Heziketako irakasle teknikoak | 6 |
| - Arte Plastiko eta Diseinuko irakasleak | 1 |
| Behin-betiko destinoa lortu zuten irakasleak GUZTIRA | 48 |

| | | |
|---|---|---|
| - | Nafarroan geratu direnak | 12 |
| - | Nafarroatik irten direnak | 26 |
| - | Nafarroara etorri direnak | 36 |
| - | Behin-betiko destinoa lortu dutenak | 120 |

Adieraziriko Kidegoetako bertze 116 irakaslek behin-behineko destinoa dute.

**Hezkuntza-ikuskarien Kidegoa**

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 6ko 369/2000 Foru Aginduaren bitartez (urriaren 30eko 131 zenbakiko :bon.a eta urriaren 31ko 261 zenbakiko EAO) onetsi zen Hezkuntza Administrazioaren zerbitzurako Ikuskari Kidegoetako eta Hezkuntza-ikuskarien Kidegoko funtzionarioak lekuz aldatzeko lehiaketen deialdia.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 6ko 68/2001 Foru Aginduaren bitartez (apirilaren 2ko 41 zenbakiko :bon.a) amaiera eman zitzaion aipaturiko deialdiari, betetzeko lanpostutsik eta ondoriorik sortzen ahal zuen parte-hartzailerik ez zegoelako.

**Zuzendaritzan jarduteko kreditazioaren deialdia**

Ikastetxeetako parte-hartze, ebaluazio eta gobernuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren 18. artikuluak, zuzendaria izateko beste beharkizun batzuen artean, honako hau ezarri du: Hezkuntza administrazioek kreditazioa ematea zuzendaritza eginkizunetan jarduteko; 19. artikuluak, aldiz, kreditazioa emateko jarraibide orokorrak ezarri ditu.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren azaroaren 3ko 404/2000 Foru Aginduaaren bitartez (azaroaren 24ko 142 zenbakidun :bon.a), irakasleek ikastetxeetako zuzendaritzan jarduteko kreditazioaren deialdia onetsi zen.

Deialdi horretan, honako irakasle-kopuru hauek parte hartu zuten:

| | |
|---|---|
| - Bigarren Hezkuntzako irakasleak | 6 |
| - Hizkuntz Eskola Ofizialetako irakasleak | 1 |
| - Maisu-maistrak | 5 |
| GUZTIRA | 12 |

Hezkuntza zuzendari nagusiaren ekaineko 15eko 591/2001 Ebazpenaren bitartez (irailaren 28ko 118 zenbakidun :bon.a), ikastetxe publikoetan zuzendaritza eginkizunetan jardun dezaketen irakasleen zerrenda onetsi zen, eta honako emaitza atera zen:

| | |
|---|---|
| - Bigarren Hezkuntzako irakasleak | 6 |
| - Hizkuntz Eskola Ofizialetako irakasleak | 1 |
| - Maisu-maistrak | 5 |
| GUZTIRA | 12 |

**Unibertsitatez bertzeko irakasleen Sektoreko Mahaia.**

2000/2001 ikasturtean zehar, kudeaketa gai arruntak aztertzeaz gain, negoziazio bat burutu da unibertsitatez bertzeko irakasleen sektoreko mahaiaren baitan. Hori dela bide, 2001eko maiatzaren 31n sinatu da "Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza zerbitzua hobetzeko ituna" (irailaren 24ko 116 zenbakidun :bon.a) AFAPNA, CC.OO., CSI-CSIF eta FETE-UGT sindikatuen ordezkarien eta Hezkuntza Administrazioaren ordezkarien artean. Lehenengoak mahai honetako 57, 44 irakasleren ordezkariak dira. Denborari dagokionez, Itunak sinatu denetik 2004/2005 ikasturtea amaitu arte izanen du indarra.

Aipatu Ituna, bere sarreraren arabera, "Nafarroan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen zikloa ezartzeagatik irakasleak berriro banatze"ari buruzko 1993ko Itunaren eta "Hezkuntza eta Kultura Departamentua titular duten ikastetxeetan Heziketa, Batxilergo eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bigarren zikloa ezartzeko baldintzei" buruzko 1998ko Itunaren jarraitzailea da. Izan ere, itun horien indarraldia amaitua zen. Hala ere, haiek irakasleei buruz ezarririko lan baldintzak eta antolakuntza neurriak mantendu dira, Itun berrian berriro ikusi eta negoziatu ez badira.

Itunean aipaturik dauden neurri berriei dagokienez, honakook nabarmentzen ahal dira:

- Taldeak prestatzeko, HPBdun ikasle bakoitza, behar bezala zentsuratua, 2 ikasle adinakoa da.
- Ingelesaren irakaskuntza indartu behar da Haur eta Lehen Hezkuntzan: hizkuntza hori zehazten diren curriculum irakasgai edo arloetan ikas-irakasteko hizkuntza bezala erabiltzea bultzatu behar da; asteko bi ordurekin bultzatuko da hori. Halaber, taldearen tutoreak bi ordu horietan eginen dituen funtzioak ezarri dira, hala nola, atzerritar ikasleen gaztelania indartzea, gizarte edo kultur egoera baztertuak bizi dituzten edo bi ikasmaila edo gehiagoko curriculum desfasea duten ikasleentzako arreta areagotzea, dibertsitatearekiko arreta era arruntean indartzea eta teknologia berriak koordinatzea.
- Neurri hori 2001/2002 ikasturtean ezarriko da probatzeko ikastetxe zehatz batzuetan. Neurri hori mailaka aplikatzeko egutegi bat ezarri da, harik eta hura irakaskuntza guztietan aplikatu arte.
- Bederatzi unitate baino gutxiagoko Ikastetxe Publikoetan tutore adituaren figura sortu behar da.
- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako zentroetan teknologia berrien arduradunaren figura sortu behar da.
- Maisu-maistren Kidegoarentzat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen zikloa plaza hutsak gordetzeko irizpideak ezarri behar dira, baita balizko zehatz batzuetan aplikatzeko lekualdaketa irizpideak ere.
- Lekualdaketa lehiaketen baremoen ondorioetarako betegaitz diren eta, beraz, zailtasun berezikotzat hartzen ahal diren plazak aztertzea.
- Aldi baterako langileei dagokienez, langileok hautatzeko sistema berri bateko oinarriak ezarri dira, baita langilegaien zerrendako kudeatzeko sistemakoak ere. Nabarmentzekoa

denez, aldi baterako irakasleak betegaitz diren postu eta programetan egoten ahal izanen dira.

- HSAOL legearen arabera jubilazio pentsioa jasotzeko baldintzak eta haren zenbatekoa eguneratu behar dira.
- Irakasleak prestatzeari dagokionez, neurri batzuk bereizi behar dira Lanbide Heziketan, euskarazko heziketan eta birziklapenean eta heziketa eskubidean eta betebeharrean. Prestakuntzaz arduratzen diren irakasleek, hura beraien espezialitatearekin loturik badago, astean zenbatzeko ordu osagarritzat harturikoetarik 35 ordu eman behar dituzte astean prestatzen.
- Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sare telematikoa zabaldu eta orokortzeko baldintzak zehaztu dira.
- Halaber, herri fondoz eutsitako ikastetxeetan eskolatzeari, ikasle etorkinentzako arretari, langile ordezpenei eta lan osasunari buruzko neurriak adostu dira.
- Azkenik, Jarraipen Batzorde bat sortu da, Ituna interpretatu eta Itunak eratxikitzen dizkion gaiak aztertzea eginkizun nagusi duena.

***Nafarroako Eskola Kontseiluak oso ontzat jo ditu akordiook. Izan ere, 1993az geroztik Nafarroako Foru Komunitatean HSAOL Legea lasaitasun eta adostasun giroan ezartzen ahal izan da, eta, gainera, zenbatekotzen ahal diren adierazkariei dagokienean, kalitate ononarekin.***

***Nafarroako Eskola Kontseiluak azken itun horretan emaniko bultzada nabarmendu du. Izan ere, bertan bultzatu da ingelesa ikas-irakastea, ikasle etorkinei edo, orokorrean, gizarte-ekonomiazko egoera baztertuan dauden ikasleei eman beharreko hezkuntza arreta ematea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezartzea eta irakasleak prestatzea.***

**Unibertsitatez bertzeko irakasleen Segurtasun eta Osasun batzordea.**

Apirilaren 20ko 135/1998 Foru Dekretuak xedatu duenaren arabera zehaztuta dago unibertsitatez bertzeko irakasleen Segurtasun eta Osasun batzordearen osaera; eta, 1999ko maiatzaren 12an eginiko hauteskundeen emaitzaren arabera, honelakoa da

| | |
|---|---|
| CC.OO. | 2 |
| CSI-CSIF | 2 |
| AFAPNA | 1 |
| ELA-STV | 1 |
| FETE-UGT | 1 |
| LAB | 1 |
| STEE-EILAS | 1 |

Batzordeak hiru bilera egin ditu eta honako gai hauek jorratu dira haietan:

- Irakasleengan arrisku psikosozialak detektatu eta ebaluatzea.
- Langileen istripu eta ezbeharren gaineko 2000ko hirugarren hiruhilekoko estatistika.
- Lan Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuaren jarduketaren bilakaera.

48 zenbakiko koadroa

**Sektore publikoaren lan osasunari buruzko datuak, 2000koak**

| 2000n gertaturiko baja-aldiak guztira, lanpostuaren arabera sailkaturik | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Lanpostu taldekatuak** | **Lan istripua** | **Lanbide gaixotasuna** | **Lanez kanpoko istripua** | **OROTARA** |
| **Maisu-maistrak (HH, LH eta DBH)** | 16 | | 654 | 670 |
| **Bigarren Mailako irakasleak, irakasle teknikoak eta Hezkuntza Berezietakoak** | 15 | 1 | 678 | 694 |
| **Hezkuntza-laguntzaileak** | 1 | | 23 | 24 |
| **Administrariak eta ad. laguntz.** | | | 102 | 102 |
| **Zerbitzu orokorrak eta atezainak** | 6 | | 127 | 133 |
| **Irakaskuntzakoak ez diren bertze postu batzuk** | 10 | 3 | 631 | 644 |
| OROTARA | **48** | **4** | **2.215** | **2.267** |

**Bajen prebalentzia**

| | Urt | Ots | Mar | Api | Mai | Eka | Uzt | Abu | Ira | Urr | Aza | Abe |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IRAKASLEAK** | **234** | **213** | **197** | **149** | **199** | **147** | **79** | **56** | **90** | **134** | **154** | **101** |
| **Langile guztien ehunekoa** | 4,03 | 3,67 | 3,40 | 2,57 | 3,43 | 2,53 | 1,36 | 0,97 | 1,55 | 2,31 | 2,66 | 1,74 |
| **EZ-IRAKASLEAK** | **92** | **89** | **73** | **51** | **62** | **66** | **32** | **34** | **40** | **62** | **44** | **38** |
| **Langile guztien ehunekoa** | 8,36 | 8,09 | 6,64 | 4,64 | 5,64 | 6,00 | 2,91 | 3,09 | 3,64 | 5,64 | 4,00 | 3,45 |
| **GUZTIRA** | **326** | **302** | **270** | **200** | **261** | **213** | **111** | **90** | **130** | **196** | **198** | **139** |
| **Guztizko langileen ehunekoa** | 4,72 | 4,38 | 3,91 | 2,90 | 3,78 | 3,09 | 1,61 | 1,30 | 1,88 | 2,84 | 2,87 | 2,01 |

**Tramitaturiko baja-aldien iraupena, egun-tarteetan adierazita**

| 10 egunetik beh. | | 10-29 egun | | 30-59 egun | | 60-99 egun | | 100 egunetik gora | | OROTARA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Arrunt.** | **Lanb.** | **Arrunt.** | **Lanb.** | **Arrunt.** | **Lanb.** | **Arrunt.** | **Lanb.** | **Arrunt.** | **Lanb.** | **Arrunt.** | **Lanb.** |
| 1.047 | 20 | 565 | 17 | 241 | 6 | 138 | 3 | 133 | 6 | 2.124 | 52 |

**Arrunt.**: Gaixotasun arrunta eta lanekoa ez den istripua.
**Lanb.**: Lanbide gaixotasuna eta lan istripua.

**Jubilazioak.**

49 zenbakiko koadroa

**Jubilazioak, 2000-01 ikasturtean**

| 2000/01 ikasturtea | Derrig. jubilazioa | HSAOL jubilazioa | Ezintasuna | OROTARA |
|---|---|---|---|---|
| **Maisu-maistren kidegoa** | 3 | 45 | 4 | 52 |
| **Arloko H. eta Araubide Berezia** | 5 | 9 | 1 | 15 |
| **GUZTIRA** | 8 | 54 | 5 | 67 |

Horiez gain, 2 maisu-maistrak izan dute baja heriotza dela eta.

**Erantzukizun zibila.**

Hezkuntzaren alorreko erantzukizun zibila oro har Kode Zibilaren 1903 eta 1904. artikuluetan ezarrita dagoena izanen da, urtarrilaren 7ko 1/1991 Legeak sarturiko aldaketen arabera.

Oro har, esan daiteke ezen erantzukizun zibilaren araubidea bat eta bera dela unibertsitatez bertzeko ikastetxe mota guztietarako, publikoak nahiz pribatuak izan; halaber, erantzukizuna zuzenean dagokio kasuan kasuko ikastetxe pribatu bateko titularrari edo Administrazioari –ikastetxe publikoetan–. Horiek izanen dira behar diren antolakuntza neurriak ezarri beharko dituztenak; hala ere, aldez aurretik ezarritako kasuetan (1904. artikulua), titularrak irakasleei eskatzen ahal izanen die ordaindutako zenbatekoa.

Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileei dagokienez, Nafarroako Gobernuak erantzukizun zibileko kontratu bat du izenpetua; haren bitartez, Nafarroako Foru Komunitatearen erantzukizun zibilak bermatuta daude, besteak beste, irakasleek beren lanbidearen jardunean egiten dituzten akats, ekintza edo hutsegiteen kasuetan.

Aseguruaren barruko kudeaketa Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuak egiten du. Bertan horrelako 12 espediente tramitatu dira.

## 4.2. Itunpeko Ikastetxeetako irakasleak.

**a) Bilakaera.**

Beheko taulan ageri diren datuetan, irakasle guztien gutxi gorabeherako kopuruaren lansaio osoak bereizten dira. Izan ere, irakasle horiek guztiak ez dira lansaio osoan jarduten duteneko ikastetxeek kontratatuak. Bertze alde batetik, irakasle horiek irakaskuntza kidegoetan antolaturik ez daudenez gero, datuak irakasleek ematen dituzten irakaskuntzen arabera adierazi dira.

**Itunpeko ikastetxeetako irakasleak (Lansaio osoak)**

50 zenbakiko koadroa
**Itunpeko Ikastetxeetako irakasleen kontratazioaren bilakaera, 1997-97 ikasturtetik 2000-01 ikasturtera artekoa**

| | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 | 1999/00 | 2000/01 |
|---|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | | | 267 | 280 | 282 |
| Oinarrizko Hezkuntza | 657 | 657 | 670 | 693 | 693 |
| DBH 1 | 246 | 254 | 259 | 254 | 263 |
| DBH 2 | 116 | 227 | 267 | 273 | 287 |
| BBB / Batxilergoa | 149 | 75 | 77 | 158 | 159 |
| LH I | 51 | 19 | | | |
| LH II | 94 | 95 | 58 | 29 | 5 |
| Maila ertaineko HZ | 5 | 10 | 22 | 34 | 39 |
| Goi-mailako HZ | 4 | 7 | 17 | 32 | 45 |
| Hezkuntza Berezia | 31 | 31 | 31 | 35 | 35 |
| **Lansaio osoak guztira** | **1.353** | **1.375** | **1.668** | **1.788** | **1.808** |
| | | | | | |
| **Irakasle kopurua, ggb** | **1.625** | **1.650** | **1.950** | **1.975** | **2.020** |

**b) Negoziazio kolektiboa.**

Negoziazio kolektiboari dagokionez, Nafarroako irakaskuntza pribatuaren sektorea bi arlotan bereizten da: estatu mailako hitzarmen kolektiboei atxikitakoa eta ikastolen arloa. Azken arlo hori Nafarroako Foru Komunitatean dauden ikastolei dagokie.

Nazio mailako hitzarmen kolektiboari dagokionez, oraindik dago indarrean "Fondo publikoen kontura osorik edo zatika diharduten irakaskuntza pribatuko enpresen IV. hitzarmen kolektiboa". Hitzarmenak 2003ko abenduaren 31 arteko indarra izanen du.

Bertze alde batetik, Ikastolen arloko 2001eko Lan hitzarmen kolektiboa negoziatzeko bidean dago eta indarrean dirau 2000rako sinaturiko Hitzarmenak, 2000ko Hitzarmenaren 5. artikuluan xedaturikoari jarraiki.

51 zenbakiko koadroa

**Itunpeko irakaskuntza pribatuaren alokairu-taulen bilakaera, 1996 eta 2001 bitartekoa**

| Urtea | Kontzeptua | Haur Hezkuntzako irakasleak | L. Hezkuntza, DBH1 eta H. Bereziko irakasleak | DBH2-Batxilergoko irakasleak | LH Ieko irakasleak | LH II LHBEM eta LHBGMko irakasleak | LHko irakasle laguntzaileak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1996 | Soldata/hileko | 202.650 | 202.650 | 231.469 | 231.469 | 231.469 | 205.691 |
| | Antzinatasuna | 5.169 | 5.169 | 6.485 | 5.545 | 6.239 | 5.545 |
| 1997 | Soldata/hileko | 209.945 | 209.945 | 239.802 | 239.802 | 239.802 | 213.096 |
| | Antzinatasuna | 5.169 | 5.169 | 6.485 | 5.545 | 6.239 | 5.545 |
| 1998 | Soldata/hileko | 216.453 | 216.453 | 247.236 | 247.236 | 247.236 | 219.702 |
| | Antzinatasuna | 5.329 | 5.329 | 6.686 | 5.717 | 6.432 | 5.717 |
| 1999 | Soldata/hileko | 224.678 | 224.678 | 256.631 | | 256.631 | 228.051 |
| | Antzinatasuna | 5.532 | 5.532 | 6.940 | | 6.676 | 6.150 |
| | Batxilergo Konp. | | | 13.467 | | | |
| 2000 (1) | Soldata/hileko | 230.295 | 230.295 | 263.047 | | 263.047 | 233.752 |
| | Antzinatasuna | 5.670 | 5.670 | 7.113 | | 6.843 | 6.304 |
| | Batxilergo Konp. | | | 13.467 | | | |
| 2001 | Soldata/hileko | 242.570 | 242.570 | 279.697 | | 279.698 | 248.549 |
| | Antzinatasuna | 5.670 | 5.670 | 7.115 | | 6.843 | 6.304 |
| | Batxilergo Konp. | | | 13.467 | | | |
| | DBH1. zik. konp. | | 5.561 | | | | |

(1) Oharra: soldata gordinak

Ikastolen sektoreari dagokionez, irakasleentzako 2001erako alokairu taulak ez dira eguneratu. Izan ere, lehen esan dugun bezala, ekitaldi horretarako Hitzarmen Kolektiboa negoziatzeko bidean dago. Oharrarazpen horren ondoren, ordainsariok ageri diren taula erakutsiko dugu.

52 zenbakiko koadroa
**Ikastolen sektoreko irakasleen ordainsariak, 2001ean**

| | | Oinarrizko soldata | Antzinatasuna |
|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza | Irakasle titularra | 3.306.326 | 83.854 |
| | Irakasle aditua | 3.020.829 | 83.854 |
| DBH | 1. zikloko irakaslea | 3.390.326 | 83.854 |
| | 2. zikloko irakaslea | 3.769.727 | 99.104 |
| Batxilergoa | Irakasle titularra | 3.769.727 | 99.104 |
| Psikologoak eta pedagogoak | | 3.769.727 | 99.104 |

**Itunpeko irakaskuntzaren arloan hezkuntzaren kalitatea eta lan baldintzak progresiboki hobetzeko akordioa.**

2000/2001 ikasturtean zehar iritsi zen "Itunpeko irakaskuntzaren arloan hezkuntzaren kalitatea eta lan baldintzak progresiboki hobetzeko akordioa", honako tramitazio honi jarraitu ziona:

Nafarroako 2001eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legearen 35. artikuluak Nafarroako Gobernuari ahalmena eman zion bertan finkaturiko kuotak eta modulu ekonomikoak aldarazteko, aipatu 19/2000 Foru Legean onetsiriko aurrekontu kredituen mugarekin, "Irakaskuntza Pribaturako Diru-laguntzak" izeneko proiektuan, zertarako-eta honakook finkatzeko: ordainsari gehikuntzak itunpeko hezkuntza bakoitzean indarrean dagoen ikasketa plana emateko egokiak diren itunpeko unitate/irakasle harremanak, antzinatasuna, zuzendari karguaren osakinak eta hezkuntzaren kalitatea hobetzea ahalbidetzen duten bertze alderdiak. Aldarazpen hori itunpeko irakaskuntzaren sektorearekiko aurretiko akordio batek baldintzaturik zegoen.

2000ko azaroaren 23an "Itunpeko irakaskuntzaren arloan gizarte hobekuntzak eta hezkuntza kalitatearen hobekuntza negoziatzeko oinarri akordioa" sinatu zen. Akordio hori Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eta Nafarroako enpresa erakundeen itunpeko irakaskuntza titularren artean iritsi zen itunpeko irakaskuntzaren enpresa-ordezkarien eta arloko sindikatuen artean sinatu ondoren datorren negoziazioan errespetatu behar den ekonomi markoa ezartzeko.

Gero, 2000ko abenduaren 20an, "Itunpeko irakaskuntzaren arloan hezkuntzaren kalitatea eta lan baldintzak progresiboki hobetzeko akordioa" sinatu zen sindikatuen ordezkarien eta Nafarroako itunpeko irakaskuntza pribatuaren arloko ugazaben eta titularren artean. Akordio hori Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuari bidali zitzaion beregana zezan.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egiaztatu zuen ezen 2000ko abenduaren 20ko akordio hori bat zetorrela 2000ko azaroaren 23ko Oinarri Akordioan xedaturikoarekin, bai ekonomi eta denbora eremuan bai akordio horretan ezarririko hiru jarduketa eremuetan. Nafarroako Gobernuak, 2001eko martxoaren 5ean eginiko bileran, 2001eko martxoaren 5eko Erabakia onetsi du, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari "Itunpeko irakaskuntzaren arloan hezkun-

tzaren kalitatea eta lan baldintzak progresiboki hobetzeko akordioa" bereganatzeko, betearazteko eta jarraitzeko ahalmena eman diona.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, 2000ko abenduaren 20ko Akordioaren edukia ikusirik, Nafarroako Gobernuari eginiko guztia bidali zion, eta martxoaren 12ko 66/2001 Foru Dekretuaren bitartez aldarazi ziren aipaturiko Foru Legean ezarririko kuotak eta modulu ekonomikoak, "Irakaskuntza Pribaturako Diru-laguntzak" izeneko proiektuan foru lege horretan onetsiriko aurrekontu kredituen muga gainditu ez zela egiaztatu ondoren.

Horrezaz guztiaz gain, Akordioan aipaturik honakook daude:
- 58na urtetik gorako 60na urtetik beherako irakasleentzat orduak gutxiagotzea.
- Zuzendaritza eta pedagogi funtzioa finantzatzea.
- Jubilazio partziala/txandaketa kontrratua.
- Enplegua mantentzea (berriro enplegatzea).
- Jubilazio saria.
- Enpresako antzinatasunaren ziozko aparteko soldata.

***ITUNPEKO IRAKASKUNTZAREN ARLOAN HEZKUNTZAREN KALITATEA ETA LAN BALDINTZAK PROGRESIBOKI HOBETZEKO AKORDIOA izeneko itun hau garrantzitsua da Hezkuntza Administrazioa antolatzeko eta Nafarroako itunpeko irakaskuntza pribatuaren arloarekiko haren harremanetarako***

***Aipatu itunean agerturiko hobekuntzetariko ezein zehaztu gabe, esan behar da ezen, orokorrean, akordio hau Komunitatean sinatu den eta orain arte Administrazioak araupetu dituen baina negoziagai bihurtu diren alderdiak negoziazioaren barruan sarturik dituen lehenengotzat har daitekeela.***

***Kontuan hartu behar da ezen Hezkuntza Administrazioak eginkizun nabarmena betetzen duela itunpeko ikastetxeetan hartzen diren lan baldintzetarik anitz zehazteko. Zehazte hori haiek ikastetxeotako irakasleen nomina zuzenean abonatzea baino askoz handiagoa da. Adibide bat osatzen dute Administrazioak aurrekontu orokorretan onetsiriko itun moduluaren bitartez bere aldetik finkatzen zituen ordainsari gehikuntzek. Gainera, plantilekin negoziatzen ahal diren plantila modalitateek baldintzaturik dauden bertze oinarrizko elementu batzuk daude, hala nola, eskola-saioa; eta, halaber, Hezkuntza Administrazioarekiko berarekiko akordioek baldintzatuta geratzen diren bertze elementu batzuk, esate baterako, pedagogi koordinazio eta zuzendaritzako funtzioak abonatzea.***

***Horregatik guztiagatik, Eskola Kontseiluak Hezkuntza Administrazioari ugazabekin eta sindikatuekin negoziatzea oinarri duen lan lerro honi eustea proposatu dio, zertarako-eta komunitate honetan hezkuntza zerbitzuak beti aurrera egiten ahal izan dezan.***

**Nafarroako itunpeko hezkuntza pribatuko enpresa antolakundeak.**

| | |
|---|---|
| ANEG: | Nafarroako Hezkuntza eta Kudeaketako Elkartea. |
| CECE: | Espainiako Ikastetxeen Konfederazioa. |
| NIE: | Nafarroako Ikastolen Elkartea. |
| UECOE: | Cuatro Vientos. |

**Nafarroako itunpeko hezkuntza pribatuko sindikatuak.**

1998/99 ikasturtean egindako hauteskundeen ondotik, ordezkaritza aipatu ikasturte horretako txostenean adierazi zenaren berdina da:

| | | | |
|---|---|---|---|
| FSIE-SEPNA | 75 | eskuorde | (%58,59) |
| UGT | 37 | eskuorde | (%28,90) |
| ELA-STV | 12 | eskuorde | (%9,37) |
| CC.OO. | 1 | eskuorde | (%0,78) |
| LAB | 1 | eskuorde | (%0,78) |
| USO | 1 | eskuorde | (%0,78) |

Ikastolen arloan eskuorde kopurua honakoa da:

| | | | |
|---|---|---|---|
| LAB | 17 | eskuorde | (%75) |
| ELA-STV | 9 | eskuorde | (%25) |

## *4.3. Administrazio eta Zerbitzuetako langileak.*

### Irakaskuntza Publikoa

53 zenbakiko koadroa
**Administrazio eta Zerbitzuetako langileak ikastetxe publikoetan, 2000-2001 ikasturtea**

| Maila | Lanpostua | Pertsonen kopurua |
|---|---|---|
| C maila | *Administraria/Administrari ofiziala* | 50 |
| | *Besterik (1)* | 4 |
| | ***C maila orotara*** | **54** |
| D maila | *Administrari laguntzailea* | 117 |
| | *Atezaina* | 126 |
| | *Zaintzaileak* | 49 |
| | *Besterik (2)* | 11 |
| | ***D maila orotara*** | **303** |
| E maila | *Ordenantza/Eskolazaina* | 14 |
| | *Zerbitzu orokorrak* | 48 |
| | *Garbiketako langileak* | 101 |
| | *Besterik (3)* | 3 |
| | ***E maila guztira*** | **166** |

(1) Maisu-maistraren laguntz.: **1**; Igeriketa-begiralea:**1**; Mantentze-burua: **1**; Sistema informatikoetako teknikari ofiziala: **1**.
(2) Sukaldaria: **4**; mantentze-enplegatua: **1**; Peoia: **2**; Mantentze-laguntzaile-gidaria: **1**; 2. langilea: **1**; Makina mekanikaria: **1**; Zerbitzu laguntzaileak-gidaria: **1**.
(3) Sukaldeko laguntzailea: **1**; Mirabea: **1**; 4. langilea: **1**.

Langileok Nafarroako Gobernuaren menpeko ikastetxe publikoetakoak dira eta eskaintzen diren datuak 2000ko abenduaren 31koak ditugu. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei dagokienez, langileok Udalen menpekoak dira.

***Nafarroako Eskola Kontseiluak Hezkuntzari Itunpeko Ikastetxeetako Administrazio eta Zerbitzuetako langileen benetako gastutik ahalik eta hurbilneko kopurua kontuan har dezan eskatu dio, zertarako-eta kostu hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "bertzelako gastuak" izeneko partidan sartzeko.***

***Kontseilu honen ustetan, hezkuntza sistemaren kalitatea bermatzeko oso garrantzitsua da Administrazioak administrazio eta zerbitzuetako langileei arreta egokia ematea, egiten duten lana gizartean aintzatestea.***

### 4.4. Pedagogia Berrikuntzako Zerbitzua. Irakasleak prestatzeko programak. Irakasleei laguntzeko zentroak.

Irakasleak prestatzearekin loturik dauden legezko xedapenik garrantzitsuenak honakook dira:

* Udako egoitza-ikastaroak egiteko aukeratu diren atzerriko hizkuntzen irakasleen zerrenda eta horri zegokion gastua onetsi zituen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abuztuaren 14ko 701/2000 Ebazpenak.

* 2000/2001 ikasturterako "Irakasleak Prestatzeko Jardueretarako Banakako Diru-laguntzetarako Deialdia" onetsi zuen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren azaroaren 6ko 408/2000 Foru Aginduak.

* Euskarazko ikastaro trinkoetan onarturiko irakasleen zerrendak osatzeko aparteko deialdia onetsi zuen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abenduaren 15eko 496/2000 Foru Agindua.

* Nafarroako Foru Komunitateko itunpeko ikastetxe pribatuetako eta publikoetako atzerritar hizkuntzen irakasleak prestatzeko ikastaroak egiteko laguntzetarako deialdia egin zuen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren azaroaren 23ko 1063/2000 Ebazpena.

* Unibertsitatekoa ez den Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntzako irakasleak euskaraz prestatzeko planerako XXI. deialdia onetsi zuen apirilaren 4ko 138/2001 Foru Agindua.

* 2001/2002 ikasturterako ikasketengatiko zortzi lizentziatarako deialdia onetsi zuen martxoaren 27ko 116/2001 Foru Agindua. Lizentzia horiek irakasle funtzionario eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuari atxikiriko kontratupeko irakasle finkoentzakoak ziren.

* Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta berorren erakunde autonomiadunen zerbitzurako langileak lanbideari begira A maila edo taldeko irakasle lanpostutan prestatu eta hobetzea ahalbidetu duen apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua garatu zuen apirilaren 25eko 161/2001 Foru Agindua.

* Prestakuntzarako zerbitzu berezietako A maila edo taldeko irakasle lanpostuetarako irakaslegaien zerrenda eratzeko deialdia onetsi zuen apirilaren 26ko 526/2001 Ebazpena.

54 zenbakiko koadroa
**Irakasleen prestakuntzarako jardueren aurrekontua.**

| Urt. | Prestak. Progr. orokorrak | Berritze programa | Hizkuntza mod. Berzikl. Progr. | Eusk. Irakask. Berzikl. Progr. | Bertzelakoak OROTARA |
|---|---|---|---|---|---|
| **1995** | 71.400.000 | 16.700.000 | 16.400.000 | 12.000.000 | - |
| **1996** | 92.000.000 | 25.700.000 | 17.500.000 | 13.500.000 | - |
| **1997** | 127.000.000 | 27.000.000 | 26.500.000 | 13.716.000 | - |
| **1998** | 123.000.000 | 28.100.000 | 20.000.000 | 12.300.000 | - |
| **1999** | 110.000.000 | 22.100.000 | 20.000.000 | 12.300.000 | 5.000.000 |

| | **2000. urtea** | **2001. urtea** |
|---|---|---|
| Prestakuntzarako programa orokorrak | 84.200.000 | 85.000.000 |
| Hezkuntza informazio / erreformarako programak | 30.600.000 | 30.600.000 |
| Hizkuntza modernoetako irakasleak birziklatzeko programak | 25.000.000 | 20.000.000 |
| Lanbide heziketako irakasleak birziklatzeko programak | 25.800.000 | 25.800.000 |
| Irakasleek eskolak euskaraz emateko birziklatze programak | 12.300.000 | 13.300.000 |
| Teknologia berrien programak | 40.500.000 | 70.000.000 |
| Argitalpenak, ikasketak eta esperientziak | 25.000.000 | 35.000.000 |
| **OROTARA** | **243.400.000** | **279.700.000** |

**Irakasleen prestakuntzarako urteko plana, 2000/2001 ikasturtea.**

**Jarduketa ildoak**

1. Hezkuntza sistemaren beharkizunei eta irakasleek eskatzen dituzten beharkizunei erantzuna ematea, LOGSE ezarri ondoren:
   - Gelako programak egiteko bultzatuz.
   - Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako etapak sendotzeko eta koordinatzeko laguntza emanez.
2. Norbanakoaren motibazioak berpiztea irakasleengan:
   - Irakasleek dituzten gaitasunen inguruko gogoetak egiten lagunduz.
   - Haien laguntza eta esperientzia aintzat hartuz.
   - Hezkuntza emateko modu onak zabalduz
3. Ikastetxeetako prestakuntza planak sustatzea:
   - Beharrizanei buruzko azterketa egiteko erraztasunak emanez.
   - Irakaskuntzan diharduten taldeen laneko prestakuntza integratuz.
   - Ikastetxeak dituen prestakuntza planen garapena lortzeko aholkuak emanez.
4. Ikastetxeak hobetzeko plana sartzeko beharrezkoa den prestakuntza azpimarratuz.
   - Honako hauek landuz: norbanakoaren kalitatea, autoeraginkortasuna, autoebaluazioa, lidertza eta talde lana.
   - Egiten ari diren esperientziak aurkeztuz.
5. Hezkuntza balioen bidez emateko modua ikastetxeetan sartzea, hezkuntza erkidegoa osatzen duten guztien partehartzearekin eta adostasunarekin.
   - Hezkuntza balioen bidez emateari lehentasuna ematea ikasle gazteenetatik hasita.
   - Ikastetxeko hezkuntza proiektuekin bat datozen jarduketak eta funtzionamendu irizpideak ezartzeko erraztasunaz emanez.
6. Teknologia berriak aplikatzea irakasleen lanari.
   - Prestakuntza modalitate berriekin saiakuntzak eginez, ikastetxeetako profesionalen arteko desadostasunak gainditzeko eta harremanak hobetzeko.
   - Informazio teknologiak irakasleengana eramatea aurrerapen teknologikoen erabilera eraginkorra izateko bidetik jo dezaten.

7. Hezkuntza Departamentuko teknikarien prestakuntza behar dela azpimarratzea.
   - Hezkuntzaren arloan gertatzen ari diren aldaketen berri izan dezaten laguntza ematea.
   - Haiei dagozkien ezagutza eta aplikazioak abian jartzeko lana sustatzea.

**Prestakuntza modalitateak.**

1. Ikastetxeei aholkuak ematea.
2. Prestakuntza moduluak.
3. Mintegiak.
4. Lan taldeak.
5. Eguneratze zientifikoa eta didaktikoa.
6. Bestelako modalitateak.

55 zenbakiko koadroa

**Irakasleen prestakuntzarako programak, 1996/1997 ikasturtetik 2000/2001 ikasturtera**

| | Jarduera kop. 96/97 | | | | | | Jarduera kop. 97/98 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Lizarra** | **Lekarotz** | **Iruña** | **Tafalla** | **Tutera** | **ORO-** | **Lizarra** | **Lekarotz** | **Iruña** | **Tafalla** | **Tutera** | **ORO-** |
| Haur Hezkuntza | 0 | 17 | 22 | 11 | 9 | 59 | 0 | 11 | 43 | 29 | 16 | 99 |
| Bigarren Hezkuntza | 0 | 18 | 57 | 15 | 17 | 107 | 0 | 20 | 173 | 16 | 7 | 216 |
| Bigarren hezkuntza | 0 | 5 | 80 | 8 | 17 | 110 | 0 | 3 | 88 | 7 | 32 | 130 |
| Lanbide Heziketa | 0 | 4 | 52 | 3 | 7 | 66 | 0 | 0 | 70 | 1 | 8 | 79 |
| Maila artekoak | 0 | 0 | 2 | 0 | 9 | 11 | 0 | 0 | 2 | 1 | 42 | 45 |
| Helduen Hezkuntza | 0 | 0 | 4 | 0 | 1 | 5 | 0 | 0 | 3 | 1 | 0 | 4 |
| Hezkuntza Berezia | 0 | 0 | 9 | 2 | 1 | 12 | 0 | 0 | 2 | 2 | 1 | 5 |
| Araubide bereziko hezkuntza | 0 | 0 | 4 | 0 | 5 | 9 | 0 | 0 | 15 | 0 | 2 | 17 |
| **OROTARA** | **0** | **44** | **230** | **39** | **66** | **379** | **0** | **34** | **396** | **57** | **108** | **595** |
| **Prestakuntza orduak OROTARA** | | | | | | **9514** | | | | | | **13413** |
| **Ziurtagiri kopurua (*)** | | | | | | **4651** | | | | | | **8735** |

| | Jarduera kop. 98/99 | | | | | | Jarduera kop. 99/00 | | | | | | Jarduera kop. 00/01 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Lizarra** | **Lekarotz** | **Iruña** | **Tafalla** | **Tutera** | **ORO-** | **Lizarra** | **Lekarotz** | **Iruña** | **Tafalla** | **Tutera** | **ORO-** | **Lizarra** | **Lekarotz** | **Iruña** | **Tafalla** | **Tutera** | **ORO-** |
| Haur Hezkuntza | 8 | 13 | 14 | 25 | 20 | 80 | 10 | 4 | 11 | 4 | 4 | 33 | 2 | | 8 | 1 | 1 | 12 |
| Lehen Hezkuntza | 26 | 3 | 61 | 10 | 5 | 105 | 27 | 10 | 28 | 5 | 11 | 81 | 4 | 1 | 15 | 2 | 9 | 31 |
| Bigarren Hezkuntza | 3 | 2 | 53 | 11 | 26 | 95 | 4 | - | 84 | 2 | 18 | 108 | 1 | | 74 | | 19 | 94 |
| Lanbide Heziketa | 0 | 0 | 32 | 1 | 1 | 34 | - | - | 40 | - | 8 | 48 | | | | | | |
| Etapa artekoak | 0 | 0 | 0 | 3 | 32 | 35 | 10 | 28 | 65 | 32 | 36 | 171 | 4 | 28 | 41 | 3 | 13 | 89 |
| Helduen Hezkuntza | 0 | 0 | 5 | 0 | 0 | 5 | 1 | - | 1 | - | 1 | 3 | | | | | | |
| Hezkuntza Berezia | 0 | 0 | 1 | 2 | 1 | 4 | 4 | 1 | 7 | 2 | 1 | 15 | | | | | | |
| Teknologia Berriak | | | | | | | | | | | | | 16 | 12 | 25 | 18 | 22 | 93 |
| Programa zehatzak (*) | | | | | | | | | | | | | 14 | 16 | 24 | 21 | 26 | 101 |
| Araubide bereziko hezkuntza | 0 | 0 | 6 | 0 | 0 | 6 | - | - | 9 | - | 3 | 12 | | | 13 | | 2 | 15 |
| CAP/PEI-ko jarduerak | | | | | | | | | | | | | 22 | 11 | 65 | 19 | 14 | 131 |
| **OROTARA** | **37** | **18** | **172** | **52** | **85** | **364** | **56** | **43** | **245** | **45** | **82** | **471** | **63** | **68** | **265** | **64** | **106** | **566** |
| **Prestakuntza orduak OROTARA** | | | | | | **6673** | 1299 | 548 | 5796 | 997 | 1880 | **10520** | 1396 | 1148 | 8428 | 1343 | 2013 | **14328** |
| **Ziurtagiri kop. (**)** | | | | | | **3216** | 355 | 178 | 3625 | 350 | 726 | **5234** | 550 | 380 | 5182 | 457 | 1005 | **7574** |

*(*) Programa zehatzen atalak honakoen inguruko jarduerak dakartza: Zuzendari taldeen prestakuntza, hezkuntza berezia, curriculum-bereizketa, helduen hezkuntza eta hezkuntza orekatzailea. Eskola orientabidea, balioen bidezko hezkuntza, lan osasuna (arriskuen prebentzioa) eta eskoletako liburutegiak.*

*(**) Haien heziketa bukatu duten irakasle partehartzaileak.*

Oharra: Ez dugu Lizarrako PEIren 96/97 eta 97/98 ikasturteetako daturik PEI horretako datu-basean matxura gertatu baitzen.

56 zenbakiko koadroa
**Irakasleen prestakuntzarako jarduerak. 2000-2001 Ikasturtea**

**Haur Hezkuntza. 2000/2001 ikasturtea.**

| Modalit. | Titulua | Orduak | PEI |
|---|---|---|---|
| **Mintegia** | Testuen interpretazioa eta ekoizpena hobetzea | 50 | Iruña, zabalik gainerako PEIrentzat |
| | Ahozko ariketa bate trataera: eztabaida | 35 | Iruña |
| | Hizkuntza plastikoak eta ikus-hizkuntzak haur hezkuntzako eskolan | 35 | Iruña eta Lizarra |
| | Adierazten irakastea. Begiratzen ikastea (I) | 35 | Tutera |
| | Adierazten irakastea. Begiratzen ikastea | 40 | Lekarotz |
| | Matematika ikastea | 35 | Iruña |
| | Matematika ikastea | 35 | Iruña eta Lizarra |
| | Matematika Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ikastea | 35 | Tafalla eta Lekarotz |
| | Matematika eta artea proiektu batean | 35 | Tutera |
| | Hizkuntzen trataera integratua eredu elebidunetan | 50 | Lekarotz eta Iruña |
| **Modul.** | Irakurtzea eta idaztea haur hezkuntzako eskolan | 12 | Iruña, Tutera eta Tafalla |
| | Jolas egiteko fisika haurrentzat | 10 | PEI guztiak |
| | Hezkuntza Psikomotrizitatea | 12,5 | Iruña, Lizarra, Tafalla eta Tutera |
| | Aurrera musikarekin! | 10 | PEI guztiak |
| | Sormen tailerra | 10 | Tutera |
| **Ikastar.** | Talde dinamika eta lan talderako estrategiak | 10 | PEI guztiak |
| | Ikus-entzunezkoak: bideoa, argazkiak, diapositibak | 10 | PEI guztiak |
| | Txotxongiloen erabilera euskarazko irakaskuntzan | 10 | Iruña eta Lizarra |

**Lehen Hezkuntzako prestakuntzarako jarduerak. 2000-2001 ikasturtea.**

| | Gai orokorrak | Orduak | PEI |
|---|---|---|---|
| **Mintegiak:** | Ikasten ikastea: irakaskuntza estrategikoak | 40 | Iruña |
| | Aniztasunaren araberako hezkuntza emateko antolaketa estrategiak | 40 | Tafalla |
| | Bideo historikoen ekoizpena | 60 | Lizarra |
| | Adierazten irakastea, begiratzen ikastea (I) | 40 | Iruña, Tutera |
| | Adierazten irakastea, begiratzen ikastea (II) | 40 | Tafalla eta Tutera |
| | Plastikaren hezkuntza haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan | 35 | Lekarotz |
| | Hezkuntza artistikoa | 35 | Iruña |
| | Testuen interpretazioa eta ekoizpena hobetzea | 50 | PEI guztiak |
| | Ahoz iritziak emateko genero bat aztertuko dugu: eztabaida | 35 | Iruña |
| | Eredu elebidunetako hizkuntzen trataera integratua | 50 | Lekarotz eta Iruña |
| | Hizkuntza eta elebitasuna komunikazioaren ikuspegitik | 35 | Iruña |
| | Geometria eta Neurria | 35 | Lizarra |
| | Geometria eskoletarako ideia onak | 40 | Iruña |
| | Matematika ikastea haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan | 35 | Lekarotz eta Tafalla |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Moduluak** | Lan taldea eta harreman pertsonalak | 12 | PEI guztiak |
| | Aniztasunaren araberako hezkuntza | 12 | Lekarotz eta Iruña |
| | Adimen emozionala | 12 | Lizarra |
| | Curriculum diseinutik gelako programaziora | 12 | Iruña eta Tutera |
| | Hezkuntza jarduera antolatua | 10 | Iruña |
| | Ebaluaketak: ikasteko eta irakasteko baliabide bikaina | 12 | PEI guztiak |
| | Bakea eta elkarbizitzarako hezkuntza | 10 | Iruña, Tutera, Lizarra eta Lekarotz |
| | Herriaren azterketa | 12 | PEI guztiak |
| | Ingurunearen ezagutza | 14 | Iruña |
| | Ingurunea ezagutzeko jolasak | 12 | Iruña, Lizarra eta Tutera |
| | Natura tailerra. Izakiak eta ingurune fisikoa ikertzeko jarduerak | 12 | Tafalla |
| | Argi-itzalak | 10 | Tafalla eta Tutera |
| | Bolumena sortzen eta argia banatzen duen buztina | 10 | Iruña, Tafalla eta Lizarra |
| | Joko dramatikoak eskolan | 12 | PEI guztiak |
| | Hizkuntza proiektuen bidez lantzea | 10 | Lizarra |
| | "Irakurketa atsegina". Haurren eta gazteen literaturaren ikuspegia | 10 | Iruña, Lizarra eta Tafalla |
| | Zenbakiak eta buruketen ebazpena | 10 | Lizarra eta Iruña |
| | Halabeharra eta estatistika | 10 | Lizarra |
| **Ikastaroa** | Adimen emozionala | 15 | Iruña eta Tutera |
| | Afektibitatearen eta emozioen garrantzia sakontzea | 25 | Lekarotz |
| | Ekosistema akuatikoari buruzko CD bat eginen dugu: Arga ibaia | 40 | Iruña |
| | Argazkia, gelan erabiltzeko baliabidea | 35 | Tutera |
| | Txotxongiloen erabilera euskarazko irakaskuntzan | 10 | Iruña eta Lizarra |
| **Saioak** | Hizkuntzen trataera osotu baterantz | 6 | Lekarotz |
| **Informat.** | Matematika materiala | 6 | Tutera |
| | **Heziketa Fisikoa** | | |
| **Ikastaroa** | Malabarismo jokoak | 12 | Iruña |
| | Patinajea | 20 | Iruña |
| | Dantza, jazz eta aerobica | 16 | Tutera |
| | Aniztasuna lantzea heziketa fisikoan | 10 | Tutera |
| **Jardunald.** | Elikadura eta jarduera fisikoari buruzko jardunaldiak | 4 | Iruña eta Tutera |
| | **Musika** | | |
| **Mintegiak** | Musikako euskarri desberdinetako materialen azterketa | 20 | Tutera |
| **Ikastaroak** | Musika sormena entzuketaren bidez 2. fasea | 16 | Iruña, zabalik PEI guztientzat |
| | Musika sormena entzuketaren bidez | 16 | Tutera |
| | Informatika musikalaren hastapena: gelako aplikazioak | 18 | Iruña, zabalik PEI guztientzat |
| | Europako tradizioko dantzak | 15 | Iruña, zabalik PEI guztientzat |
| | **Atzerriko hizkuntzak** | | |
| **Mintegiak** | Hizkuntza geletarako euskarri desberdinetako materialen azterketa | 20 | Iruña eta Tutera |
| **Ikastaroak** | A bird in the hand | 20 | Iruña, zabalik Lizarra, Tafalla eta Lekarotz herrientzat |
| | Mintzamena, idazmena, entzumena eta mintzamena lantzen: | 30 | Iruña, zabalik Lekarotz, Lizarra eta |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | gure geletarako metodologia | | Tafalla herrientzat |
| | Multimedia sistemen aplikazioaren hastapena hizkuntzen irakaskuntzan | 12 | Iruña, zabalik Lekarotz, Tafalla eta Lizarra herrientzat |
| | CLIC, hizkuntzen gelan ezagutu behar den tresna | 35 | Iruña |
| **Mintz. lantzeko taldeak eta taile-rrak** | Ingelesez eta frantsesez hitz egiteko taldeak | 30 | PEI guztiak |
| | Ingeles eta frantses tailerrak | | Iruña eta Tutera |
| | **Erlijioa eta moral katolikoaren heziketa** | | |
| **Ikastar.** | Sakramentuak eklesiologiaren testuinguruan | 13 | Iruñeko elizbarrutiaren mintegia |

**Bigarren hezkuntzako prestakuntzarako jarduerak, 2000-2001 ikasturtea.**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | **Gai orokorrak** | | |
| **Mintegiak** | Gelako gatazken irtenbidea | 24 | Iruña eta Tutera |
| | **Natur zientziak** | | |
| **Mintegiak** | Natur zientzien programazioa ebaluazioaren arabera | 30 | Iruña eta Tutera |
| | Natur zientzien materialen euskarri desberdinean azterketa | 20 | Iruña eta Tutera |
| | Organismo txikiak eta horien erabilera didaktikoa DBHn eta batxilergoan | 30 | Tutera |
| | Lurra: kanpo behaketa eta laborategiko azterketa | 30 | Iruña |
| **Ikastaroak** | APQUA programa | 25 | Iruña |
| | Elektronika eta tresnak (II) | 30 | Iruña |
| | "Lurraren zientziak eta ingurumena” ibilbideak | 35 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| | **Gizarte zientziak** | | |
| **Mintegiak** | Gizarte zientzien programazioa ebaluaketaren arabera | 30 | Tutera eta Iruña |
| | Gizarte zientzien euskarri desberdinetako materialen azterketa | 20 | Iruña eta Tutera |
| | Nafarroako ondare historiko artistikoa | 20 | Iruña eta Tutera |
| | Nafarroako geografia eta historia | 30 | Iruña eta Tutera |
| **Ikastaroak** | Arte garaikidea ulertzeko gakoak (XIX eta XX. mendeetako artearen hurbiltzea historia eta pedagogiaren arabera) | 30 | Tutera |
| | Ondare historiko artistikoa | 15 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| | Geografia jardunbideetatik irakastea eta ikastea | 16 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| | **Heziketa Fisikoa.** | | |
| **Mintegiak** | Heziketa fisikoaren programazio didaktikoa ebaluazioaren arabera | 30 | Iruña |
| **Ikastaroak** | Malabarismo jokoak | 12 | Iruña |
| | Patinajea | 20 | Iruña |
| | Boleibola: taldeko kirola | 16 | Iruña |
| | Aerobic eta fitness heziketa fisikoan | 14 | Iruña |
| | Dantza, jazz eta aerobica | 16 | Tutera |
| | Aniztasunaren trataera heziketa fisikoan | 10 | Tutera |
| **Jardunal.** | Elikadura eta jarduera fisikoa | 4 | Iruña eta Tutera |
| | **Heziketa plastikoa eta ikus-heziketa** | | |
| **Mintegiak** | Heziketa plastikoaren eta ikus-heziketaren programazioa | 30 | Iruña eta Tutera |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | ebaluaketaren arabera | | |
| | Informatika: komunikazioa eta diseinua | 50 | Iruña eta Tutera |
| **Ikastaroak** | Adierazpen grafikorako metodologia | 25 | Iruña |
| | AutoCAD-en hastapena | 40 | Iruña |
| | Grabatu kalkografikoaren tailerra | 40 | Iruña |
| | Irudi finkoa eta mugikorra | 25 | Iruña |
| | **Filosofia** | | |
| **Mintegiak** | Balioen bidezko hezkuntzaren gakoak | 20 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| | Filosofiaren programazioa ebaluaketaren arabera | 30 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| **Ikastaroak** | Unamuno eta Ortega Gasset | 12 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| | DBHko 4. Mailako etikako lanerako orientabideak eta proposamenak | 20 | Iruña |
| | Filosofia testuen iruzkina | 10 | Iruña eta Tutera |
| | Prestakuntza osoa balioak deskubritu zirenez gero | 20 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| | **Gaztelania eta literatura – Euskal hizkuntza eta literatura** | | |
| **Mintegiak** | Gaztelania eta literaturaren programazioa ebaluaketaren arabera | 30 | Iruña |
| | Gaztelania eta literaturako euskarri desberdinetako materialen azterketa | 20 | Iruña |
| | Testuen interpretazioa eta ekoizpena hobetzea | 50 | Iruña eta Tutera |
| | Ahozko genero baten trataera: eztabaida | 35 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| | Testu ereduak testu-hizkuntzalaritzaren edukiak hautatzeko | 20 | Iruña eta Tutera |
| | Dramatizazioa gelako tresna pedagogiko gisa | 20 | Iruña |
| | A ereduko euskarazko irakaskuntzarako metodoak: proiektuak eta tailerrak | 40 | Iruña |
| **Ikastaroak** | Batxilergoko "Literatura espainiarra eta unibertsala" aukerako ikasgaiaren berrikusketa | 12 | Iruña eta Tutera |
| | **Hizkuntza klasikoak** | | |
| **Mintegiak** | Hizkuntza klasikoen programazioa ebaluaketaren arabera | 30 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| | Zientzia Mundu Klasikoan | 30 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| **Ikastaroak** | Harmonia: ondaren zientifiko, tekniko eta artistikoa | 10 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| | Batxilergoko HSAOL-eko latina eta grekoa Selektibitateari begira | 10 | Iruña, zabalik Tuteran emateko |
| | **Atzerriko hizkuntzak** | | |
   Irteerak egin ziren hala egiteko eskatu zuten ikastetxeetara (hiruhilekoan 10 gutxi gorabehera).

4. Eskolako liburutegia informatizatzea.
   ABIES 2.0 programan bertsio berriaren esperoan, 1.1 bertsioari buruz planteatu ziren galdera guztiei eman zitzaien erantzuna (hiruhilekoan 50 gutxi gorabehera).

5. Blitz bildumaren bidezko prestakuntza liburutegiko sagua.
   Irakurketa, liburuak eta animazioa. Gogoetak eta proposamenak izeneko bigarren zenbakia argitaratu da. Egilea Victor Moreno da eta eskolako liburutegian egiteko jarduera batzuk agertzen dira.

6. Eskolako liburutegiaren web gunearen bidezko prestakuntza.
   Eskolako liburutegiaren seinaleztapenerako beharrezko kartelak egin dira. Izan ere, baliabideak dituen toki gisa eta liburutegien nazioarteko arauak erabiltzen den toki gisa agertzen da liburutegia kartelotan hala nola sailkapen dezimal unibertsala. Irakasleei erraztasuna eman nahi zaie, tokia eta fondoak hobeto antolatu ditzaten.

## 6. Euskara Nafarroako hezkuntza sisteman.

2000-01 ikasturtean hizkuntza ereduak garatzeko arau batzuk onetsi dira hala nola:

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak uztailaren 18an emandako 285/2000 Foru Agindua, hizkuntza eredu jakin bat aukeratzeagatik beste toki batera joan behar duten ikasleentzako laguntzen deialdia onetsi duena 2001-2002 ikasturterako.

* Hezkuntzako Zuzendari Nagusiak azaroaren 21ean emandako 1040/2000 Ebazpena, 2001. urtean Euskara Gainditzeko Azterketaren (E.G.A.) tituluaren deialdiak arautzen dituena.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak abenduaren 15ean emandako 496/2000 Foru Agindua, euskarazko ikastaro trinkoetarako onartu diren irakasleen zerrendak osatzeko aparteko deialdia onetsi duena.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak urtarrilaren 25ean emandako 20/2001 Foru Agindua, Nafarroako Gobernuaren E.G.A lortzeko ezarritako probak 2000. urtean gainditu dutenei titulua ematea baimentzen duena.

* Martxoaren 1eko 163/2001 Foru Agindua, "Irakaskuntzako Bertsolaritza" programaren kontratazioa onetsi duena.

* Martxoaren 6ko 64/2001 Foru Agindua, euskaltegi eta gau-eskola pribatuentzako dirulaguntzen deialdia egin duena.

* Martxoaren 9ko 207/2001 Ebazpena, bertso-eskolen deialdia onetsi duena.

* Martxoaren 12ko 78/2001 Foru Agindua, euskara sustatzeko jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia baimendu duena unibertsitatekoak ez diren mailetan.

* Apirilaren 4ko 138/2001 Foru Agindua, unibertsitatekoak ez diren irakasleen euskarazko prestakuntzarako planaren XXI. deialdia onetsi duena 2001-02 ikasturterako.

* Apirilaren 10eko 141/2001 Foru Agindua, enpresa pribatuentzako dirulaguntzen deialdia onetsi duena hauexetarako: testu liburuak gaztelaniatik euskarara itzultzeko eta Nafarroako Foru Komunitateko lehen hezkuntzarako ingurunea ezagutzeko arloaren euskarazko testuak argitaratzeko.

### 6.1. Euskarazko ikastetxe, irakasle eta matrikularen bilakaera.

Hizkuntza ereduen matrikularen bilakaeran, honako gako hauek daude 1990 eta 2001 urte bitartean:

- G eredua (gaztelaniaz) irakasle gehien aukeratzen duen eredua da. Hala ere, azken 11 urteotan etengabe egin du behera: %81etik %62ra jaitsi da.
- D eredua (B) (euskarazkoa da eta gaztelania irakasgai gisa ematen da) bigarren tokian dago eta ikasle guztien %13tik %20ra igo da aldi berean.
- A eredua (gaztelaniaz eta euskara irakasgai gisa) %6tik %18ra igo da.

Alde euskalduneko ikastetxe publiko gehienetan D eredua ematen da. A eredua, itunpeko irakaskuntza eta eskualdeko eskoletan biltzen dena, %38tik %15era jaitsi da. Alde horretako itunpeko ikastetxe pribatuek D eredua ematen dute eta Nafarroako Ikastolen Elkartekoak dira.

Alde mistoan, G eredua da nagusia, azken urteotan ehunekoa jaitsi den arren: %81etik %49ra. D ereduak etengabeko hazkundea du, eta aldi berean matrikulazioaren %14tik %28ra igo da. Azken urteotan aukera horren hazkundea nolabait gelditu dela ikusi da. Hala ere, A eredua hazi egin da aldi horretan, batez ere azken urteotan: %4tik %23ra.

Alde erdalduneko G eredua jaitsi egin da, %95etik %61era. A eredua, aldiz, %3tik %36,5era igo da. Legeztatutako ikastoletan matrikulatu diren ikasleen datuak kontuan izanik, D eredu %1,8tik %2.5era igo da.

Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako 2000-2001 ikasturteko matrikulazioaren datuek ere joera bera erakusten dute:

- G ereduan ikasleen %48k ikasten du.
- A ereduak eskariaren %26 du.
- D ereduan guztira matrikulatu diren ikasleen %25 dago.

Joera horiek iazko ikasturtean hezkuntza sisteman sartu ziren hiru urteko haurren matrikularen banaketa ere islatzen da:

80 zenbakiko koadroa

**Euskarazko ikastetxeen, matrikularen eta irakasleen laburpena**

| | 1996/97 Ikastur. | | 1997/98 Ikastur. | | 1998/99 Ikastur. | | 1999/00 Ikastur. | | 2000/01 Ikastur. | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Pub.** | **Prib.** | **Pub.** | **Prib.** | **Pub.** | **Prib.** | **Pub.** | **Prib.** | **Pub.** | **Prib.** |
| **Eskolaurrekoa eta Haur hezkuntzaren 2. zikloa** | | | | | | | | | | |
| **MATRIKULA** A ered. | 2467 | 597 | 2.853 | 742 | 3100 | 789 | 3332 | 785 | 3.545 | 919 |
| B ered. | 26 | 25 | 14 | 25 | 12 | 23 | 18 | 17 | 12 | 17 |
| D ered. | 2.294 | 1.083 | 2.483 | 1.071 | 2.660 | 1.057 | 2.833 | 1.083 | 3.033 | 1.110 |
| **OHO / Lehen Hezkuntza** | | | | | | | | | | |
| **(1)** A ereduko ikast. kop. | | | 72 | 11 | 73 | 12 | 105 | 10+1 | | |
| B+ D ered. | | | 68 | 11 | 68 | 12 | 66 | 11 | | |
| **MATRIKULA** A ered. | 3.789 | 785 | 4.301 | 962 | 4.800 | 1.064 | 5.346 | 1.228 | 5.731 | 1.466 |
| B ered. | 77 | 64 | 69 | 61 | 54 | 55 | 51 | 56 | 40 | 47 |
| D ered. | 3.678 | 2.322 | 3.823 | 2.329 | 3.983 | 2.302 | 4.239 | 2.280 | 4.517 | 2.240 |
| **DBH** | | | | | | | | | | |
| A ereduko ikast. kop. | | | 18 | 4 | 19 | 4 | 34 | 3 | | |
| B+ D ered. | | | 22 | 7 | 22 | 6 | 21 | 6 | | |
| **MATRIKULA** A ered. | 1.063 | 387 | 1.587 | 449 | 1.582 | 306 | 1.623 | 349 | 1.666 | 600 |
| B ered. | 2 | | 23 | | 31 | | 90 | | 44 | |
| D ered. | 1.786 | 1.076 | 2.321 | 1.406 | 2.408 | 1.412 | 2.426 | 1.415 | 2.514 | 1.419 |
| **Irakasleak** (1) | 1.087 | 325 | 1.095 | 331 | 1.174 | 356 | 1.183 | 344 | | |
| **Batxilergoa / UBI** | | | | | | | | | | |
| A ereduko ikast. kop. | | | 3 | | 1 | | 16 | 1 | | |
| D ered. | | | 8 | 1 | 8 | 1 | 11 | 1 | | |
| **MATRIKULA** A ered. | 257 | 19 | 135 | 135 | 303 | 93 | 435 | 86 | 395 | 9 |
| D ered. | 1.127 | 325 | 766 | 225 | 961 | 196 | 1.139 | 174 | 1.219 | 167 |
| **IEE edo REM** | | | | | | | | | | |
| **MATRIKULA** A ered. | 144 | | 74 | | 28 | | | | | |
| B ered. | 19 | | | | | | | | | |
| D ered. | 200 | | 100 | | 57 | | | | | |
| **Lanbide Heziketa** | | | | | | | | | | |
| A ereduko ikast. kop. | | | 3 | 5 | 1 | 3 | 4 | | | |
| D ered. | | | 3 | 7 | 6 | 7 | 3 | | | |
| **MATRIKULA** A ered. | 210 | 74 | 191 | | 67 | | 171 | | 63 | |
| D ered. | 199 | | 211 | | 95 | | 95 | | 86 | |
| **IKASLEAK OROTARA** | | | | | | | | | | |
| A eredua | 7.930 | 1.862 | 9.141 | 2.288 | 9.880 | 2.252 | 10.907 | 2.448 | 11.400 | 2.994 |
| B eredua | 124 | 89 | 106 | 86 | 97 | 78 | 159 | 73 | 96 | 64 |
| D eredua | 9.284 | 4.806 | 9.704 | 5031 | 10.164 | 4.967 | 10.732 | 4.952 | 11.369 | 4.936 |
| **OROTARA** | **17.338** | **6.757** | **18.951** | **7.405** | **20.141** | **7.297** | **21.798** | **7.473** | **22.865** | **7.994** |

*(1)Irakasleen kopurua haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta batxilergoko osoari dagokio.*

***Hizkuntza eredu desberdinak ematen dituzten ikastetxeei dagokienez, jarduketa programa zehatzak egin eta elkarbizitzarako eta integraziorako gutxieneko adostasunak lortu behar direla uste du Nafarroako Eskola Kontseiluak.***

***Nafarroako Eskola Kontseiluak irakaskuntzako B eredu berri bat diseinatzeko eskatu du, elebitasuna bultza lezakeelako eta elkarrenganako errespetua eta onarpena susta litzakeela***

***uste baitu.***

***Era berean, azterketa bat egiteko eskaria egin du, euskara ikasle batzuei bai eta besteei ematen ez zaien eskola-orduen banaketari buruz, Nafarroan A eta G ereduak ematen dituzten haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikastetxe guztietan eta alde euskaldunean A ereduan matrikulatu eta euskaraz irakasteko salbuetsita dauden ikasleei buruz. Azterketa hori proposamen argi eta zehatzekin osatu beharko litzateke. Horretarako, 2002/2003 ikasturterako Ikuskaritza Zerbitzuaren Jarduketa Planean azterketa hori egiteko proposamena sartze gomendatzen da.***

81 zenbakiko koadroa

**3 urteko ikasleen matrikulazioaren datuak, 2000-2001 ikasturtea**

| | | Alde euskalduna | | Alde mistoa | | Alde erdalduna | | OROTARA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **Kop.** | **%** | **Kop.** | **%** | **Kop.** | **%** | **Kop.** | **%** |
| PUBLIKOA | A ERED. | 27 | %0,55 | 571 | %11,54 | 542 | %10,95 | 1.140 | %23,04 |
| | D ERED. | 326 | %6,59 | 811 | %16,38 | | %0,00 | 1.137 | %22,97 |
| | G ERED. | | %0,00 | 217 | %4,38 | 560 | %11,31 | 777 | %15,69 |
| PRIBATUA | A ERED. | 8 | %0,16 | 243 | %4,91 | 23 | %0,46 | 274 | %5,53 |
| | D ERED. | 82 | %1,66 | 261 | %5,27 | 42 | %0,85 | 385 | %7,78 |
| | G ERED. | | %0,00 | 1.044 | %21,09 | 193 | %3,90 | 1.237 | %24,99 |
| **OROTARA** | | **443** | **%8,95** | **3.147** | **%63,58** | **1.360** | **%27,47** | **4.950** | **%100,00** |

## GARRAIO ETA JANTOKIRAKO LAGUNTZA:

- Ekainaren 26ko 245/2001 Foru Agindua, hizkuntza eredu jakin bat aukeratzeagatik beste toki batera joan behar duten ikasleentzako laguntzen deialdia onetsi duena 2001-2002 ikasturterako.

Bertzalde, ikastetxeetako hizkuntza eredu baten eskaintzarik ez badago ere, horren ordez haien herrian ez dagoen hizkuntza eredua aukeratzen duten ikasleentzako garraiorako eta jantokirako dirulaguntzen deialdia egiten da. Laguntza horien bilakaera taula honetan islatu da:

| Ikasturtea | Onartutako eskabideak | Kostua |
|---|---|---|
| 1998-99 | 310 | 25.166.785 pta. |
| 1999-2000 | 330 | 25.390.000 pta. |
| 2000-2001 | 376 | 27.285.000 pta. |

## 6.2. *Irakasleentzako jarduerak euskara ikasteko: birziklatzea eta bertzelakoak.*

* Apirilaren 4ko 138/2001 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako pertsonalarentzako euskararen prestakuntza planaren XXI deialdia onetsi duena 2001-2002 ikasturterako.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak abenduaren 15ean emandako 496/2000 Foru Agindua, aparteko deialdi bat onetsi duena, euskarazko ikastaro trinkoetan parte hartuko duten irakasle onartuen zerrenda osatzeko.

### 6.2.1. Oinarrizko prestakuntzarako ikastaroak.

Iazko 2000-2001 ikasturtean ere, Irakasleak Birziklatzeko Zentroak euskarako oinarrizko prestakuntzarako ikastaroak eman ditu, ohiko hiru modalitateetan:

- Ikastaro trinkoak lanetik liberatuta (birziklatzea); 25 liberatu dira (7 B modalitatekoak eta 18 C modalitatekoak).
- Ikastaro trinkoak ikastetxeetan; orotara 24 irakasle.
- Erakunde pribatuetan euskaraz ikasteko norbanakoari ematen zaion laguntza; orotara 34 laguntza, udako laguntzak kontabilizatu gabe.

Birziklatzeak indarrean izan diren urteetan liberatu direnen kopuruak (695 liberatu dira orotara) eta oposaketa eta leku aldaketen lehiaketen bidez bete diren euskarazko plazen kopuruak (581 plaza orotara) euskarazko titulua duten irakasle gehiago izatea ekarri dute. Eta horrekin batera ikastetxeetako plantiletan egonkortasuna handiagoa dagoenez gero, erantzuna ematen zaio euskararen eta euskarako irakaskuntzari.

Hori dela-eta, administrazioak eta sindikatu gehienek orientabidea aldatu dute birziklatzeko jardueretan “Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko itun”ean. Alde batetik, behin betiko destinoa duten funtzionarioak haien lanpostuan jarraitzeko bidea eman nahi da, euskarazko nahitaezko ezagutza behar duten lanpostu bihurtu daitezkeenak, eta bestetik euskararen eta euskarazko irakaskuntzan diharduten irakasleek hitz egiteko ahalmena hobetzea eta eguneratzea nahi da.

#### 6.2.1.1. Birziklatzea (A, B eta C modalitateak).

| **Trinkoak** | **96/97** | **97/98** | **98/99** | **99/00** | **00/01** |
|---|---|---|---|---|---|
| A | 19 | 7 | - | - | - |
| B | 19 | 18 | 15 | 15 | 7 |
| C | | 14 | 24 | 21 | 18 |
| **OROTARA:** | **38** | **39** | **39** | **36** | **25** |

#### 6.2.1.2. Ikastaro estentsiboa: ikastetxeetako taldeak eta norbanakoen laguntzak.

| Estentsiboak | **96/97** | **97/98** | **98/99** | **99/00** | **00/01** |
|---|---|---|---|---|---|
| Ikasleak | 0 | 20 | 35 | 27 | 24 |
| Laguntza | 15 | 46 | 32 | 47 | 34 |

### 6.2.2. Hizkuntza maila hobetzeko eta etengabeko prestakuntzarako ikastaroak.

Euskara Zerbitzuak hobekuntzarako antolatzen dituen ikastaroen parte-hartzea, zuzenean zein IBIren bidez, bikoiztu egin da aurreko ikastaroari dagokionez. 618 irakasle matrikulatu dira, eta 457k egiaztapena lortu dute (%74k).

Ikastaro horiek bi bloke handitan egituratzen dira:

- Irakasleek hizkuntzaren aldetik duten ezagutza hobetzea; horretarako, hizkuntzaren gaur eguneko arauak eta hizkuntza baliabideak irakasten dira.
- Ikastetxeko curriculumeko hizkuntzen erabilera mailaren eta egoeraren azterketa eta diagnostikoa, baita ikasleek komunikatzeko duten ahalmena hobetzeko estrategiak eta baliabideak erabiltzea ere.

Prestakuntzarako proposamen horiek ikasturtearen hasieran Euskara Zerbitzuak banatzen duen ERABIL gidan agertzen dira, ikastetxearen plangintza egitean aintzakotzat har daitezen.

***Euskarazko irakaskuntza emateko gai diren ikasleen beharrizanak beteta daudela kontuan izanik, Nafarroako Eskola Kontseiluak irakasleen borondatezko birziklatzeari eustea gomendatzen du, baina sakon berraztertu behar dira bertan sartzeko, gelditzeko eta irteteko baldintzak, baita legeen aldetik euskarri handiagoa eta osotuagoa izan beharko luketen konpromisoak ere.***

***Irakasleak Nafarroako Gobernuaren kontura birziklatzeko, euskarazko irakaskuntzan gutxienez 10 urte eman behar izan dituzte irakasleek iazko urtean; hori gogoratu beharra dago.***

### 6.3. *Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren aldeko jarduerak.*

- Martxoaren 12ko 78/2001 Foru Agindua, euskara sustatzeko jarduerak baimentzen dituena unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetako ikasleentzat, Nafarroako A, B eta D ereduko ikasleentzat hain zuzen; Foru Aginduak horiek arautzeko oinarriak ere onetsi ditu.

- Martxoaren 1eko 163/2001 Ebazpena, "Irakaskuntzako Bertsolaritza" programa kontratatzea onetsi zuena.

- Martxoaren 9ko 207/2001 Ebazpena, Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatuetako B eta D ereduetako lehen hezkuntza (3. Zikloa) eta bigarren hezkuntzako ikasleentzako Bertso Eskolaren deialdia onetsi zuena, 2000-2001 ikasturteko 2. eta 3. hiruhilekoetan eta 2001-2002 ikasturteko 1. hiruhilekoan.

Ekintza horiek honako dirulaguntzen bidez finantzatzen dira:

| | **1996-97** | **1997-98** | **1998-99** | **1999-2000** | **2000-01** |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskararen sustapena (1) | 26.882.000 | 26.800.000 | 27.400.000 | 27.900.000 | 27.800.000 |
| Euskara sustatzeko laguntza (2) | 42.125.000 | 30.000.000 | 30.600.000 | 31.300.000 | 30.000.000 |
| Euskara erabiltzeko jarduerak (egonaldiak). | | 20.600.000 | 21.000.000 | 21.500.000 | 21.500.000 |
| Ikasturteko egonaldiak | | 601 | 721 | 757 | 751 |
| Udako egonaldiak | | 480 | 450 | 441 | 450 |
| Eskolako euskarazko materiala sustatzea eta erostea (3) | 10.160.000 | 9.100.000 | 9.100.000 | 20.600.000 | 19.000.000 |

(1) Ekintza propioak dira.

(2) Ekintzak egiteko inori ematen zaizkion dirulaguntzak dira. Lerro horretan, aukeratu duten hizkuntza eredua dela-eta beste tokietara joan behar dutenentzako bekak sartu dira; horien kopurua lehenago azaldu dira.

(3) 1991n irakasle taldeei eta argitaletxeei eman izan zaizkien dirulaguntza puntualak sistematizatu ziren programa horretan, euskarako material didaktikoa sortu, itzuli eta argitaratzeko. Helburua euskarazko irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko beharrezko materialak ekoiztea edo/eta erostea da, zeren eta, merkatuaren arrazoiak direla-eta, arlo eta jarduera askotan ez baitago beharrezko materiala.

Hizkuntza irakasteko errefortzuko jarduketa zehatzen zentzua, hizkuntzari dagokionez, aldez aurretik ezarritako helburuak lortzeko lana erraztea da. Eskola Kontseiluak 1999-2000 ikasturteari buruzko txostenean gomendatu zuenez, ahaleginak egin ditugu jarduera osagarri eta eskolaz kanpoko ekintza horiek ikastetxeen urteko programazioan sartzeko.

Horretarako, 2000-2001 ikasturtean ikastetxeei banan-banan eskaintzen zitzaizkien sustapen-jarduera guztiak deialdi bakarrean bildu ditu Euskara Zerbitzuak (martxoaren 12ko 78/2001 Foru Agindua, unibertsitatekoak ez diren euskararen sustapenerako jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia baimentzen duena), eta ikasturtearen hasieran ERABIL gida banatu du, ikastetxeko jarduerak antolatzen diren blokeen jarduera sistematizatuak eta guzti.

Hona hemen ekintza nagusiak:

#### 6.3.1. Astebeteko egonaldia ikasturtean eta udalekuetan Nafarroako alde euskalduneko herri batean:

| **Euskara erabiltzeko jarduerak** | **1997/98** | **1998/99** | **1999/00** | **2000/01** |
|---|---|---|---|---|
| Kostua | 20600000 | 21000000 | 21500000 | 21500000 |
| Ikastaroko egonaldiak | 601 | 721 | 757 | 751 |
| Udako egonaldiak | 480 | 450 | 441 | 450 |

### 6.3.2. Euskarazko jarduera osagarriak egiteko dirulaguntza.

Azken kanpaina, 227 jarduera osagarri egin dira orotara.

| | 1996-97 | 1997-98 | 1998-99 | 1999-00 | 2001 |
|---|---|---|---|---|---|
| Eskolako jarduerak egiteko laguntza | 13500000 | 11000000 | 11200000 | 11700000 | 16550000* |

*Aurtengo ikasturteko deialdia urterokoak direnez gero, 2001-2002 ikasturteko lehen hiruhilekoan egin beharreko jarduerak sartzen dira.

### 6.3.3. Euskal idazleak eskolan.

Eskolan lantzen diren lanen egileekin elkartzeko bidea ematen da.
2000-2001 ikasturtean 57 hitzaldi egin dira.

| | 1997-98 | 1998-99 | 1999-00 | 2000/01 |
|---|---|---|---|---|
| Euskal idazleak eskolan | 1050000 | 1500000 | 1170000 | 1740000* |

*Aurtengo ikasturteko deialdia urterokoa izaten denez gero, 2001-2002 ikasturteko lehen hiruhilekoan eginen beharreko jarduerak sartu dira.

### 6.3.4. Zientziari buruzko hitzaldiak.

Hizkuntzaren erabilera teknikoa normalizatzeko asmoz eta Elhuyar Fundazioarekin sinatutako akordioarekin bat etorriz, 2000-2001 ikasturtean 50 hitzaldi eman dira bigarren hezkuntzako ikastetxeetan biologiari, ingurumenari eta elikadurari buruz.

### 6.3.5. Irakaskuntzako bertsolaritza

Bertsolaritza ikasleek mintzatzeko duten gaitasuna lantzeko berebiziko garrantzia duen ekintza dela frogatu da. Ildo horretatik, ikastetxeko euskarazko curriculuma aberasteko esku hartzeko hiru jarduketa ildo ezarri ditu Euskara Zerbitzuak Nafarroako Bertsozale Elkartearekin:

- Eskolako bertsolaritza.

Ikasleei astean 14 eskola ordu zuzen ematean datza, programan parte hartzen duten ikastetxeetan; irakasle titularrak bertan izan behar du. Bertzalde, unitate didaktikoak ere egin behar dira eta horiek zabaldu bertsolaritzari buruzko prestakuntza ikastaro batean.
Atal horretan, bertso-paperen lehiaketan aurkeztu ziren lanak prestatzen laguntzeko 80 ordu zuzen sartzen dira, lehiaketan parte hartzea erabaki zuten ikastetxeetan.

- Bertso-Eskola

Bertsolaritza lantzea eskolaz kanpo egiten den jarduera da. Azken edizioetan 9 ikastetxek hartu dute parte eta kostua 1.500.000 pezetakoa izan da.

- Bertso-paperen lehiaketa.

42 ikastetxek hartu dute parte eta 2.350 lan aurkeztu dira orotara gutxi gorabehera. Bertsook liburu batean argitaratu dira ikastetxeetan hedatzeko. Jarduera horren kostua 1.700.000 pezetakoa izan da.

***Nafarroako Eskola Kontseiluak balorazio ona egiten du eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarrien programa horiei buruz, baina haiek berrikusteko eta modernizatzeko gomendioa ematen du ikus-entzunezkoak eta informatika baliabideen bidez, informazioaren gizartearekin bat etorriz.***

**Lehiaketak**:

| | 1996-97 | 1997-98 | 1998-99 | 1999-00 | 2000/01 |
|---|---|---|---|---|---|
| Literatura (aurkeztutako lanak) | 700 | 700 | 721 | 520 | 500 |
| Dialektologia eta etnologia (lanak) | 10 | 10 | 12 | 21 | 15 |
| Irakurketa eta deklamazioa (grabaketak) | 10 | 8 | 12 | 12 | 10 |
| Lehiaketan eta topaketen aurrekontua OROTARA | 5575000 | 5575000 | 4325000 | 4500000 | 3000000 |

### 6.3.7. Antzerki topaketak

Ikasturte honetan, ikastetxeetako antzerki jardueren ardura izan ohi duten irakasleekin bat etorriz, azken urteetan egin izan den lehiaketaren ordez, ikasle partehartzaile guztientzako topaketa batzuk antolatu ditugu. 11 ikastetxeetako 14 antzerki taldeek haien antzezlanak aurkeztu dituzte beste eskola batzuetan eta kanpaina bukatzeko haien arteko jardunaldi bat izan dute tailer, antzerki lan, eta abarrekin. Orotara 150 ikaslek hartu dute parte ekintzan eta kostua 1.500.000 pezetakoa izan da orotara.

### 6.3.8. Euskarazko kantuak.

Haur hezkuntzako kantuen lehiaketa orain dela 10 urte baino gehiago hasi zen egiten gure Erkidegoan. Lehiaketa honen bidez, musikaren irakaskuntzaren teoria indartzeko aukera ematen du praktikaren bidez, musika irakasleek parte hartzen baitute. Aurtengo edizioan, 84 taldek hartu dute parte, orotara 540 ikasle 140 musikariek lagunduta. 850.000 pezetako dirulaguntza eman da jarduera horretarako.

### *6.4. Helduentzako euskarazko irakaskuntzaren bilakaera.*

* Martxoaren 6ko 64/2001 Foru Agindua, helduentzako irakaskuntza sustatzeko erakunde pribatuei eman beharreko dirulaguntzen deialdia onetsi duena 2001. Urtean (Euskaltegiak eta Gau-eskola pribatuak).

82 zenbakiko koadroa
**"Miluze" euskaltegiko matrikulen bilakaera**

| 1998-99 | | 1999/00 | | 2000/01 | |
|---|---|---|---|---|---|
| I. m. | II. m. | I. m. | II. m. | I. m. | II. m |
| 833 | 741 | 820 | 813 | 729 | 688 |

1999-2000 ikasturteari buruz Eskola Kontseiluak egindako gomendioa betetzeko, "Miluze" euskaltegiko ikasleek lortutako emaitzen kalkulua eginen dugu ondorengo taulan.

Datu horiek aztertzean, irakaskuntza horien ezaugarriak hartu behar dira kontuan. Izan ere, ez dira arautuak eta helduentzat dira, eta helburu bereziak dituzte, ez beti titulua lortzeko edo maila jakin batzuk lortzeko. Emaitzen homogeneitaterik eza ere hartu behar da aintzat. Alde handia dago ikasleek lortutako emaitzetan honako hauen arabera: ikasturtearen iraupena (2 edo 4 ordu), matrikulatu diren maila (emaitza hobeak beheko mailetan), eskola-orduen aldia (emaitza hobeak otsailetik ekainera) eta ikasturtea ematen den eguneko partean (alde handiak daude goizeko eta arratsaldeko ikastaroen artean).

| MAILA | MATRIKULATUAK | AURKEZTUAK | | GAINDITUAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 – 6 | 788 | 559 | %71 | 422 | %75,5 |
| 7 –9 | 302 | 208 | %68,8 | 139 | %66,8 |
| 10 - 12 | 185 | 156 | %84,3 | 84 | %53,8 |

Euskara Zerbitzuak Nafarroako helduen euskarazko irakaskuntzako ikastetxe pribatuei ematen zaizkien dirulaguntzak kudeatzen ditu, azken urteotan honelako bilakaera izan duten kopuruak emanda:

83 zenbakiko koadroa
**Helduei euskara irakasteko ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzak**

| URTEA | AURREKONTUA |
|---|---|
| 1997 | 97.700.000 |
| 1998 | 107.700.000 |
| 1999 | 107.700.000 |
| 2000 | 107.700.000 |
| 2001 | 107.700.000 |

Ikasturtearen hasierako matrikulazio datuak aintzat hartuta, honako matrikulazioa lortu dute erakunde horiek:

| 96-97 | 97-98 | 98-99 | 99/2000 | 2000/01 |
|---|---|---|---|---|
| **3703** | **3931** | **3560** | **3267** | **2.789** |

**Emandako EGA tituluen kopurua:**

- Urtarrilaren 25eko 20/2001 Foru Agindua, Nafarroako Gobernuari baimena eman diona 2000. urtean EGA lortzeko probak gainditu dituztenei titulu egokia emateko.

- Azaroaren 21eko 1040/2000 Ebazpena, 2001. Urtean Euskararen Gaitasun Agiria lortzeko deialdiak arautu zituena.

Nafarroako Gobernuak Euskaren Gaitasuna Agiria ematen du honako modalitateren bat gainditu izanagatik:

- Edozeinek egin dezakeen EGA azterketa.
- EGA azterketak irakasleentzat.
- EGAren baliokideen ziurtagiria, euskarazko ikasketak amaitutako Irakasle Titulua lortu dutenei NUP-k egina.

Azken urteetan emandako tituluak ondorengo taula honetan azalduko dira:

| URTEA | MODALITATEA | MATRIKULATUAK | GAINDITUAK | EHUNEKOA |
|---|---|---|---|---|
| 1999 | EGA | 472 | 126 | %26,7 |
| | EGA irakasleentzat | 195 | 70 | %36 |
| | Irakasle ikask. bukatu | | 13 | |
| | OROTARA | | **209** | |
| 2000 | EGA | 571 | 128 | %22,5 |
| | EGA irakasleentzat | 133 | 36 | %27 |
| | Irakasle ikask. bukatu | | 9 | |
| | OROTARA | | **173** | |

# 7. Hezkuntzaren Administrazioa.

## 7.1. Egitura orokorra.

* Hezkuntza eta Kulturako Kontseilariak abuztuaren 2an emandako 2ko 206/2000 Foru Aginduaren akatsen zuzenketa. Agindu horrek Hezkuntza eta Kulturako Kontseilariaren azaroaren 10eko 383/1999 Foru Agindua aldarazi du, eta azken Foru Agindu horren bidez, atxikipena arautu da eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren Bulegoak eta Unitate Teknikoak finkatu dira.

* Hezkuntza eta Kulturako Kontseilariaren azaroaren 17ko 424/2000 Foru Agindua. Agindu horren bidez, atxikipena arautu da eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren Bulegoak eta Unitate Teknikoak finkatu dira.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egituraketa irailaren 13ko 364/1999 Foru Aginduaren bidez zehaztu da (urriaren 1eko NAOren 122. zk.), Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egituraketa organikoa ezarri duena, baita Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren Kontseilariak azaroaren 10ean emandako 383/1999 Foru Adinduaren bidez; Agindu horrek atxikipena arautu du eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Bulegoen eta Unitate Teknikoen eginkizunak ezarri ditu.

Esparru horretan berrikuntzarik nabarmenena uztailaren 3ko 247/2000 Foru Dekretua da, Lanbide Heziketaren Nafarroako Kontseilua sortu duena. Organo hori Lanbide Heziketa arautuari eta arautu gabekoari buruzko kontsultak egiteko eta erakundeetan eta gizartean parte hartzeko organo elkargokide gisa eratu da, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari atxikia.

Kontseilu horrek bere gain hartzen dituen zereginen artean, gorago esan dugu Foru Dekretuaren 2. artikuluaren arabera, honako hauek azpimarra daitezke:

- Lanbide Heziketari buruzko Plan Orokorra egiteko proposamena egitea Nafarroako Foru Komunitatean lantzeko, Nafarroako Gobernuak onetsi dezan, baita haren jarraipena egitea ere.
- Nafarroako Kualifikazioen Sistema Nazionala garatzeari buruzko aholkuak ematea eta proposamenak egitea.
- Lanbide heziketa arautuaren titulazio desberdinen curriculum-diseinuei buruzko informazioa ematea, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.
- Lanbide heziketa garatzeko lanetan enpresen partehartzea bultzatzea.
- Lanbide Heziketari buruzko txostenak, proposamenak, gomendioak edo azterketak egitea, ekimen propioz zein gai horretan eskumena duen edozein administrazioak eskatuta.

3. artikuluak Kontseilua honakoek osatuko dutela ezarri du: Lehendakariak, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak; lehendakariordeak, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak; Idazkariak eta 12 bokalek, horietatik bi Hezkuntza eta Kultura Departamentuko ordezkariak izanen dira; bi Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentukoak; lau Enpresa Elkartekoak; eta azkenik lau Sindikatukoak.

Lanbide Heziketako Kontseilu Nafarreko kideak urriaren 30eko 351/2000 Foru Dekretuak

izendatu zituen eta haren arautegia, eraketa eta funtzionamenduari buruzko araubidea Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abenduaren 15eko 511/2000 Foru Aginduak ezarri zituen.

## *7.2. Hezkuntzaren Ikuskaritza.*

- Hezkuntzako Zuzendari Nagusiak irailaren 5ean emandako 743/2000 Ebazpena. Ebazpen horrek Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren zerbitzuko Ikuskari Taldean sartzeko lehiaketa-oposaketaren deialdiari dagozkion praktiken fasea arautu du; fase hori Hezkuntza eta Kultura kontseilariak martxoaren 22an emandako 100/2000 Foru Dekretuak onetsi zuen.

- Hezkuntzako Zuzendari Nagusiak irailaren 26an emandako 831/2000 ebazpena; ebazpen horrek 2000-2001 ikasturterako Ikuskaritza Teknikoko eta Zerbitzuen Ikuskaritzako Zerbitzuko Urteko Plan Orokorrak ezarri du.

- Hezkuntza eta Kultura kontseilariak urriaren 6an emandako 369/2000 Foru Agindua; Agindu horren bidez, Hezkuntzaren Administrazioko Zerbitzuko Ikuskaritzako funtzionario eta hezkuntzako funtzionarioentzako deialdia egin zen lekuz aldatzeko modua izan dezaten.

**2000/2001 ikasturterako Ikuskaritza Teknikoko eta Zerbitzuen Ikuskaritza Teknikoaren Zerbitzuaren Urteko Plan Orokorra.**

Irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretuaren 9. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz, Hezkuntzako Zuzendari Nagusiak irailaren 26an emandako 831/2000 ebazpenaren bidez (urriaren 11ko NAOren 123. zk.), 2000/2001 ikasturterako Ikuskaritza Teknikoko eta Zerbitzuen Ikuskaritzako Zerbitzuaren Urteko Plan Orokorra ezarri zen. Hona hemen haren edukia laburbilduta:

- Helburuak:

1) L.O.G.S.E.-k dakartzan irakaskuntza berriak ezartzen eta horien jarraipena egiten parte hartzea.
2) Hezkuntza sistema ebaluatzea.
3) Ikastetxeen funtzionamendua kontrolatzea, gainbegiratzea eta horien inguruko aholkuak ematea, ahal dela pedagogiaren eta antolakuntzaren ikuspegitik.
4) Hezkuntza eta Kultura Departamentuko beste zerbitzuei laguntzea.
5) Laneko arlo zehatzekin eta curriculum-aldeekin zerikusia duten zereginak lantzea, ikasturte honetarako lehentasunezkotzat hartzen direnak hain zuzen.

**Lehentasuna duten jarduketak:**

Jarduketa horiek hezkuntza sistemaren etapa eta ebaluazioen ikuskaritza dute ardatza. Horien artean, hauexek azpimarra daitezke:

a) PISA proiektua nazioarteko proiektua da, eta bertan Espainiak hartzen du parte Kalitate eta Ebaluazioaren Institutu Nazionalaren bidez eta, beraz, Nafarroak ere hartzen du parte egokitzen zaizkion ikastetxeen ordezkaritzarekin.
Helburua hauxe da: 15-16 urteko haurrek hizkuntza, matematika eta zientzien arloetan dituzten gaitasunen jabetzea ebaluatzea.
Horretarako, proba egokiak aplikatzen dira klinikoki eta, txandaka, arlo bakoitza izanen da azterketaren ardatza.

Une honetan, azken neurketari dagokion txostena argitaratzea espero da, Hizkuntza ardatza izan zuena.

b) Nahiz eta "DBHko 4. mailako atzerriko hizkuntzen ebaluazio" gisa bildu den, proiektuaren helburua DBHko 4. mailako ikasleak zein 2. mailakoak ebaluatzea da helburua.
Hasieran, probak eta galdetegiak maila horretako ikasle guztiei aplikatzeko asmoa dago, aurreko urtean DBHko 4. mailakoen ebaluazioarekin egin zen bezalaxe.
Azkenik, probak maiatzaren amaiera arte prest ez zeudenez gero, zuhurrago iritzi zitzaion Nafarroako ikastetxeen laginekin parte hartzeari eta hurrengo ikasturterako uztea ikasle guztien ebaluazioari.

c) DBHko 4. mailakoen ebaluazioaren proiektuan 1999-2000 ikasturtean parte hartu zuen ikastetxeetan esku-hartzeari dagokionez, 2001 ikasturtea txosten bat egin zen eta ikastetxeetako zuzendariei aurkeztu zitzaien. Hurrengo urterako utzi da ikastetxe bakoitzean egin beharreko eskuhartze indibidualizatua.

**Jarduketa zehatzak.**

Hauei buruz egin ziren azterketak:

- DBHko ikasleen bilakaera 1999-2000 ikasturtetik 2000-2001 ikasturtera igarotzean. Azterketa hori ikasturte guztietan egiten da, zertarako eta DBHren ondoren ikasleek ikasketak aukeratzean zein joera dituzten ikusteko. Emaitzak 2.11. atalean jaso dira.

- Pertsona helduak eskolatzeari buruzko azterketa egin zen, eta hala ikasketa mota horri buruzko ikuskera zuzena izateko modua dugu hezkuntzaren eskaintzari eta irakasleen beharrizanei dagokienez.

- Urtero bezala, ikasturteko emaitza akademikoen estatistika azterketa egin da.

- Emankortasun akademikoari buruzko luzerako azterketak ikuskaritzaren esku-hartzea ekarri zuen ikastetxeei informazioa itzultzeari zegokiona, baita ebaluazio arteko dokumentuen berrikusketa ere, ikastetxeen barne ebaluaziorako hain baliotsuak direnak hain zuzen.

- Giza baliabideen erabilerari buruzko azterketa ere egin zen, hezkuntzaren pertsonalari baino ez bada ere, eta horri esker ikastetxeetako plantilak beharrizanetara benetan nola egokitu diren ikusten ahal izan dugu.

- Azkenik irakasleen beharrizanei buruzko azterketa egin zen lekualdaketen lehiaketak eman zirenean, eta bertan hurrengo urterako beharrizanak nola zehaztuko diren ere aztertu zen.

**Prestakuntza eta Hobekuntza.**

Irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretuaren 27. artikuluaren ezarritakoarekin bat etorriz, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Ikuskarien Prestakuntzarako ondorengo plana ezarri zuen 2000/2001 ikasturterako:
a) Ebaluazioaren proiektua diseinatzeari buruzko ikastaroa jarraitzea.
b) Administrazioaren jardunbideari buruzko ikastaroa hezkuntzaren arloari aplikatuta.

c) Hezkuntzako Ikuskaritzaren jarduketak garatzeari eta ebaluatzeari buruzko prestakuntza emateko mintegia.
d) Zerbitzuko kide guztien bileretan erabakitako araudien eta jarduketak egiteko proposamenak aztertzea; bilerak hilean behin edo hamabost egunean behin eginen dira.
e) Hala eskatzen duten pertsonek laneko arlo zehatzekin edo curriculum-arloekin zerikusia duten hobekuntzarako jardueretan parte hartzea, erabakiko den kopuruaren arabera.

Azkenik, azken ataletan, alde batetik planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea erabaki zuen Planak; ohiko jarraipen eta ebaluazio horiek zonaldeko taldeen bileretan eta Zerbitzuko Zuzendariak koordinatzaileekin egindako bileretan egin ziren, Plana betearazteko egoki irizten diren neurri zuzentzaileak sartuta. Eta bestetik, plana aldatu egin zen, Hezkuntzako Zuzendari Nagusiak edo Zerbitzuko Zuzendariak eskatuta, eta horren berri zuzendariari hala egiteko eskatu zuenean.

84 zenbakiko koadroa
**Ikuskaritzako plantilaren bilakaera**

| Ikasturtea | 1996/1997 | 1997/1998 | 1998/1999 | 1999/2000 | 2000/2001 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lanpostuak | 20 | 20 | 20 | 20 | 22 |
| Beteak | 14 | 16 | 16 | 16 | 20 |

Aurtengo ikasturtean ikusten den igoera lehiaketa-oposaketaren deialdiagatik gertatu da, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak martxoaren 22an eman zuen 100/2000 Foru Aginduaren bidez deitutakoa; eta hautatze-prozesuari buruzko espedientea Hezkuntza eta Kultura kontseilariak uztailaren 5ean eman zuen 269/2001 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.

## *7.3. Eskola zerbitzuak.*

### a) Eskoletako jantokiak.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak irailaren 19an eman zuen 343/2000 Foru Agindua, Ikastetxe Publikoetako jantokiko zerbitzu jakin batzuen kontratazioari buruzko espedientea ebatzi duena 2000-2001 ikasturterako.

* Ekainaren 23ko 249/2000 Foru Agindua, baimendutako jantokien zerrenda argitaratu zuena eta 2000/01 ikasturterako tarifak eta kuotak onetsi zituena (uztailaren 24ko N.A.O.ren 69 zk.).

| EGUNEKO BAIMENDUTAKO GEHIENEKO KUOTAK PEZETATAN | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ikasturtea** | **96/97** | **97/98** | **98/99** | **1999/00** | **2000/01** |
| **Kuota** | 200 | 205 | 205 | 205 | 210 |

Guztizko zenbatekora arteko kopurua Hezkuntzaren Administrazioak ordaintzen du (batez besteko kostua eguneko 593 pezeta dira 2000/2001 ikasturterako).

| JANTOKIA DUTEN IKASTETXEAK | | | | | | JANTOKIA ERABILI ETA DIRU-LAGUNTZAK DITUZTENAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ikasturtea** | **96/97** | **97/98** | **98/99** | **99/00** | **00/01** | **98/99** | **99/00** | **00/01** |
| **Eskualdekoak** | 50 | 45 | 43 | 40 | 38 | 3.705 | 3.516 | 3.308 |
| **Ohikoak** | 20 | 27 | 29 | 34 | 33 | 807 | 854 | 1.063 |
| **Norban.rentzako laguntzekin** | 20 | 16 | 18 | 18 | 17 | 132 | 150 | 146 |
| **Orotara** | 90 | 88 | 90 | 92 | 88 | 4.644 | 4.520 | 4.517 |

| GASTUAK PEZETATAN | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ikasturtea** | **96/97** | **97/98** | **98/99** | **99/00** | **00/01** |
| **Eskualdekoak** | 170.904288 | 165.079.487 | 169.456.182 | 175.221.876 | 182.858.366 |
| **Ohikoak** | 29.459.856 | 38.442.982 | 40.688.699 | 46.113.492 | 65.024.967 |
| **Norbak. dirula-guntzak** | 7.318.398 | 6.554.000 | 7.055.720 | 8.285.520 | 8.619.660 |
| **Orotara** | 207.682.542 | 210.076.469 | 217.200.601 | 229.620.888 | 256.502.993 |

***Nafarroako Eskola Kontseiluaren ustetan, zaintzaileen prestakuntza eta zereginak berrikusi behar dira eta egungo ratioak hobetu.***

### b) Eskola garraioa.

* Maiatzaren 31ko 219/2000 Foru Agindua, 2000/2001 ikasturterako eskola garraioaren zerbitzuaren antolakuntza eta funtzionamendurako instrukzioak onetsi dituena (ekainaren 16ko N.A.O.ren 73. zk).

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak abuztuaren 2an emandako 303/2000 Foru Agindua, 2000/2001 ikasturterako ikastetxeen eskola garraioaren zerbitzua egiten dituzten enpresen-

tzako kontratuak luzatzea baimentzen duena.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak urriaren 23an emandako 388/2000 Foru Agindua, 2000-2001 ikasturterako eskola garraioaren zerbitzuan laguntzaile doanaren zerbitzuak kontratatzeari buruzko espedientea onetsi duena, publizitaterik gabe eta negoziazioaren bidez egin den kontratazioa, baita haren esleipena ere.

85 zenbakiko koadroa
**Eskola garraioa, 1996-97 ikasturtetik 2000/2001 ikasturtera**

| | 1996/97 Ikasturtea | 1997/98 Ikasturtea | 1998/99 Ikasturtea | 1999/00 Ikasturtea | 2000/01 Ikasturtea |
|---|---|---|---|---|---|
| Garraio ibilbide kop. | 251 | 287 | 274 | 274 | 280 |
| Kontrataturiko bus kop. | 280 | 283 | 268 | 275 | 292 |
| Kontrataturiko taxi kop. | 21 | 27 | 39 | 39 | 38 |
| KOSTUA OROTARA | 984.450.065 | 987.740.854 | 989.258.597 | 1.033.928.644 | 1.094.353.438 |

86 zenbakiko koadroa
**Garraioa erabili duten ikasleak**

| Eskolako ikasturtea | 96/97 | 97/98 | 98/99 | 99/00 | 00/01 |
|---|---|---|---|---|---|
| HE/LH/HB/DBHko ikasleak orotara | 8.981 | 9.607 | 9.268 | 8.893 | 8.393 |
| Nahitaez. ez direnen ikasleak guztira | 4.497 | 2.717 | 1.998 | 1.909 | 2.222 |
| GARRAIATU DIREN IKASLEEN KOPURUA OROTARA | 13.478 | 12.324 | 11.266 | 10.802 | 10.615 |

**c) Eskolako egoitzak.**

87 zenbakiko koadroa
**Hezkuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren menpeko egoitzak**

| IKASTURTEA | 96/97 | 97/98 | 98/99 | 99/00 | 00/01 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Egoitza kop.** | 6 | 5 | 5 | 4 | 4 |
| **Erabiltzaile kop.** | 148 | 93 | 91 | 62 | 50 |
| **Familiaren batezbesteko ekarpena (URTEKO TASA OFIZIALAK)** | 171.000 | 200.000 | 230.000 | 235.000 | 239.000 |

# 8. Hezkuntzako aurrekontuak.

## 8.1. Aurrekontuen bilakaera.

88 zenbakiko koadroa

**Nafarroako Barne Produktu Gordinari buruzko informazio orokorra, 1995-2000**

| Urtea | Nafarroako BPG (pta.) | Biztanleak | NAFARROAKO per capita BPG (pta.) | ESPAINIAKO per capita BPG (pta.) |
|---|---|---|---|---|
| 1995 | 1.139.501.000.000 | 525.327 | 1.903.739 | |
| 1996 | 1.222.955.000.000 | 526.633 | 2.244.843 | 1.873.500 |
| 1997 | 1.323.886.000.000 | 527.830 | 2.542.366 | |
| 1998 | 1.429.913.000.000 | 530.819 | 2.695.945 | |
| 1999 | 1.591.440.000.000 | 538.009 | 2.926.748 | 2.306.892 |
| 2000 | 1.720.670.000.000 | 543.757 | 3.164.410 | 2.489.531 |

*Aurrezki Kutxen Fundaziotik eta EIN-tik hartutako datuak.*

89 zenbakiko koadroa

**Hezkuntzan egindako gastuen bilakaera eta horrek BPGrekiko duen erlazioa**

| Urteak | Gastua orotara (1) | | | Gastu publikoa (2) | | | Familien gastuak (3) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Mil. Mil. Pta. | % (4) BPG | % (5) BPG | Mil. Mil. Pta. | % (4) BPG | % (5) BPG | Mil. Mil. Pta. | % (4) PBG | % (5) BPG |
| 1992 | 3.590,2 | 6,1 | | 2.946,6 | 5,0 | | 700,5 | 1,2 | |
| 1993 | 3.842,4 | 6,3 | | 3.129,8 | 5,1 | | 787,7 | 1,3 | |
| 1994 | 4.002,4 | 6,2 | | 3.210,0 | 5,0 | | 866,6 | 1,3 | |
| 1995 | 4.295,9 | 6,2 | | 3.429,0 | 4,9 | | 947,9 | 1,4 | |
| 1996 | 4.552,9 | 6,2 | | 3.647,9 | 4,9 | | 1.004,5 | 1,4 | |
| 1997(6) | 4.761,7 | 6,1 | | 3.791.21 | 4,9 | | 1.048,0 | 1,3 | |
| 1998(6) | 5.038,1 | 6,1 | 5,8 | 3.993,0 | 4,8 | 4,6 | 1.130,0 | 1,4 | 1,3 |
| 1999(7) | 5.407,6 | 6,2 | 5,8 | 4.277,4 | 4,9 | 4,6 | 1.210,2 | 1,4 | 1,3 |
| 2000(8) (9) | 5.751,2 | -- | 5,7 | 4.560,5 | -- | 4,5 | 1.270,7 | -- | 1,3 |

*Iturria: Estatistika Bulegoa. Programazio Ekonomiko, Pertsonal eta Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusia. Hezkuntza, Kultur eta Kiroletako Ministerioa.*

(1) Guztizko gastu sendotua (sektore publikoaren eta familien arteko transferentziak kenduta).
(2) Administrazio Publikoek oro har hezkuntzan egin duten gastuaz ari da (Kitaturiko Aurrekontuak), Unibertsitateena barne. Hezkuntzari ezarritako gizarte kotizazioen kalkulua dakar. 1992tik 1998ra doan serieak Hezkuntza egindako Gastu Publikoaren estatistikaren azken eguneratzeak dakartza.
(3) Iturria: E.I.N. 1998. urtera arte. 1999 eta 2000rako kalkulatu diren kopuruak.
(4) 1986ko oinarrizko B.P.G. eta 1979ko Kontuen Europako Sistemaren metodologia. Iturria: E.I.N.
(5) 1995eko oinarrizko B.P.G. eta 1995eko Kontuen Europako Sistemaren metodologia. Iturria: E.I.N.
(6) Gastu publikoaren eta pribatuaren azken berrikusketak eguneratu dituen kopuruak.
(7) Hezkuntzako gastu publikoaren aurrerapen-zifra.
(8) Hezkuntzako gastu publikora kalkulatu den zifra hasierako aurrekontuak oinarritzat hartuta.
(9) B.P.G.ren portzentaia haren azken zifra oinarritzat hartuta eguneratua.

Oharra: B.P.G. egiteko Europan dagoen metodologia berriaren eta oinarriaren aldaketaren ondorioz, B.P.G. igo egin da aurreko metodologiarekin eta antzinako oinarriarekin lortzen zenarekin konparatuz gero, eta horrek B.P.G.n hezkuntza gastuek duten partehartzearen kopuruek behera egitea ekarri du. Hori dela-eta, datuak alderatze aldera, 1998. urterako hezkuntza gastuen zerrenda aurkeztu da B.P.G.rekin, azken hori bi metodologien arabera baloratuta. Estatistika Institutu Nazionalak 1979ko sistemarekin Kontabilitate Nazionala egin duen azken eragiketa izan da hori.

90 zenbakiko koadroa

**Unibertsitatekoa ez den Hezkuntzaren Gastu Publikoa Autonomia Erkidegoka**

| | 1.997. urtea (milioi pezetatan) | 1.998. urtea (milioi pezetatan) | 2.000. urtea (milioi pezetatan) | Aldaketa | Araubide Nagusiko Ikasleak | Gastua/ikaslea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hezkuntza Ministerioa | 891.243,0 | 903.555,0 | 459.515,8 | (*) 6,1 | 2.579.816 | 350.240 |
| Andaluzia | 423.856,5 | 448.348,6 | 501.619,6 | 5,8 | 1.479.936 | 302.951 |
| Aragoi | | | 75.835,5 | | | |
| Asturias | | | 1.128,0 | | | |
| Balearrak | --- | 41.963,6 | 54.220,3 | --- | 141.117 | 297.367 |
| Kanariar Uharteak | 138.464,8 | 146.075,0 | 166.450,6 | 5,5 | 346.273 | 421.849 |
| Kantabria | | | 37.236,3 | | | |
| Gaztela Leon | | | 187.003,0 | | | |
| Gaztela-La Mancha | | | 2.505,0 | | | |
| Katalunia | 337.672,8 | 351.744,4 | 391.708,4 | 4,2 | 1.029.986 | 341.504 |
| Valentziako Erk. | 216.122,8 | 234.724,2 | 273.774,9 | 8,6 | 703.039 | 333.871 |
| Extremadura | | | 1.543,8 | | | |
| Galizia | 172.270,8 | 187.780,1 | 201.778,1 | 9,0 | 448.219 | 418.947 |
| Madril | | | 328.690,8 | | | |
| Murtzia | | | 90.400,0 | | | |
| ***Nafarroa*** | ***43,447,3*** | ***45.140,5*** | ***50.411,9*** | ***3,9*** | ***84.256*** | ***535.754*** |
| EAE | 170.292,9 | 181.546,7 | 202.310,9 | 6,6 | 330.983 | 548.508 |
| Errioxa | | | 18.712,3 | | | |
| Eskumenik gabeko beste A.E. | 26.279,9 | 34.726,9 | | 32,1 | --- | --- |
| Beste administrazioak | 186.579,5 | 185.598,9 | | -0,5 | --- | --- |
| **TOTAL** | **2.606.230,3** | **2.761.203,9** | **3.044.845,2** | **5,9** | **7.143.625** | **386.527** |

(*) Balearrei dagokien gastu publikoa barne.

Unibertsitatekoa ez den hezkuntzako gastu publikoa orotara 1998. urterako BPGren %3,3 da. Behera egiteko joera dago. Izan ere, 1992an %3,6koa zen.

Unibertsitatekoa ez den hezkuntzaren gastu publikoa orotara 1998. urterako gastu publikoaren %6,5ekoa (1997ko %6,3 baino altutxoagoa).

Nafarroak gastua/ikaslearen arteko erlazioak toki nabarmena du, besteak beste 3 eta 18 bitarteko ikasle guztiak eskolatu direlako, aniztasuna tratatzeko neurriak daudelako, ziklo eta irakaskuntza guztientzako hitzarmen edo dirulaguntza egokiak, e.a.

***Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Hezkuntzako gastu publikoari dagokionez, Nafarroako Kontseiluak ikusi du gastuak behera egin duela etengabe azken bost urteotan BPGri dagokionez, eta gastua handitzea proposatzen du.***

91 zenbakiko koadroa

**Nafarroako Aurrekontu Orokorren hezkuntzako gastu publikoen zerrenda**

| URTEAK | Nafarroako Gobernuaren Gastua orotara | Hezkuntzako Gastua orotara | % |
|---|---|---|---|
| 1998 | 318.344.900.000 | 46.516.116.000 | 14,61 |
| 1999 | 339.851.500.000 | 48.809.956.000 | 14,36 |
| 2000 | 357.672.700.000 | 50.412.199.000 | 14,09 |
| 2001 | 394.524.921.000 | 55.440.726.000 | 14,05 |

92 zenbakiko koadroa

**Hezkuntza Departamentuaren Aurrekontuen Bilakaera, unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak,**

**(mila pezetatan)**

| Ekonomi atalak | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Pertsonalaren gastuak. | 26.019.995<br>%61,36 | 27.795.321<br>%62,19 | 28.943.376<br>%62,28 | 30.268.719<br>%61,89 | 30.373.413<br>%60,25 | 33.550.131<br>60,52 |
| 2. Ohiko ondasunen eta zerbitzuen gastuak. | 3.043.254<br>%7,18 | 3.425.168<br>%7,67 | 3.543.690<br>%7,62 | 3.553.590<br>%7,27 | 3.810.006<br>%7,56 | 4.037.317<br>7,28 |
| 4. Transferentziak. | 10.501.071<br>%24,76 | 11.237.680<br>%25,14 | 11.511.550<br>%24,75 | 12.388.370<br>%25,33 | 13.387.883<br>%26,56 | 14.209.778<br>25,63 |
| 6. Inbertsio errealak. | 2.136.354<br>%5,03 | 2.059.740<br>%4,60 | 2.035.400<br>%4,37 | 2.027.700<br>%4,14 | 2.138.800<br>%4,24 | 2.631.400<br>4,75 |
| 7. Kapital transferentziak. | 711.000<br>%1,67 | 180.238<br>%0,40 | 482.100<br>%1,03 | 671.572<br>%1,37 | 702.100<br>%1,39 | 1.012.100<br>1,82 |
| **Unib. ez den hezkuntzan OROTARA** | **42.411.674** | **44.698.147** | **46.516.116** | **48.809.951** | **50.412.202** | **55.440.726** |

| Gastuen programa | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0. Hezkuntza eta Kulturako Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak. | 4.689.550<br>%10,93 | 626.783(*)<br>%1,39 | 643.608<br>%1,37 | 705.631<br>%1,43 | 29.946.673<br>%59,40 | 33.065.767<br>%59,64 |
| 1. Eskolan sartzeko baldintzak hobetzea irakaskuntza maila guztietan. | 15.856.077<br>%36,97<br>[1]NUP:1.024 | 16.238.205<br>%35,91<br>[1]NUP: 475 | 16.886.974<br>%35,90<br>[1]NUP: 480 | 18.028.913<br>%36,45<br>[1]NUP: | 18.938.878<br>%37,57 | 20.574.320<br>%37,11 |
| 2. Unib. ez diren irakaskuntzetako hezkuntza programen garapena | 22.107.232<br>%51,52 | 28.079.112(*)<br>%62,10 | 29.226.754<br>%62,14 | 30.444.594<br>%61,55 | 1.234.565<br>%2,45 | 1.494.169<br>%2,70 |
| 3. Euskararen irakaskuntzaren sustapena eta garapena. | 247.815<br>%0,58 | 275.047<br>%0,60 | 278.480<br>%0,59 | 286.713<br>%0,57 | 292.086<br>%0,58 | 306.470<br>%0,55 |
| **Programak OROTARA.** | **42.908.674** | **45.219.147** | **47.035.818** | **49.465.851** | **50.412.199** | **55.440.726** |

(*) Aldi batera pertsonalaren eta haren Gizarte Asegurantzaren gastuak PROGRAMAz aldatu dira.

[1] Nafarroako Unibertsitate Publikoak inbertsioetan egindako gastuak guztizko kopuruaren eta %1eko kalkuluaren barne daude.

### 8.2. Hezkuntza itunak.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak azaroaren 6an emandako 406/2000 Foru Agindua, 2000. urterako dirulaguntzen modulu ekonomikoak finkatu duena, Curriculum Egokituak dituzten Kanpoko Unitateetan eskolatze konpartituan adin txikikoak hartzen dituzten ikasteentzako dirulaguntzei dagozkienak hain zuzen, eta 2000ko iraila-abendua aldiari dagozkion dirulaguntza horiek baimendu dituena.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak azaroaren 17an emandako 427/2000 Foru Agindua, ekainaren 29ko 266/2000 Foru Agindua aldarazi duena; azken agindu horren bidez, ekimen sozialeko ikastetxeekin indarrean dauden hezkuntza itun bereziak berritzea eta luzatzea ebatzi da 2000/2001 ikasturte akademikorako; bertzalde, "Proiektu Mekanikoen Garapena" goi mailako Prestakuntza Zikloaren eta goi mailako lanbide prestakuntza zikloetan sartzeko probetarako prestakuntzetarako Ikastaroaren modulu ekonomikoak zehaztu ditu.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak azaroaren 28an emandako 464/2000 Foru Agindua, 2000/2001 ikasturterako Lanbide Hastapenerako Programak ezartzea baimentzen duena Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako Institutuetan, itunpeko ikastetxe pribatuetan eta irabazasmorik ez duten Erakundeetan.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak abenduaren 15ean emandako 489/2000 Foru Agindua; agindu horren bidez, 2000. urterako Lanbide Hastapenerako Programentzako dirulaguntzen modulu ekonomikoak zehaztu dira eta 2000ko iraila-abendua aldirako ordainketak baimendu dira.

* Otsailaren 26ko 54/2001 Foru Agindua, 2001. urterako Lanbide Hastapenerako Programentzako dirulaguntzen modulu ekonomikoak zehaztu dituena eta 2000/2001 ikasturterako horien ordainketa baimendu duena.

* Martxoaren 6ko 63/2001 Foru Agindua, Curriculum Egokituak dituzten kanpoko unitateetan eskolatze konpartituan adin txikikoak hartzen dituzten ikasteentzako dirulaguntzen modulu ekonomikoa zehaztu duena 2001. urterako eta dirulaguntza horien ordainketa baimendu duena, modulu ekonomikoaren %45 hain zuzen.

* Martxoaren 16ko 91/2001 Foru Agindua, hezkuntza kontzertuen aldarazpenari eta luzapenari buruzko arauak eman dituena oinarrizko hezkuntzan, haur hezkuntzako 2. zikloan, batxilergoan eta erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloetan.

* Apirilaren 11ko 147/2001 Foru Agindua, 19/2000 Foru Aginduaren 35.6. artikulua garatu duen deialdi publikorako Oinarri Arautzaileak onetsi dituena. Azken agindu horrek hezkuntza beharrizan bereziak dituzten ikasleak edo egoera sozial edo kultura txarrean dauden ikasleei laguntzeko behar diren baliabideak aldaraztea edo luzatzea du helburu Nafarroako Foru Komunitateko itunpeko ikastetxeetan 2000/2001 ikasturterako.

* Hezkuntza eta Kultura kontseilariak uztailaren 5ean emandako 263/2001 Foru Agindua. Agindu horren bidez, ohiko kontzertuen aldarazpena eta luzapena ebatzi dira Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta kontzertu bereziak haur Hezkuntzan, Batxilergoan eta erdi mailako eta goi mailako Prestakuntza Zikloetan.

93 zenbakiko koadroa

**Kontzertuak eta dirulaguntzak lurraldeka, 1997 eta 1998. urteak**

(milioi pezetatan)

| | 1997ko itu-nak | 199ko itunak | Aldaketa % | Hezkuntzako Gastua orotara 1998an | Guztizko Gastua-ren gaineko Diru-laguntzen % |
|---|---|---|---|---|---|
| Hezkuntza Ministerioa | 117.446,0 | 121.231,0 | 3,2 | 903.555,0 | 13,4 |
| Andaluzia | 51.693,0 | 54.342,1 | 5,1 | 448.348,6 | 12,1 |
| Kanariar Uharteak | 8.295,0 | 9.445,0 | 13,9 | 146.075,0 | 6,5 |
| Katalunia | 81.316,7 | 82.219,4 | 1,1 | 351.744,4 | 23,4 |
| Valentziako Erk. | 32.002,5 | 36.412,2 | 13,8 | 234.724,2 | 15,5 |
| Galizia | 16.900,9 | 17.616,3 | 4,2 | 187.780,1 | 9,4 |
| ***Nafarroa*** | ***19.049,1*** | ***19.407,7*** | ***4,0*** | ***45.140,5*** | ***20,8*** |
| EAE | 50.920,2 | 54.438,0 | 6,9 | 181.546,7 | 30,0 |
| OROTARA | 367.623,4 | 385.111,7 | 4,8 | 2.498.915 | 15,4 |

## a) Aurrekontua eskola-unitate bakoitzeko.

94 zenbakiko koadroa
**Aurrekontua eskola-unitate bakoitzeko, 1996-2001**

| | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Haur Hezkuntzako 2. zikloa:** | **4.465.455** | **4.575.456** | **5.508.294** | **5.762.901** | **6.340.261** | **6.432.488** |
| Soldatak. | | | | %74,81 | %75,06 | 75,46 |
| Aldatzen diren gastuak. | | | | %9,74 | %10,50 | 9,97 |
| Bestelako gastuak. | | | | %15,45 | %14,44 | 14,57 |
| **Lehen Hezkuntza (OHO):** | **5.297.574** | **5.494.903** | **5.600.338** | **6.974.807** | **7.137.482** | **7.272.606** |
| Soldatak. | %70,58 | %70,49 | %71,31 | %73,70 | %73,82 | 73,90 |
| Aldatzen diren gastuak. | %16,37 | %16,32 | %12,24 | %12,70 | %12,52 | 12,38 |
| Bestelako gastuak. | %13,05 | %13,19 | %16,45 | %13,60 | %13,66 | 13,73 |
| **Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa:** | **6.561.655** | **6.824.645** | **6.896.546** | **8.409.090** | **8.614.878** | **8.833.958** |
| Soldatak. | %71,23 | %70,95 | %72,39 | %74,93 | %74,97 | 74,57 |
| Aldatzen diren gastuak. | %15,92 | %15,77 | %11,58 | %11,53 | %11,44 | 11,86 |
| Bestelako gastuak. | %12,85 | %13,28 | %16,04 | %13,54 | %13,59 | 13,57 |
| **Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa:** | **8.070.200** | **8.327.882** | **8.435.854** | **9.859.515** | **10.090.203** | **10.222.932** |
| Soldatak. | %71,79 | %72,25 | %73,54 | %76,36 | %76,48 | 77,00 |
| Aldatzen diren gastuak. | %14,67 | %14,60 | %14,81 | %10,58 | %10,40 | 9,74 |
| Bestelako gastuak. | %13,36 | %13,15 | %11,64 | %13,06 | %13,12 | 13,26 |
| **Curriculun-dibertsifik. D.B.H.n** | | | | | **8.479.849** | **8.627.833** |
| Soldatak. | | | | | %73,26 | 73,44 |
| Aldatzen diren gastuak. | | | | | 11,12 | 10,84 |
| Bestelako gastuak. | | | | | 15,62 | 15,71 |
| **D.B.H. I.C.U.** | | | | | **9.184.253** | **9.250.986** |
| Soldatak. | | | | | %74,68 | 75,62 |
| Aldatzen diren gastuak. | | | | | %10,90 | 9,72 |
| Bestelako gastuak. | | | | | %14,42 | 14,65 |
| **Batxilergoa eta UBI:** | **8.067.400** | **8.298.773** | **8.410.484** | **8.635.895** | **9.708.898** | **9.971.584** |
| Soldatak. | %71,82 | %72,51 | %73,76 | %74,57 | %75,98 | 75,46 |
| Aldatzen diren gastuak. | %14,86 | %14,65 | %14,86 | %10,52 | %10,38 | 10,94 |
| Bestelako gastuak. | %13,32 | %12,84 | %11,38 | %14,91 | %13,64 | 13,60 |
| **LH I:** | **9.252.448** | **9.529.350** | **9.769.411** | **10.463.202** | | |
| Soldatak. | %72,01 | %72,43 | %72,84 | %76,03 | | |
| Aldatzen diren gastuak. | %16,73 | %16,75 | %16,77 | %11,67 | | |
| Bestelako gastuak. | %11,26 | %10,82 | %10,39 | %12,31 | | |
| **LH II:** | **8.926.498** | **9.224.199** | **9.376.592** | **9.793.992** | **10.023.175** | **10.226.330** |
| Soldatak. | %68,89 | %69,07 | %70,06 | %69,62 | %69,73 | 69,71 |
| Aldatzen diren gastuak. | %19,73 | %19,68 | %19,88 | %10,80 | %10,61 | 10,57 |
| Bestelako gastuak. | %11,38 | %11,25 | %10,07 | %19,58 | %19,66 | 19,72 |
| **Goi Mailako Prestak. Zikloen sarbidea prestatzeko ikastaroa:** | | | | | | **11.374.368** |
| Soldatak. | | | | | | 76,60 |
| Aldatzen diren gastuak. | | | | | | 11,48 |
| Bestelako gastuak | | | | | | 11,92 |

| | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Hezkuntza Berezia:** | | | | | | |
| *Oinarrizko hezkuntza eta lehen hezkuntza:* | **8.288.235** | **8.604.555** | **8.846.321** | **9.177.866** | **9.395.962** | **9.556.731** |
| Psikikoak: | %45,11 | %45,02 | %45,15 | %45,17 | %45,22 | 45,35 |
| Soldatak: | %10,46 | %10,42 | %10,41 | %10,33 | %10,38 | 10,44 |
| Bestelako gastuak: | %37,61 | %37,70 | %38,13 | %38,47 | %38,68 | 38,91 |
| Pertsonal osagarria: | %6,82 | %6,86 | %6,31 | %6,03 | %5,72 | 5,29 |
| Aldatzen diren gastuak: | | | | | | |
| | **7.643.527** | **7.932.678** | **8.148.169** | **8.447.537** | **8.644.558** | **8.790.801** |
| Autistak: | %48,92 | %48,83 | %49,01 | %49,07 | %49,15 | 49,30 |
| Soldatak: | %11,34 | %11,30 | %11,31 | %11,23 | %11,28 | 11,35 |
| Bestelako gastuak: | %32,34 | %32,43 | %32,83 | %33,15 | %33,35 | 33,59 |
| Pertsonal osagarria: | %7,40 | %7,44 | %6,85 | %6,55 | %5,72 | 5,75 |
| Aldatzen diren gastuak: | | | | | | |
| *Lanbide Heziketa berezia. Lanbide Hastapenerako Lanak/Programak ikastea:* | **14.293.010** | **14.822.044** | **15.289.670** | **15.947.166** | **16.348.303** | **16.519.770** |
| Soldatak: | %52,71 | %52,66 | %52,63 | %52,38 | %52.37 | 52,87 |
| Bestelako gastuak: | %8,28 | %8,20 | %8,17 | %8,07 | %8,10 | 8,21 |
| Pertsonal osagarria: | %31,81 | %31,93 | %32,18 | %32,30 | %32,43 | 32,84 |
| Aldatzen diren gastuak: | %7,19 | %7,21 | %7,01 | %7,25 | %7,10 | 6,09 |
| **Helduen bizitzarako trantsizioa prestatzeko programak**: | | | | | **8.721.010** | **8.834.690** |
| Soldatak: | | | | | %48,99 | 49,32 |
| Bestelako gastuak: | | | | | %11,18 | 11,30 |
| Pertsonal osagarria: | | | | | %33,05 | 33,42 |
| Aldatzen diren gastuak: | | | | | %6,78 | 5,95 |

***Ikastetxe Publikoen inbertsioen eta gastuen eta itunpeko Ikastetxeen dirulaguntzen beharrezko kontrola bermatu behar da, beti ere indarreko legeriaren arabera.***

95 zenbakiko koadroa

**Prestakuntza Zikloetarako Aurrekontuak**

**Erdi Mailakoa**

| Prestakuntza Zikloak | Ikastur. | Moduluak orotara | Pertsonalaren soldaten % | Aldatzen diren gastuen % | Bestelako gastuen % |
|---|---|---|---|---|---|
| Administrazio Kudeaketa | 1 | 9.444.756 | 70,11 | 9,84 | 20,41 |
| | 2 | 1.687.977 | 70,39 | 9,98 | 19,63 |
| Administr. Kud. (eskaintza partziala) | 1 | 4.794.462 | 66,53 | 9,34 | 24,12 |
| | 2 | 5.704.966 | 70,57 | 10,1 | 19,32 |
| Erizaintzako Laguntzaileen Zaintzak | 1 | 9.972.599 | 72,79 | 9,54 | 17,67 |
| | 2 | 1.687.977 | 70,39 | 9,98 | 19,63 |
| Soldadura eta Galdaragintza | 1 | 11.911.002 | 65,75 | 8,63 | 25,62 |
| | 2 | 10.614.275 | 62,39 | 8,86 | 28,76 |
| Arte Grafikoen Aurre-inprimatzea | 1 | 10.435.646 | 66,19 | 8,73 | 25,08 |
| | 2 | 9.862.583 | 64,46 | 9,00 | 26,53 |
| Neurrira egindako fabrikazioa eta | 1 | 11.499.842 | 67,91 | 9,25 | 22,84 |
| Arotzia eta altzariak jartzea. | 2 | 10.143.260 | 65,28 | 8,83 | 25,89 |
| Farmazia | 1 | 9.130.957 | 71,55 | 9,46 | 18,99 |
| | 2 | 1.687.977 | 70,39 | 9,98 | 19,63 |
| Ekipo eta instalazio elektrikoak | 1 | 11.035.936 | 66,98 | 9,06 | 23,96 |
| | 2 | 9.829.959 | 64,23 | 8,87 | 26,9 |
| Mekanizatuak | 1 | 11.773.105 | 68,39 | 9,04 | 22,58 |
| | 2 | 10.039.438 | 64,64 | 8,88 | 26,48 |
| Merkataritza | 1 | 10.432.952 | 72,54 | 10,2 | 17,26 |
| | 2 | 1.687.977 | 70,39 | 9,98 | 19,63 |

**Goi Mailako prestakuntza zikloak**

| Prestakuntza Zikloak | Ikastur. | Modulua orotara | Pertsonalaren soldaten % | Aldatzen diren gastuen % | Bestelako gastuen % |
|---|---|---|---|---|---|
| Nazioarteko Merkataritza | 1 | 9.394.300 | 71,9 | 10,52 | 17,58 |
| | 2 | 8.580.275 | 70,26 | 10,50 | 19,25 |
| Produktu Elektronikoen Garapena | 1 | 11.037.186 | 68,77 | 10,12 | 21,11 |
| | 2 | 9.771.350 | 66,87 | 9,29 | 23,84 |
| Administrazioa eta Finantzak | 1 | 8.692.187 | 69,86 | 10,03 | 20,11 |
| | 2 | 8.963.271 | 69,96 | 10,54 | 19,50 |
| Osasun Dokumentazioa | 1 | 9.842.361 | 69,74 | 10,00 | 20,26 |
| | 2 | 1.687.977 | 70,39 | 9,98 | 19,63 |
| Haur Hezkuntza | 1 | 9.656.429 | 72,90 | 9,94 | 17,16 |
| | 2 | 6.996.874 | 70,75 | 11,04 | 18,21 |
| Merkataritza Kudeaketa eta Marketinga | 1 | 1.366.674 | 73,00 | 10,27 | 16,73 |
| | 2 | 1.687.977 | 70,39 | 9,98 | 19,63 |
| Sistemen Informatikoen | 1 | 11.220.935 | 73,33 | 10,45 | 16,22 |
| Administrazioa | 2 | 9.472.399 | 70,61 | 10,18 | 19,21 |
| Erregulatzeko eta Kontrolatzeko | 1 | 11.486.393 | 72,01 | 9,96 | 18,02 |
| Sistema automatikoak | 2 | 9.812.963 | 68,83 | 10,07 | 21,10 |
| Mekanizatu bidezko produkzioa | 1 | 10.652.701 | 67,82 | 10,46 | 21,71 |
| | 2 | 10.024.360 | 66,70 | 10,22 | 23,07 |
| Garraioaren Kudeaketa | 1 | 8.972.241 | 71,46 | 10,04 | 18,5 |
| | 2 | 8.730.878 | 70,31 | 10,78 | 18,92 |
| Aplikazio Informatikoen | 1 | 10.740.867 | 73,12 | 10,47 | 16,40 |
| Garapena | 2 | 9.022.453 | 70,23 | 10,25 | 19,53 |
| Anatomia Patologikoa eta Zitologia | 1 | 10.341.327 | 71,05 | 9,94 | 19,00 |
| | 2 | 8.140.212 | 65,68 | 10,18 | 24,14 |
| Arte Grafikoen Industrietako | 1 | 10.786.432 | 67,09 | 8,75 | 24,16 |
| Produkzioa | | 10.258.357 | 65,20 | 9,40 | 25,40 |
| Proiektu Mekanikoen Garapena | 2 | 10.586.041 | 68,79 | 9,49 | 21,73 |
| | 2 | 10.284.063 | 67,39 | 10,24 | 22,37 |

## 8.2.b) Hezkuntza itunak. Aurrekontua osoak.

96 zenbakiko koadroa

**Hezkuntza itunak. Aurrekontu osoak, 1995-2001 urteak**

(pezetak, milakoak)

| Urt. | Obrak, mater. eta jarduerak | Hezk. Berezia eta Haur Hezk. | Lehen Hezk. | L.H. | DBH eta Batxilergoa | OROTARA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1995** | 200.000<br>1.000<br>5.000 | H.H.: 1.163.354<br>H.Ber.: 185.385 | 4.792.762 | LHI: 672.268<br>LHII: 540.287<br>Salestarrak: 35.000 | 1.284.000 | |
| | **206.000** | **1.348.739** | **4.792.762** | **1.247.555** | **1.284.000** | **8.879.056** |
| **1996** | 1.000<br>14.000 | H.H: 953.453<br>H.Ber.: 222.240 | 3.692.557 | LHI: 563.899<br>LHII: 571.296<br>Salestarrak: 35.000 | DBHko 1. Zikloa: 1.282.590<br>DBHko 2. Zik./UBI: 1.420.251 | |
| | **15.000** | **1.175.693** | **3.692.557** | **1.170.195** | **2.702.841** | **8.756.286** |
| **1997** | 1.000 | H.H.: 1.201.976<br>H.Ber.: 227.478 | 3.694.987 | LHI, E.M.Z.: 84.881<br>LHII,E.M.Z.: 30.818<br>Salestarrak: 35.000<br>Salestarrak: 17.000 | DBHko 1. Zikloa 1.316.308<br>DBHko 2. zik./UBI:1.833.925 | |
| | **1.000** | **1.429.454** | **3.694.987** | **1.167.699** | **3.150.233** | **9.452.373** |
| **1998** | 300.000 | H.H.: 1.249.700<br>H.Ber: 236.200 | 3.813.800 | I.S.: 15.000<br>LHI eta E.M.Z.: 370.800<br>LHII eta G.M.Z.: 665.300<br>Salestarrak: 35.000<br>Salestarrak: 17.350 | DBHko 1. zikloa: 1.314.000<br>DBHko 2. zik./UBI: 2.050.600 | |
| | **300.000** | **1.485.900** | **3.813.800** | **1.103.450** | **3.364.600** | **10.067.750** |
| **1999** | 313.472<br>100.000 | H.H.: 1.325.451<br>H.Ber.. 250.600 | 4.107.044 | G.M. eta E.M.I.: 369.290<br>LHII eta G.M.Z: 562.071<br>Salestarrak: 35.700<br>Salestarrak: 17.700<br>Eskolatik irten: 25.220 | DBHko 1. zikloa: 1.502.842<br>DBHko 2. zikloa: 1.788.784<br>Batxilergoa: 652.013 | |
| | **313.472** | **1.576.051** | **4.107.044** | **1.009.981** | **3.943.639** | **11.050.187** |
| **2000** | 120.000 | H.H.: 1.569.474<br>H.Ber.: 296.088 | 4.212.463 | G.M. eta E.M.Z.: 385.725<br>LHII eta G.M.Z.: 417.192<br>Salestarrak: 36.414<br>Salestarrak: 18.054<br>Eskolatik irten: 42.250<br>Beharriz. Berez.: 5.200 | DBHko 1. zikloa: 1.515.577<br>DBHko 2. zikloa 1.865.757<br>Batxilergoa: 1.093.424 | |
| | **120.000** | **1.865.562** | **4.212.463** | **904.835** | **4.474.758** | **11.577.618** |
| **2001** | 30.000<br>50.000 | H.H. 0-3: 750.000<br>H.H. 3-6: 1.576.746<br>H.Ber.: 317.702 | 4.519.973 | Erdi Maila: 414.580<br>Goi Maila eta LHII: 447.647<br>Salestarrak: 37.142<br>Salestarrak: 18.415<br>Eskolatik irten: 64.234 | DBHko 1. zikloa: 1.614.756<br>DBHko 2. zikloa: 2.001.957<br>Batxilergoa: 1.182.204<br>INABAD: 3.121 | |
| | **80.000** | **2.644.448** | **4.519.973** | **982.018** | **4.802.038** | **13.028.477** |

# Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenari egindako boto partikularrak, 2000-2001 ikasturtea.

## COMISIONES OBRERAS/EUSKADIKO LANGILE BATZORDEAK AURKEZTUTAKO boto PARTIKULARRA.

COMISIONES OBRERAS sindikatuak kontrako botoa eman dio Eskola Kontseiluak Hezkuntza Sistemari buruz egin duen txostenari, uste baitu ez direla jorratu behar beste haren zenbait oinarrizko alde.

Azken bost urteotan, Nafarroako Gobernuak hezkuntzan egiten duen gastuaren ehunekoak behera egiten du etengabe Nafarroako BPGri dagokionez, oso jaitsiera apala bada ere.

Egoera hori sistemaren zenbait alderditan gastuak egiteko ahalegin sistematiko handia behar denean gertatu da, hala nola Prestakuntza Zikloetan, eta Mendillorri, Sarriguren, Errotxapea, Zizur edo Burlatan atzerapena gertatzen ari denean inbertsioen programazioari dagokionez. Iruña inguruko hiri egituran gertatzen ari diren aldaketak, hirigune berriekin eta guzti, eraikuntza politika bat eskatzen dute hiriaren garapenera egokituta. Ildo horretatik, Hezkuntza Departamentuak bere politika berraztertu beharko luke, eta hori ez da antzeman azken urteotan.

Aldi horretan, irakaskuntza pribatuko ikastetxeen eta mailen %100 itunpean egotearekin batera, nabarmen igo dira dirulaguntzak, esate baterako, 1996 eta 2001 bitartean %44 igo da Haur Hezkuntzaren modulua eta %38 Itunpean dagoen Lehen Hezkuntzan. Bertzalde, Hezkuntza Departamentuak ez ditu behar bezala kontrolatzen itunpeko ikastetxe askok ikasleei kobratzen dizkieten kuotak.

Nafarroako Kontseiluak argi eta garbi eskatu beharko lioke Hezkuntza Departamentuari diru publikoari esker bizi diren ikastetxe guztiek Hezkuntza Itun bat borondatez sinatzeak dakartzan eskakizunak bete ditzaten.

Bertzalde, ituna duen irakaskuntzarentzat Administrazioak gero eta diru gehiago emateko egiten duen ahalegina ikastetxeetako langileen lan egoera hobetzearekin osatu beharko litzateke, eta ez bakarrik soldaten aldetik: ikastetxeetako gobernu organoetan duten partehartzea hobetuz, zuzendaritza tekniko eta pedagogikorako postuen izendapen demokratikoak eginez eta irakasleak kontratatzeko publizitate, merezimendu eta gaitasunaren baldintzak zorrozki betetzen direla bermatuz.

Datozen urteetarako sistemak duen beste erronka bat etorkinak eta bazterketa sozialean izateko arriskuan dauden pertsonak integratzea izanen da. Iazko ikasturteari dagokionez, ez da hobekuntzarik ikusi, ez aniztasun hori tratatzeko laguntzarako neurrietan, ez aurrerapenik ere sare publikoaren eta pribatuaren arteko orekan. Sistema publikoak pertsona horiek oro har duten presentzia baino askoz ikasle gehiago hartzen ditu eskolan, eta zenbait ikastetxetan egoera hori zuzendu ezik, guetto batzuen antzeko taldeak sortuko lirateke eta integratzeko lana ezinezkoa bihurtuko litzateke; zentzu horretan, zenbait ikastetxe pribatutako zuzendariek nolabaiteko elkartasunik eza erakusten dute, eta horrek tirabirak sortarazten ditu hezkuntza sisteman. Administrazioak ez du gai horren inguruko politika sendo eta sistematikorik. Premiaz-

koa da zenbait zonalde eta herritan tokiko Eskolatze Batzorde bat sortzea, eta bertan sektore guztiek hartuko lukete parte.

Iruñean, 2001eko abenduaren 20an.
CCOO.
Javier de Miguel Sáenz.

**STEE-EILAS SINDIKATUAK AURKEZTUTAKO boto PARTIKULARRA.**

2001eko abenduaren 20an egin zen Osoko Bilkuran Nafarroako 2000-2001 ikasturterako Hezkuntza Sistemari buruzko txostena eztabaidatu eta onetsi egin zen, eta nik ordezkatzen dudan sindikatuak ezezkoa eman zion txostenari ondoren azalduko ditudanak oinarritzat harturik.

STEE-EILAS sindikatua haren kontra azaldu zen, funtsean, txosten horretan NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAK AIPATZEN EZ DITUEN GAUZENGATIK. Hots, ataletan bildu den informazioa eta balorazio gehienak egokiak direla iruditzen zaigu. Hala ere, sindikatu honen ustetan, Eskola Kontseiluak, kontsultak jasotzeko organoa den aldetik, balorazioak eta sugerentziak sakondu egin beharko lituzke, eta zentzu horretan, txostenak, gure ustez, ez ditu biltzen Nafarroako Hezkuntza Sistemaren alde garrantzitsu batzuk. Alde horiek zehaztuko ditut jarraian.

1.- Haur Hezkuntzako 0-3 urtekoen zikloari buruzko irizpena onetsi eta bederatzi hilabete iragan ondoren, oraindik ez da argitaratu berau arautzen duen dekretua. Egoera horretan ez da aski deitoratzea eta ahalik eta bizkorren ematea dekretua, baizik eta espreski eskatu behar da Hezkuntza eta Kultura Departamentuak berriz ere bidaltzeko azken urtean egindako zirriborroa, zertarako eta Kontseiluak gertatu diren aldaketak baloratzeko modua izan dezan. (2.1. atala.)

2.- Aniztasunari eta interkulturalitateari buruzko 2. atalean, ez da aski Departamentuari eskatzea Gizarte Bazterketaren aurkako Plana aplikatzeko eta Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluen XI. Topaketetan (Nafarroa, 2000) proposatu ziren ekimenak praktikan jartzeko, baizik eta beste herrialdeetatik datozen ikasleak egoki eskolatuak izateko beharrezkoak diren laguntzen inguruko proposamenak zehaztu beharko lituzke, esate baterako: ikasleak behin-behingoz hartzeko gune batzuk sortzea hizkuntza gaitasun nahikoaz jabetu daitezen eta, hala denean, eskolako ohiko ingurunean behar bezala integratzeko bidea emango dio informazioa, ikastetxean bertan ikasle horien segimendua eginen dute talde ibiltariak, e.a. (2.10. atala).

3.- Txostenean ez da egin INCE / NAFARROAKO GOBERNUAK DBHko laugarren mailan eta 1999-2000 ikasturtean egindako ebaluaketari buruzko baloraziorik. Hezkuntza Departamentuak bidalitako informazioa eman baino ez du egin, eta informazio horretan, gure iritziz, gehiegi baloratzen dira DBHko laugarren mailan ezarritako ibilbideak, Nafarroan Estatu osoarekin konparatuz eskola graduatuaren titulua lortzen duten ikasleen ehuneko handiagoa lortzeko faktore gisa. Beste erreferentzia batzuk aztertu beharko lirateke hala nola egoera soziokulturala eta ekonomikoa, familia-eskolaren ingurunea, eta aurreko ikasturteetan lortutako emaitzak berak. Eta horrelakorik ez da egin. (2.11. atala).

4.- Nafarroako Eskola Kontseiluak balorazio ona egiten du “kalitatea”rekin lotuta Nafarroako ikastetxeetan eramaten ari diren ekimenei buruz eta bide horri eusteko deia egiten du. Baina ez du aipamenik egiten irakaskuntzaren kalitatea ulertzeko moduari buruz, hots, jasaten ari garen politika neoliberalak gehiegi baloratzen duen merkatuaren erantzun gisa ulertzea irakaskuntza. Izan ere, politika hori zalantzan jartzen ari da Ongizatearen Estatuaren oinarriak gizarte politikei dagozkien gai guztietan. “Kalitatea”ren interpretazio horrek arrisku bat dakar: ikastetxeak “ia merkatu” bihurtzea, eta, beraz, kalte handia ekarriko lioke guk ulertzen dugun hezkuntzari, desberdintasunak orekatzeko eta gizarte integraziorako bidea den hezkuntzari alegia (2.11. atala).

5.- STEE-EILAS-en ustetan, ingelesaren irakaskuntza Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan indartzeko proiektua irakaskuntza horren oinarri zientifiko-pedagoikoen azterketa serio bat egin gabe jarri da abian. Esperimentu gisa ezarri da Eskola Kontseiluak aldez aurretik baloratu gabe –erakunde horren zeregina ulertzeko modu bitxia- eta bai sindikatuen itun baten bermearekin (%57,44) –Nafarroako hezkuntzaren sistemaren egituraketa ulertzeko modu bitxia hori ere-. Horren ondorioz, gogoeta publikoa egitearen alde gaude, non elebitasuneko eta eleaniztasuneko adituek parte hartuko duten (ez dugu ahantzi behar ikasleen ehuneko handi batek egoera hori bizi duela), baita honako hauek egitearen alde ere: ezarpenaren baldintzak eta emaitzak aztertzea, ikastetxeek haien curriculumak eta antolaketak egoera soziolinguistikora egokitzeko duten autonomia baloratzea, erakundeei gogoeten berri ematea erakunde eskudunei baldin eta hartutako neurriak hezkuntzaren egituraketa aldarazten badu indarreko hizkuntza ereduei dagokienez eta azkenik irakasleen informazioa behar bezala planifikatzea (3.3. atala).

6.- Ikasle inmigranteei dagokienez, Eskola Kontseiluak ez du aipatzen ikasle inmigranteei DBHren ondorengo hezkuntza bermatzeko aukera, bertako ikasleek dituzten baldintza beretan. STEE-EILAS-ekook uste dugu, Legeak eskubide hori ezarrita ez duela aintzat hartu gabe, Administrazioari eskatu beharko litzaiokeela, kasu honetan hezkuntzaren administrazioari, sentsibilitate berezia agertzeko ikasle inmigranteekin (110. orrialdea). Halaber, sindikatu osatzen dugunen ustetan, ikastetxeen proiektuetan “Kulturen arteko Hezkuntzarako Plana” sartu beharko litzateke, beti ere berdintasunerako hezkuntzaren ildo eta estrategia orokorretan oinarrituta, enpatia jokabideak bultzatu nahi dituena hezkuntza alegia. Hala, komenigarria izanen litzateke ikastetxean elkarrekin bizi diren kulturei buruzko edukiak sartzea curriculum arloen ohiko curriculumean, baita hizkuntzaren inguruko laguntza emateko irakasleak izatea ere ama hizkuntza eta jatorri berekoa ikasle nahikoa bada ikastetxean. Azkenik, Eskola Kontseiluak dei egiten die tokiko Sail eta Erakunde batzuei beste esparruetako laguntza-programetan parte har dezaten. Hala ere, komenigarria izanen litzateke sentsibilitate berezia agertzea programa horietan, hain zuzen ere bertako herritarrek inmigranteak edo gizarte bazterketa jasateko arriskuan diren pertsonak hartzeari dagokionez, aldi baterako izan zein betiko izan (3.5. atala).

7.- Kontseilua bera bizi izaten ari den egoera ikusita, ezer gutxirako balio du egoera deitoratzeak eta sektore guztiei bertan inplikatzeko eskatzeak; izan ere, ikasleek Kontseiluan duten presentzia oso urria da. Ikasleengana jo beharko litzateke espreski eta modu zuzenean, zertarako eta haien erakundeen bidez, haien prestakuntzarako gaia garrantzitsuak lantzen dituzten foroetan parte aktiboa har dezaten (3.7. atala).

8.- Nafarroako Eskola Kontseiluak ez du iritzirik agertzen diru publikoarekin lan egiten duten eskoletako erlijioaren irakaskuntzari buruz, ezta curriculumeko gai hori ematen duten irakasleen egoerari buruz ere. STEE-EILAS-ekook uste dugu botere publikoek konstituzioak dakarren eskubidea behar bezala bermatzeko modua duela, haurrek familien sinesmenen araberako irakaskuntza, erlijioari eta moralari dagokionez hain zuzen, eta prestakuntza horiek ez dute zertan egon nahitaez eman beharreko gaien barruan eta eskolako ordutegiaren barruan. Hortaz, Eskola Kontseiluak hauxe eskatu beharko lioke Nafarroako Gobernuari: instantzia egokietan legeen aldetik aldaketa egokiak egiteko, zertarako eta erlijio desberdinen irakaskuntza eskolako curriculumetik atera daitezen.

9.- Nafarroako Eskola Kontseiluak, sindikatuen ordezkaritzaren %57,44k sinatu zuen itunari buruzko balorazioaren bidez, ez ikusiarena egiten du sindikatuen gaien inguruan, txostenak aipatzen dituenak baino garrantzitsuagoak. Txosteneko gaiak, bertzalde, hezkuntzaren siste-

maren beraren egiturarekin zerikusi handiagoa dute sindikatuekiko negozioekin baino... Bitxia da Kontseiluak deus ez esatea lan osasunari, lanaren banaketari, irakasleen lanaldiari (35 ordu), lan egutegiari, funtzio publikoan sartzeko sistemari, bitarteko behin-behineko ikasleei eta abarrei buruz (4.1. atala).

10.- Lan Osasuna ere ahantzi egin zaio Eskola Kontseiluari. Segurtasun eta Osasun Batzordearen ordezkaritza eta laneko baxen estatistikari buruzko datuak eman ondoren, Prebentziorako Zerbitzuaren funtzionamendua aipatzen da. Horrek badu logikarik Segurtasun eta Osasun Batzordeak funtzionatuko ez balu (hala gertatzen ari da). Ikasturtean egindakoari buruzko informaziorik eza eta Kontseiluak aipatu ez izana funtzionamendu eskasaren adierazle dira (4.1. atala).

11.- Urtebete iragan da Nafarroako Gobernuak 327/2000 eta 203/2001 Foru Dekretuak argitaratu zituenetik eta Kontseiluak ez du bere iritzia agertu nahi izan araudi hori garatzeak eta aplikatzeak Nafarroako Hezkuntzaren Sisteman eta bereziki euskararen irakaskuntzan izan dituen ondorioei buruz. STEE-EILAS-ekook uste dugu Eskola Kontseilua argi mintzatzeko ordua iritsi dela: administrazioarekin dituzten harremanak gaztelania hutsean egiten direlako ikastetxeetako zuzendariek agertzen dituzten kexuek oihartzuna izan beharko lukete; testu liburu jakin batzuk baino ez erabiltzeari buruz hartutako erabakiak oihartzuna izan beharko luke; euskarak gizartean duen tokia murrizteko Administrazioak daraman politikari buruzko iritziren bat izan beharko luke; kezka azaldu beharko luke material, dossier, prestakuntza... ia dena gaztelania hutsean delako eta euskararen presentzia sinbolikoa delako; kezka azaldu beharko luke Lanbide Heziketan euskara desagertarazteko eta baztertzeko eramaten den politika dela-eta. Eskola Kontseiluak Hizkuntzen Europako urtea bezalako urte berezian hitz egin beharko luke, eta ez du hala egiten; euskara Foru Komunitate osoan Curriculum Aldea izateko aukera aztertu beharko luke; kezka agertu beharko luke legeek Nafarroako zati handi baten euskarazko irakaskuntza galarazten dutela-eta. Panorama horretan, bada, ostrukaren “rola” jokatzen du Kontseiluak eta proposamenak atzera botatzen ditu haren eskumeneko gaia ez dela aitzakiatzat hartuta.

Horiexek izan dira hutsune-arrazoiak STEE-EILAS sindikatuak boto partikularra aurkezteko, behar den data eta moduan aurkeztu ere, Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostenean ager dadin. 2000-2001 ikasturtea.

Iruñean, 2001eko abenduaren 21ean
José Luis Larrea Cenoz
STEE-EILAS sindikatuko ordezkaria

**Nafarroako Ikasleen Gurasoen Elkarteen HERRIKOA Federazioak aurkeztu duen boto PARTIKULARRA.**

**2.1. atalari. Haur Hezkuntza. 0-3 urtekoen garapena.**
Ondorengo testu hau sartu ez izanagatik:

“Nafarroako Eskola Kontseiluak Haur Hezkuntzako 0-3 urtekoen premiazko erregulazioa eskatu du, LOGSE-ren markoaren barruan, eta horrek bi ondorio dakartzala: hezkuntzaren etapa horrek Hezkuntza Departamentuaren menpe egon behar duela eta ikastetxeak irekitzea hezkuntzaren administrazioaren baimenari lotuko zaiola.

Era berean, kezka azaldu du hezkuntza zerbitzuaren kalitatea bermatzeko eskakizunak guztiak ez direlako betetzen, abian jartzen ari diren proiektuentzat indarreko legeriak ezarri dituenak hain zuzen ere.”

**2.5. atalari. Lanbide Heziketa.**
Ondorengo testu hau sartzea onartu izanagatik:

“Hain gaztetxoak diren ikasleek jarraitu nahi duten bidea aukeratu behar dute erabaki horrek etorkizunean izan ditzakeen ondorioei buruzko informazio nahikorik izan gabe. Informazio falta horrek eta Lanbide Heziketan sartu diren aldaketa garrantzitsuek hezkuntzaren administrazioaren etengabeko ahalegina eskatzen dute, ikasleek eta familiek informazioaren berri izan dezaten.
Nafarroako Eskola Kontseiluak Hasierako Lanbide Heziketatik maila ertainera eta azken horretatik goi mailara igarotzen lagunduko duten sistemak aztertzea eta ezartzea gomendatzen du Nafarroako Eskola Kontseiluak.
Arreta jarri beharko da ezarritako goi mailako Heziketan sartzeko ikasturtearen emaitzetan, bereziki 2001-2002 ikasturteari begira.
Era berean, gutxieneko irakaskuntzak eta lanbide titulu desberdinen curriculumak aztertzean lanbide heziketari buruzko oinarrizko edukiak sartzea gomendatzen da, baita gizarte prestakuntza eta oinarrizko gaitasunak ere, halako modez non prestakuntza zikloen ohiko iraupena bi mila ordukoa izatera egokitu baita. Hala, prestakuntza zikloak aberatsagoak bilakatuko dira eta ikasleen artean “lanbide kultura” (Hizkuntza, Ofimatika, ...) erraztuko da. Gainera, prestakuntza zikloen egituraketa arautako gainerako irakaskuntzen erritmo eta iraupenetako egokitzea lortuko da, hots, eskolako ikasturtera, eta hala kaltegarriak izan daitezkeen eskolarik gabeko aldiak saihestuko dira.”

“Nafarroako Eskola Kontseiluaren ustetan, Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluan ikasleek, gurasoek eta ikasleek ordezkaritza izan beharko lukete.”

**2.11. atalari. Hezkuntza sistemaren ebaluaketa eta kalitatea. Ikasleen promozioa.**
CC.OO. sindikatuak proposatu duen testu atxiki gatzaizkio.
Ondorengo testu hau sartzea onartu izanagatik:

“Balorazio ona egiten da Nafarroako Hezkuntza Sistemaren egoera eta emaitzen ebaluaketa sistematikoak egiteari buruz.
Hala ere, DBHko 4. mailan egindako ebaluazioaren ondorio nagusia, 4. mailako ibilbideen ezarpenari Nafarroaren eta Estatuko gainerako erkidegoen arteko aldearen portzentaia (%15) emateari buruzkoa DBHko Graduatuaren Titulua lortzearen inguruan, partzialegia da Eskola Kontseiluaren ustez.

Ondorio egokituagoa lortzeko, desberdintasunak Lehen Hezkuntzan agertzen direla hartu behar da kontuan eta DBHko Lehen Zikloan handitzen direla, txostenean bertan ikus daitekeenez.
Bestalde, eskolako emaitzen balorazioan garrantzi erabakigarria du egoera soziokulturalaren balorazioak; alde hori ez da jorratu ebaluaketa honetan. Hezkuntza Sistemaren emaitzak eta arazoak ulertzeko, ez dira azken emaitzekin bakarrik erlazionatu behar, jasotzen dituen ikasleekin aritzeko du gaitasuna baizik. Eta horrexegatik hartuko behar da kontuan ingurune soziala, eskolako sare desberdinen emaitzak lantzean, zein Estatu osoko erkidegoen arteko konparaketetan."

**3.4. atalari. Pertsona Helduen Hezkuntza.**
Ondorengo testua sartzea onartu ez izanagatik:

"Era berean, pertsona helduen oinarrizko hezkuntzaren III. maila ezartzea gomendatzen da eskaria gertatzen den herrietan."

Azalpena:
256/1999 Foru Dekretuaren 8.1. artikuluak pertsona helduen oinarrizko hezkuntzaren III. maila ezartzeko aukera ezarri du institutu jakin batzuetan, Iruña edo Tuterakoak ez diren tokietan sortu litekeen eskariari aurre egiteko. (Altsasun, Lizarra, Zangoza eta Tafalla).
Gaur egunean interesa duten pertsonek Urrutiko Hezkuntzako Institutuaren bidez egin behar dituzte ikasketak, eta horrek zailtasunak dakartza, haien lanari lagunduko dion irakaslerik ez dutelako izanen.

**4.1. atalari. Irakasleak. (Erlijio irakasleen kontratazioa).**
Ondorengo testua sartzea onartu ez izanagatik:

"Kezkagarria da irakaskuntza publikoko eta itunpeko irakaskuntzako erlijio katolikoa gaur egun ematen duten irakasleak Administrazioak kontratatzea eta diru publikoarekin ordaintzea, eta hezkuntza agintariek ez dute inolako kontrolik haien izendapenetan. Kezkagarria da irregulartasun hori.

Eskola barruan dauden sinesmen desberdinak direla-eta, erlijio eskolak eskola-ordutegiaren barruan sartzeko zalantza sortu beharko litzateke. Eskolak mundu guztiak onartzen dituen eta guztiok konpartitu behar ditugun balioak sakondu beharko lituzke, pertsonen arteko zatiketak eragin ditzaketenak sustatu beharrean."

**5.3. atalari. Ikasleen onarpena.**
Ondorengo testu hau sartzea onartu ez izanagatik:

"Ikasleen onarpenari dagokionez, Nafarroako Araudiak ikastetxe bakoitzeko kopurua Estatuko gainerako ikastetxeena baino altuago izateko irizpidea eman du (3 Nafarroan eta 1 Estatuan), baina ez dago argi zein markok erantzun behar dien irizpide horiei, eta horrek arriskua dakar ikasleak hautatzeko orduan. Puntuazio hori kentzea gomendatzen da irizpide osagarriak direla-eta.

Ikasleak sare eta ikastetxeen artean orekaz banatu ahal izateko, matrikula eskabide bakarra egitea gomendatzen da, ikasleak onartzeko prozesua zuzenduko duena.

Matrikulazioak behera egiten duen ikastetxeen kasuari dagokionez, hezkuntza administrazioa

gomendatzen da hezkuntza taldeetan eta horietan eskaintzen diren baliabideen sustapena egitea ere bai, zertarako eta sare publikoari zonalde eta auzune guztietan eusteko."

**5.5. atalari. Gobernu Organoak.**
Ondorengo testua sartzea ez onartu izanagatik:

"Hauteskundeak ikastetxe guztietan egun berean egitea gomendatzen da.

Lehen Hezkuntzako ikasleei dagokienez, haien heziketa osoa lortzeko osagai nagusietako bat ohitura eta jokabide demokratikoa denez gero, haien eskoletako Eskola Kontseiluan ordezkariak aukeratzeko bidea ematea gomendatzen da; aukera hori Haur eta Lehen Hezkuntzako Araudi Organikoaren 9. artikuluko 6. puntuan dago ezarria.

Era berean, Nafarroako Eskola Kontseilua araudia aldaraztearen alde dago eta, hala, ordezkaritza berdinagoa izanen da."

**6. atalari, Euskara Nafarroako hezkuntza sisteman.**
Ondorengo testua sartzea onartu ez izanagatik:

"Eskola Kontseiluak uste du Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikari eta euskararen erabilera garatzeko onetsitako arau batzuei buruzko ekimenak, 372/2000 F.D eta 203/2001 F.D. hain zuzen ere, euskararen hezkuntzaren arloan duen erabilera indartu beharrean, euskara eskolako lehen urteetan etengabe izaten ari den eskari igoera mugatzeko borondatea agertu dute; azken ikasturteetako matrikulazio datuek argi erakusten dute igoera hori.
Foru Dekretu horrek aplikatzeak eta garatzeak disfuntzioak eragin ditzake "D" hizkuntza eredua duten ikastetxeen funtzionamenduan, ez baita bermatzen administrazio eta zerbitzuetako langileek ikastetxeko hizkuntzak jakitea.
2001ean, hizkuntzen Europako urtean, ez da ulergarria hizkuntzen erabilera murrizteko neurriak hartzea, hain zuzen ere gure erkidegoko kultur ondarean den euskararen kasuan.
Hori dela-eta, Nafarroako Eskola Kontseilu honek uste du beharrezkoa dela hizkuntza politika hori aldatzea eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak euskarako irakaskuntza bultzatzeko neurriak hartzea, baita hezkuntzaren arloan errespetua eta hizkuntzen elkarbizitza sustatzeko neurriak ere.
Nafarroako Eskola Kontseiluak irakaskuntzako B eredu berri bat diseinatzeko eskatu du, zeren eta uste baitu benetako elebitasuna bultza dezakeela eta elkar errespetatzea eta onartzea susta ditzakeela.
Era berean, Eskola Kontseilua egungo legeria aldaraztearen alde dago, euskara irakasteko eta euskaraz irakasteko eskaintza publikoa ahalbidetzeko Nafarroako Foru Komunitatean."

**7.3. atalari. Eskolako zerbitzuak.**
Ondorengo testu hau sartzea onartu ez izanagatik:

"Eskolako jantokia oinarrizko zerbitzu osagarria denez gero, bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetan ezartzea gomendatzen da, hezkuntza sistema hobetzen laguntzeko eta familian gertatzen ari diren aldaketek eragindako eskari sozialari erantzuna emateko. Neurri horren bidez, gainera, erantzuna emango litzaieke jantokiaren beka izateko eskubidea galtzen duten ikasleei, institutuek horrelako zerbitzurik ez dutela-eta.

Eskola Kontseiluaren iritziz, beharrezkoa da eskolako jantokien zerbitzuen gaur egungo araudia berrikustea, eta Eskola Kontseiluak berak erabakiak hartzeko organo gorenak izatea pro-

posatu du, beti ere administrazioaren ikuskaritzapean eta Gurasoen Elkarteen Federazioaren txostenarekin. Halaber, zaintzaileen prestakuntza eta zereginak eta egungo ratioen hobekuntza berrikusi beharko lirateke.

Eskola garraioari dagokionez, Bigarren Hezkuntzako Zaintzaileak jartzea komeni dela uste da, baita nahitaezko hezkuntza ondorengo ikasleentzako bideen antolakuntzan sartzea ere."

Eskoletako jantokien araudia berrikusteko beharrari buruzko azalpena:
- 246/1991 Foru Dekretuak, "ohikotzat" (eskualdekoak ez direnak) hartzen diren jantokiei dagokienez, Gurasoen Federazioaren esku uzten ditu jantokion kudeaketa, kontratazioa, arduradunaren izendapena eta finantzabideak. Gaur egunean, "integraziokotzat" jotzen diren ikastetxe publiko guztiak eta ikasle bekadunak dituzte jantokiok. Hezkuntzako zerbitzu horren erantzukizun ezin eskuordetu daiteke borondatezko erakunde batean; erakunde hori egon daiteke edo ez.
- Foru Dekretu horren garapenari buruzko 186/1993 Foru Aginduak ezarri du ezen jantokiek horiek erabiltzen dituzten berrogei ikasleko erabiltzaileko zaintzaile bat izan behar dutela gutxienez. Ratio hori, begi-bistakoa denez, ez da nahikoa, are gutxiago zerbitzu hori erabiltzen duten haur hezkuntzako ikasle kopurua kontuan izanik.

**8.2. atalari. Hezkuntza kontzertuak.**
Ondorengo testu hau sartzea onartu ez izanagatik:

"Foru Komunitatea da ikastetxe pribatuen ia %100 itunpean dituen erkidego bakarra, ez bakarrik nahitaezko ataletan, baizik eta Haur Hezkuntzako 2. Zikloan, Batxilergoan, erdi lanbide heziketako erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloetan ere, horiek guztiak nahitaezkoa irakaskuntzakoak ez direnak.

Konstituzioak eta indarreko legeriak hezkuntzaren administrazioei ezartzen dien betebehar bakarra doako sare publikoari eustea da, hezkuntza, aukera berdintasuna eta desberdintasunak orekatzeko herritarren duten eskubidea bermatze aldera, beti ere inolako hautaketa edo diskriminaziorik gabe.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren ustetan, sare pribatuak sare publikoaren ordezkatzailea izan behar du, sare publikora heltzerik ez duten herrietako ikastetxe pribatuen nahitaezko irakaskuntza-unitateak baino ez lirateke finantzatu behar eta itunpeko ikastetxeek publikoek betetzen dituzten eskakizun berak zorrotz bete behar dituzte."

**CSI-CSIF-EK AURKEZTU DUEN boto PARTIKULARRA.**

CSI-CSIF-eko ordezkaria den Rosa Mª Pérez Bardot andreak Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostenari egindako boto partikularra, 2000-2001 ikasturtea, ez baitzaie eutsi 3.3.a) atalean Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak osoko bilkurari proposatutako balorazioei. Hona hemen balorazio horiek:

Nafarroako Eskola Kontseiluak deitoratu egiten du hain proiektu interesgarrian abian jartzeko "Jose Mª Huarte" Ikastetxetik frantsesaren irakaskuntza desagertu izana, urte askoan indarra izan duena.
Ez da ulertzen hizkuntza bat beste baten ordez jartzea (eta, hortaz, ikastetxeko irakasleek zuten maila egiaztatuari etekina ateratzeari uztea), ingelesa Haur Hezkuntzatik atzerriko hizkuntza bakar gisa hartzeak dakarren zalantzazko "uniformizatze" horren alde eginez.

Nafarroako Eskola Kontseiluak jarduketa mota hau berriz aztertzea nahiko luke: bi hizkuntzok tokia izan beharko lukete proiektu orokorrean edo, behinik behin, ez lirateke murriztu behar aspalditik oso ongi funtzionatzen duten esperientziak.

Bestalde, Nafarroako Eskola Kontseiluak uste du haur hezkuntzatik ingelesaren edukiak irakasteko proiektu horrek ez duela erabateko zentzua izanen baldin eta ez bada oso goiz atzerriko bigarren hizkuntzaren irakaskuntzarekin osatzen.